

I. Atala / Sección I

**Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia****Foru Aldundia / Diputación Foral****Herri Lan eta Garraio Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 91/2012 FORU DEKRETUA, apirilaren 24koa, Errepideetako Tuneletako Segurtasun eta Ustiapen Jarraibide Teknikoak onartzen dituena.

ARRAZOIEN AZALPENA

Azken hamarkadetan, Europako hainbat tuneletan gertatu diren istripu larriek kostu zuzen nahiz zeharkako altuak eragin dituzte, eta, gainera, kontuan hartzen badugu tunelak eta horien instalazioak apurka-apurka zahartzen ari direla, azpiegitura horiek geroz eta trafiko handiagoa jasaten dutela eta tunelak geroz eta gehiago erabiltzen direla ingurumenean eragin baxua duten eta irtenbide ekonomiko ezin hobea osatzen duten eraikuntza-irtenbide gisa, gizarteak azpiegitura horien segurtasuna, eta, ondorioz, pertsonen segurtasuna hobetuko duten erabaki politikoak hartzeko eskatu du.

Horrenbestez, 2004. urtean, Europako Parlamentuak eta Europar Batasuneko Kontseiluak 2004/54/CE Zuzentaraua ezarri zuten 2004ko apirilaren 29an, Europa Barneko errepideen sareko tuneletako errepideen erabiltzaileei gutxieneko segurtasun-maila bermatzeko, 500 metrotik gorako luzera duten errepideetan, horiek proiektu-fasean nahiz eraikuntzan egon.

Zuzentarau honek estatu-kideak behartzen ditu neurri hau beren esparru juridikoetan aplikatzera, eta, gainera, ezaugarri horiek dituzten tunelak egokitzeko epeak ezartzen ditu.

Bizkaiko Foru Aldundiak bere Lurralde Historikoko errepide eta bideen planifikazio, proiektu, eraikuntza, kontserbazio, aldaketa, finantziario, erabilera eta ustiapenean duen eskumen eksklusiboan oinarrituta, Autonomia Erkidegoko Erakunde Komununen eta horien Lurralde Historikoetako organo foralen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen arabera, Aldundiak errepideetako tuneletako segurtasunari buruzko abuztuaren 23ko 135/2006 Foru Dekretua onartu zuen. Dekretu horrek, nahitaez bete beharreko barne-araudia errespetatuta, Zuzentaraua Bizkaiko berezitasunetara egokitu zuen eta eskakizunak Bizkaiko errepideen foru-sareko tunel guztietara hedatu zituen.

Dekretu horrek honakoa dio xedapen gehigarri bakarrean: «Foru Administrazioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra Arautu duen Legean ezarritakoaren arabera, Tunelen Segurtasunerako Jarraibide Tekniko hauek jarriko ditu indarrean». Halaber, azken xedapenetako lehenagoak honakoa ezartzen du: «Bizkaiko Foru Aldundiak, Herri Lan eta Garraio Sailak proposatuta, dekretu hau garatzeko araudia onetsiko du», hau da, errepideetako tuneletako Segurtasun eta Ustiapen Jarraibide Teknikoak.

Ondorioz, Foru Aldundiak, abuztuaren 20ko 134/2008 Foru Dekretuaren bidez, onartu egin zituen errepideetako tuneletako Segurtasun eta Ustiapen Jarraibide Teknikoak, orain arte indarrean egon direnak eta, zalantzarik gabe, Bizkaiko errepideetako tuneletako segurtasuna finkatzeko orduan lagundu dutenak. Bere zehaztasun-maila, kalitate tekniko eta berritasunari esker, neurri handi batean, dekretua errepide bidezko garraioaren sektorerako erreferente bilakatu da.

Argitaratu zenetik konplexutasun handiko tunelak gauzatu dira obra handietan eta eskala handiko proiektuak garatu dira. Horrenbestez, segurtasunari, eta, bereziki, ezarritako neurrien eraginkortasunari eta hasierako beste baldintza batzuk aplikatzeko zailtasunari buruzko esperientzia garrantzitsua batu ahal izan da.

Departamento de Obras Públicas y Transportes

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 91/2012, de 24 de abril, por el que se aprueban las Instrucciones Técnicas de Seguridad y Explotación en Túneles de Carreteras.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En las últimas décadas, los graves accidentes ocurridos en varios túneles europeos con sus elevados costes tanto directos como indirectos, unido al envejecimiento paulatino que se venía produciendo en los túneles existentes y sus instalaciones, con el incremento del volumen de tráfico que soportan estas infraestructuras y al cada vez mayor uso de los túneles como soluciones constructivas de menor impacto ambiental y óptima solución económica, han movido a la sociedad a exigir la adopción de decisiones políticas encaminadas a mejorar la seguridad de estas infraestructuras y en consecuencia la seguridad de las personas.

Así en el año 2004, el Parlamento Europeo y el Consejo de la Unión europea adoptan el 29 de abril de 2004 la Directiva 2004/54/CE con el objetivo de garantizar un nivel mínimo de seguridad a los usuarios de la carretera en los túneles de la Red Trans-europea de carreteras, cuya longitud supere los 500 metros, tanto si están en fase de proyecto como en construcción.

Esta Directiva obliga a los Estados miembros a transponerla a sus respectivos marcos jurídicos y marca además plazos para la adaptación de los túneles existentes de esas características.

En base a la competencia exclusiva de la Diputación Foral de Bizkaia en la planificación, proyecto, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de carreteras y caminos de su Territorio Histórico, según Ley 27/1983, de 25 de noviembre de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos forales de sus Territorios Históricos (LTH), la Diputación aprobó el Decreto Foral 135/2006, de 23 de agosto sobre seguridad de túneles en carreteras que supuso, respetando la normativa interna de obligado cumplimiento, la adaptación de la Directiva a las especificidades de Bizkaia y la extensión de los requerimientos a todos los túneles de la red foral de carreteras de Bizkaia.

Este Decreto en su disposición adicional única señala, «La Administración Foral, de acuerdo con lo establecido en la Ley Reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco, pondrá en vigor las Instrucciones Técnicas de Seguridad y Explotación de túneles». Y asimismo en la disposición final primera establece «La Diputación Foral de Bizkaia, a propuesta del Departamento de Obras Públicas y Transportes aprobará la normativa de desarrollo del presente Decreto Foral», es decir las Instrucciones Técnicas de Seguridad y Explotación en túneles de carreteras.

Consecuentemente, la Diputación Foral aprobó por Decreto Foral 134/2008, de 20 de agosto, las Instrucciones Técnicas de Seguridad y Explotación en túneles de carreteras, que han permanecido en vigor hasta la fecha y han contribuido, sin duda, a afianzar el aseguramiento de la seguridad en los túneles de carreteras de Bizkaia. Su grado de especificidad, calidad técnica y primicia ha contribuido, en buena medida a ser considerada referente para el sector del transporte terrestre por carretera.

Desde su publicación, se han realizado grandes obras que incluían túneles de gran complejidad, así como desarrollo de proyectos de gran escala, que han permitido acumular una experiencia importante sobre la seguridad y en especial, sobre la eficacia de las medidas establecidas así como de la dificultad de la aplicación de otros requisitos iniciales.

Horrez gain, kontuan hartu beharra dago tuneletako segurtasun-instalazioetan erabilitako teknologiak etengabe garatzen ari direla eta aldaketa teknologikoetara egokitu beharra dagoela. Era berean, aplikatu beharreko araudi berrietara ere egokitu behar da.

Beste herrialde europar batzuetan gertatzen ari den bezala, ezinbestekoa da gizartearen eskaera berrietara, garraioa erabiltzeko ohitura berrietara eta egungo egoera ekonomiko berrira egokitzea. Azken horrek, hain zuzen ere, aurrekontuari eustera behartzen gaitu eta, seguru asko, luzerako izango da.

Hori dela eta, kasuan kasu lortu nahi den segurtasun-maila eskuratzeko beharrezko neurriak ezartzeko orduan malgutasun handiagoa izan behar da, antzeko tunelen artean batasun-irizpideak mantenduta. Hortaz, neurri eraginkorrak eskatu behar dira segurtasunari kalterik eragin gabe, eta, horregatik, errepideetako tuneletako Segurtasun eta Ustiapen Jarraibide Tekniko Berriak onartzeko planteatu da.

Beraz, lehen adierazitakoa kontuan hartuta, Foru Dekretu honen helburua tunel baten bizi-zikloko fase guztietan zaindu beharreko segurtasun-elementuei buruz eskatutako baldintza teknikoak zehaztea da: proiektua, eraikuntza, abiaraztea eta ustiapena. Dekretuaren aplikazio-eremua Bizkaiko Lurralde Historikoko errepideen sareko tunelak izango dira, Bizkaiko errepideei buruzko marxoaren 24ko 2/2011 Foru Arauari jarraiki.

Horren arabera, Herrilan eta Garraioko foru diputatuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2012ko apirilaren 24ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra

Onartu egingo da jarraian adieraziko diren Errepideetako Tuneletako Segurtasun eta Ustiapen Jarraibide Tekniko berriak zehazten dituen Foru Dekretua. Horren gaineko testu osoa Eranskin gisa erantsi da.

- Errepideetako Tuneletako Segurtasun eta Ustiapen Jarraibide Teknikoak:
 - I: Azpiegitura.
 - II: Energia elektrikoa.
 - III: Argiztapena.
 - IV: Aireztapena.
 - V: Suteetatik babesteko sistema.
 - VI: Segurtasun, zaintza eta kontrolerako sistemak.
 - VII: Tunelen ustiapena.

XEDAPEN INDARGABETZAILE

Bakarra

Indargabetuta geratu dira abuztuaren 20ko 134/2008 Foru Dekretua eta administrazioko xedapen orokorrak, baldin eta horien edukia Foru Dekretu honetan ezarritakoaren aurka badoa, xedapen iragankorretan adierazitakoari kalterik eragin gabe.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.—*Proiektu-fasean dauden eta Administrazioko Agintaritzak onartu ez dituen tunelak*

6 hilabeteko epe iragankorra ezarri da, Dekretu hau indarrean sartzetik aurrera, hasita dauden eta 134/2008 Foru Dekretuko jarraibide teknikoetan xedatutako eskakizunen arabera diren proiektuen tramitazioa amaitu ahal izateko. Epe iragankor horretan, errepideetako tuneletako segurtasunari buruzko 135/2006 Foru Dekretuko II. eranskinean deskribatzen den proiektua onartzeko prozedura osatu beharko da.

Epe hori iraganda, proiektu guztiek Dekretu honetan ezartzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

Bigarrena.—*Onartutako proiektua duten eta eskaini ez diren tunelak*

134/2008 Foru Dekretuko jarraibide teknikoetan xedatutako baldintzen arabera onartutako proiektua duten eta Dekretu hau inda-

Es necesario, además, tener en cuenta que las tecnologías utilizadas en las instalaciones de seguridad de los túneles están en continuo desarrollo, y se exige la adaptación a los cambios tecnológicos. Sin olvidar la necesidad de adaptarse igualmente a las nuevas normativas que sean de aplicación.

De manera análoga a lo que viene ocurriendo en otros países europeos, se hace imprescindible adaptarse a las nuevas exigencias de la sociedad, a los nuevos hábitos del uso del transporte, así como a la situación económica que nos embarga con una exigencia de contención presupuestaria que se prevé duradera en el tiempo.

Resulta así pues conveniente, dotar de una mayor flexibilidad al establecimiento de las medidas que sea precisas para alcanzar el nivel de seguridad deseable en cada caso, manteniendo criterios de uniformidad entre túneles similares. Se trata, por tanto, de exigir medidas eficaces pero más eficientes sin menoscabo de la seguridad y es por ello que se plantea la aprobación de las nuevas Instrucciones Técnicas de Seguridad y Explotación en túneles de carretera.

Por ello, teniendo en cuenta lo antes indicado, el objetivo del presente Decreto Foral es definir, los requisitos técnicos exigidos sobre los componentes de seguridad que deberán guardarse en todas las fases del ciclo de vida de un túnel: proyecto, construcción, puesta en servicio y explotación, siendo su ámbito de aplicación los túneles de la red de carreteras del Territorio Histórico de Bizkaia según la Norma Foral 2/2011, del 24 de marzo de carreteras de Bizkaia.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral de Obras Públicas y Transportes y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el 24 de abril de 2012,

DISPONGO:

Artículo único

Se aprueba el Decreto Foral por el que se determinan las nuevas Instrucciones Técnicas de Seguridad y Explotación en Túneles de Carreteras que a continuación se detallan, y cuyo texto íntegro se adjunta a la presente a modo de Anexo:

- Instrucciones Técnicas de Seguridad y Explotación en Túneles de Carreteras:
 - I: Infraestructura.
 - II: Energía eléctrica.
 - III: Alumbrado.
 - IV: Ventilación.
 - V: Sistema de protección contra incendios.
 - VI: Sistemas de seguridad, vigilancia y control.
 - VII: Explotación de túneles.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Única

Queda derogado el Decreto Foral 134/2008, de 20 de agosto, y todas aquellas disposiciones administrativas de carácter general cuyo contenido se oponga a lo establecido en el presente Decreto Foral, sin perjuicio de lo indicado en las Disposiciones Transitorias.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.—*Túneles en fase de proyecto no aprobado por la Autoridad Administrativa*

Se establece un periodo transitorio de 6 meses, a partir de la entrada en vigor de este Decreto, para que se pueda finalizar la tramitación de aquellos proyectos, que estando iniciados, sean conformes a los requisitos dispuestos en las instrucciones técnicas del DF 134/2008. En este periodo transitorio deberán completar el procedimiento de aprobación del proyecto que se describe en el anexo II del DF 135/2006 de seguridad de túneles en carreteras.

Transcurrido dicho plazo, todos los proyectos deberán cumplir los requisitos que en este Decreto se establecen.

Segunda.—*Túneles con proyecto aprobado y no licitados*

En el caso de túneles con el proyecto aprobado conforme a los requisitos dispuestos en las instrucciones técnicas del Decreto Foral

rrean jarri den unean eskaini ez diren tunelen kasuan, tunelaren kudeatzaileak baldintza berrietara egokitzen ote den aztertu beharko du, eta, beharrezkoa bada, proiektua aldatzeko agindu beharko du, obrak fisikoki hasi baino lehen.

Ikuskaritza Organismoak gainbegiratu beharko du horrela eguneratutako proiektuaren aldaketa, eta, obrei benetako hasiera emateko, adostasuna adierazten duen txostena egin beharko da.

Hirugarrena.—Eraikuntza-fasean edo egokitzapenean dauden tunelak

Eraikuntza edo egokitzapen horren zuzendari edo arduradunek emandako informazioari jarraiki Administrazio Agintaritzaren ustez Foru Dekretu hau indarrean sartu ondorengo 4 hilabeteen barruan amaituko ez diren eta eraikuntza-fasean edo egokitzapenean dauden tunelen kasuan, tunelaren kudeatzaileak berau Dekretu honen baldintzetara egokitzen ote den aztertu beharko du, eta, beharrezkoa bada, obran egin beharrezko aldaketak aginduko ditu, Dekretu honetan ezartzen diren segurtasuneko zehaztapen tekniko berrietara egokitze aldera.

Lanak amaitzean jarraitu beharrezko prozedurak, errepideetako tuneletako segurtasunari buruzko 135/2066 Foru Dekretuko II. eranskinen adierazitakoak, Dekretu honetan ezartzen diren baldintza berrien arabera izango dira.

Laugarrena.—Martxan dauden tunelak

Dekretu hau indarrean jartzean martxan dauden tunel guztiak berorren baldintzetara egokitu beharko dira.

Horretarako, tunelaren kudeatzaileak tunelak Dekretura egokitzeko plana gauzatu beharko du, eta, aurrekontu-inbertsiorako gaitasunarekin bat eginez, egokitzapen-aldi horiek ez dira inoiz 10 urtetik gorakoak izango, Dekretu hau indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita.

Edonola ere, 2004/54/CE Zuzentarauan 500 metrotik gorako luzera duten eta Europa Barneko errepideen sarean dauden tuneletarako ezartzen diren epeak bete beharko dira.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2012ko apirilaren 24an.

Herrilan eta Garraioko foru diputatua,
ITZIAR GARAMENDI LANDA

Ahaldun Nagusia,
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

ERREPIDEETAKO TUNELEN SEGURTASUNERAKO FORU DEKRETUA

SEGURTASUN ETA USTIAPEN JARRAIBIDE TEKNIKOAK

I. ERANSKINA

AZPIEGITURA

1. XEDEA

Jarraibide Tekniko honen xedea Bizkaiko Foru Aldundiaren eremu geografikokoak diren tunelen ustiapenean, zerbitzuan jartzean, eraikuntzan, proiektuan eta plangintzan oinarritzko azpiegiturak betetzeko xedapen eta zehaztapen teknikoak definitzea da.

Dokumentu honen helburua da Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritako helburu hauek erdiestea:

Tuneletako plangintza-egileari, proiektu-egileari, eraikitzaileari edo ustiatzaileari lagungarri izango zaien gida bat eman nahi da, nork bere etapan segurtasunaren eskakizunei buruzko diseinuaren, eraikuntzaren eta ustiapenaren gaineko jarraibide teknikoak izan dezaten; hala, horien jarraibidearen edukia landu ahal izango dute.

Herri administrazioaren eskakizunak teknikoki zehaztea; hala, eskatzekoa den legezko eremu gisa balioko du.

Zerbitzu-maila altuari eustea errepideetako tunelen ustiapenean, tunelen barruko aldeetan pertsonen segurtasuna eta ongi-zatea hobetzeko, baita tunelen kudeaketa ekonomikoa hobea izan dadin lagungarria izateko ere.

134/2008, que no se hayan licitado a la entrada en vigor del presente Decreto, el Gestor del túnel deberá realizar el análisis de adecuación a los nuevos requisitos, y si fuera menester, deberá ordenar el modificado del proyecto previo al inicio físico de las obras.

El modificado del proyecto así actualizado deberá ser auditado por el Organismo de Inspección, siendo necesario un informe de conformidad para dar inicio real a las obras.

Tercera.—Túneles en fase construcción o en adecuación

Para aquellos túneles en fase de construcción o adecuación, cuya obra no se prevea finalizar, a juicio de la Autoridad Administrativa en base a la información aportada por los Directores o responsables de dicha construcción o adecuación, dentro de los 4 meses siguientes a la entrada en vigor del presente Decreto Foral, el Gestor del túnel deberá realizar el análisis de adecuación a los requisitos del presente Decreto, y si fuera menester, deberá ordenar los cambios a realizar en la obra, para ajustarse a las nuevas especificaciones técnicas de seguridad que se establecen en este Decreto.

Los procedimientos a seguir en la finalización de los trabajos, señalados en el anexo II del DF 135/2006 de seguridad de túneles en carreteras, serán de acuerdo a los nuevos requisitos que se establecen en este Decreto.

Cuarta.—Túneles en servicio

Todos los túneles en servicio a la fecha de entrada en vigor de este Decreto, deberán adaptarse a los requisitos del mismo.

Para ello el Gestor del túnel deberá realizar un Plan de adaptación de sus túneles al Decreto y en coherencia con la capacidad de inversión presupuestaria, fijar los periodos de adaptación. Estos periodos de adaptación nunca podrán ser superiores a 10 años desde la entrada en vigor de este Decreto.

Sin perjuicio del cumplimiento de los plazos establecidos en la Directiva 2004/54/CE para aquellos túneles de longitud superior a 500 metros incluidos en la red transeuropea de carreteras.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Bilbao, a 24 de abril de 2012.

La diputada foral de Obras Públicas y Transportes,
ITZIAR GARAMENDI LANDA

El Diputado General,
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

DECRETO FORAL DE SEGURIDAD DE TÚNELES EN CARRETERAS

INSTRUCCIONES TÉCNICAS DE SEGURIDAD Y EXPLOTACIÓN

ANEXO I

INFRAESTRUCTURA

1. OBJETO

La presente Instrucción Técnica tiene por objeto definir las disposiciones y especificaciones de carácter técnico que deben satisfacer las infraestructuras básicas en los túneles en explotación, puesta en servicio, construcción, proyecto y planeamiento pertenecientes al ámbito geográfico de la Diputación Foral de Bizkaia.

Este documento persigue los siguientes objetivos establecidos por la Diputación Foral de Bizkaia, a saber:

Disponer de una guía que sirva de ayuda al planificador, proyectista, constructor o explotador de túneles en carretera para que, cada uno en las etapas de su incumbencia, tenga una instrucción técnica clara de diseño, construcción y explotación sobre los requerimientos de seguridad que le permita desarrollar sus cometidos.

Concretar técnicamente las exigencias de la Administración Pública, de forma que sirvan de marco legal exigible.

Mantener un elevado nivel de servicio en la explotación de túneles viarios, incrementando la seguridad y bienestar de las personas en su interior, así como contribuir a la mejor gestión económica de los túneles.

Honako alderdi hauek aztertu beharko dira oinarrizko azpiegituraren diseinuaren barruan:

- Diseinu geometrikoa:
 - Ibilbidea.
 - Zeharkako sekzioa.
- Tunelaren beste elementu batzuen diseinua:
 - Bide-zoruak.
 - Estaldura.
 - Estaldura estetikoak.
 - Drainatzea.

Tuneletako segurtasunaren gaineko azpiegitura osagarriak honako helburu hauek ditu, besteak beste:

- Ihes egiteko eta sorospena emateko lanak erraztea.
- Mantentze lanak erraztea.
- Gorabeheren eraginak murriztea.
- Gorabeherak saihestea.

Hauexek sartzen dira azpiegitura osagarriaren barruan:

- Erabiltzaileak ebakutzeko eta babesteko instalazioak eta larrialdietako sarrerak.
- Larrialdietarako ibilgailuentzako instalazioak.
- Segurtasun-nitxoak.
- Sute-nitxoak.
- Bazterguneak.

2. IRISMENA

Jarraibide tekniko hau zerbitzuan dauden tunelei eta, oraindik ustiari ez arren, zerbitzuan jartzeko fasean, eraikitze fasean, proiektu fasean edo planeamenduko fasean dauden Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide-sareko tunelei aplikatuko zaie, Bizkaiko Errepidei buruzko martxoaren 24ko 2/2011 Foru Arauan ezarritakoaren arabera, eta kontuan hartuta errepideetako tunelen segurtasunari buruzko abuztuaren 23ko 135/2006 Foru Dekretuko 2. artikuluan ezarritako tunel definizioa.

Jarraibide teknikoak nahitaez bete beharreko segurtasun-baldintzak zehaztu ditu.

Praktikan betearazi ezin diren soluzio teknikoak erabili behar badira (jarraibidean adierazitako baldintza batzuk betetzeko) edo horien kostua neurritz kanpokoak izanez gero, Administrazio Agintaritzak arriskua murrizteko beste neurri batzuk aplikatzeko baimena eman dezake, baldin eta arriskua murrizteko neurriok segurtasun maila berbera edo handiagoa sortzen badute. Tunelaren kudeatzaileak, neurri horiek proposatzen dituenak, neurrien eraginkortasuna justifikatu beharko du, arriskuaren azterketa eginez.

Txosten hau Ikuskapen Erakundeak ikuskatuko du; Segurtasun Irizpina bidailiko dio Administrazio Agintaritzari, eta aldeko balorazioa ezinbestekoa izango da Administrazio Agintaritzaren baimena lortzeko.

Tunelaren kudeatzaileak, zuzenean edo kontratistaren edo ustiatzen duen enpresaren bidez (kudeatzaile ordezkariak), errepideetako tunelen segurtasunari buruzko abuztuaren 23ko 135/2006 Foru Dekretuko 5. artikulua betetzen dela bermatzeko beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko ditu, eta bereziki, ikuskapen-organoaren ikuskapenetan, probetan, entseguetan, ikuskapen, gainbegiratze- eta ebaluazio-zereginetan, jardute-protokoloen simulakro edo simulazioetan, bai eta lanetan segurtasunerako baldintzak bermatzeko ere (adibidez: erraiak itzea, seinaleak jartzea).

3. KODEAK, ARAUAK ETA ARAUDIAK

Honakoak dira tunelen oinarrizko azpiegiturekin lotutako alderdiak aipatzen dituzten arauak eta araudiak:

- Abuztuaren 23ko 135/2006 Foru Dekretua, Bizkaiko errepideetako tuneletan izan beharreko segurtasunari buruzkoa.

Dentro del diseño de infraestructura básica se deben analizar los siguientes aspectos:

- Diseño Geométrico:
 - Trazado.
 - Sección transversal.
- Diseño de otros elementos del túnel:
 - Firmes.
 - Revestimiento.
 - Revestimiento estético.
 - Drenaje.

La infraestructura auxiliar de seguridad en los túneles tienen, entre otros, los siguientes objetivos:

- Facilitar las labores de escape y socorro.
- Facilitar las labores de mantenimiento.
- Reducir las afecciones producidas por incidentes.
- Evitar incidentes.

Dentro de la infraestructura auxiliar se incluyen:

- Instalaciones para la evacuación y protección de usuarios y acceso de emergencia.
- Instalaciones destinadas a vehículos de emergencia.
- Nichos de seguridad.
- Nichos de incendios.
- Apartaderos.

2 ALCANCE

La presente Instrucción técnica se aplicará a los túneles en servicio y a los túneles que aún no estando en explotación, se encuentran en fase de puesta en servicio, en fase de construcción, en fase de proyecto o en fase de planeamiento, de la red de carreteras del Territorio Histórico de Bizkaia según Norma Foral 2/2011, del 24 de marzo de Carreteras de Bizkaia y según la definición de túnel establecida en el artículo 2 del Decreto Foral 135/2006, de 23 de agosto, sobre seguridad de túneles en carreteras.

La Instrucción técnica define los requisitos de seguridad que serán de obligado cumplimiento.

En el caso de que determinados requisitos indicados en la instrucción solo puedan satisfacerse recurriendo a soluciones técnicas de imposible ejecución en la práctica o que tengan un coste desproporcionado, la Autoridad Administrativa podrá autorizar que se apliquen otras medidas de reducción del riesgo, siempre y cuando estas medidas de reducción del riesgo den lugar a un nivel equivalente o mayor de seguridad. El Gestor del Túnel, proponente de estas medidas, deberá justificar la eficacia de las mismas mediante un Análisis de riesgo.

Este informe será auditado por el Organismo de Inspección, quien remitirá a la Autoridad Administrativa un Dictamen de Seguridad, cuya valoración favorable será necesaria para obtener la autorización de la Autoridad Administrativa.

El gestor del Túnel, directamente o a través del contratista o empresa explotadora (gestores delegados), deberá poner los recursos materiales y humanos necesarios para garantizar el cumplimiento del DFST (DF 135/2006, de 23 de agosto, artículo 5), y particularmente en la ejecución de las inspecciones del Organismo de Inspección, pruebas, ensayos, tareas de inspección, supervisión y evaluación así como la realización de simulacros o simulaciones de protocolos de actuación, y para garantizar las condiciones de seguridad en los trabajos (ej. Cortes de carril, señalización).

3. CÓDIGOS, NORMAS Y REGLAMENTOS

A continuación se citan Normas y Reglamentos que hacen referencia a aspectos relacionados con las infraestructuras básicas en los túneles:

- Decreto Foral 135/2006, de 23 de agosto, sobre seguridad de túneles en carreteras de Bizkaia.

- Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko apirilaren 29an emandako 2004/54/CE Zuzentaraua, Europaz gaindiko Sareko Tuneletako segurtasunaren gutxieneko eskakizunei buruzkoa.
- 2004/54/EE Zuzentarauko akats-zuzenketa.
- Martxoaren 26ko 635/2006 Errege Dekretua, Estatuko errepideetako tunelen segurtasunerako gutxieneko baldintzei buruzkoa.
- 2006ko uztailaren 31ko 635/2006 Errege Dekretuko akatsen zuzenketa.
- Errepideen Jarraibidea, 3.1-IC Araua, Trazaketa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko errepideen sareko bide-zoruen neurriak ezartzeko arau teknikoa. 2007ko uztailaren 12ko Agindua.
- «Bide-Zoruen Atalak» 6.1-IC Errepideen jarraibidea.
- «Bide-Zorua Birgaitzea» 6.3-IC Errepideen jarraibidea.
- «Drainaketa» 5.1-IC Errepideen jarraibidea.
- «Azaleko drainaketa» 5.2-IC Errepideen jarraibidea.
- UNE arauak.
- Ministerioen arteko 2000-63 zirkularren 2. eranskina, 2000ko abuztuaren 25ekoa, errepideen sare nazionalen tunelen segurtasunari buruzkoa (Frantzia).
- Ministerio arteko 2006-20 zirkularra, 2006/03/29koa, 300 metrokoak baino luzeagoak diren errepide-tunelen segurtasunari buruzkoa. 2000/08/25eko ministerio arteko 2000-63 zirkularra baliogabetu du, 2. eranskina izan ezik. Horrek indarrean jarraitzen du. (Frantzia).
- CETU- Dossier pilote des tunnels. (Frantzia).
- 312/2005 Errege Dekretua, martxoaren 18koa, eraikuntza-produktuen eta eraikuntza-elementuen sailkapena, suaren aurrean dituzten erantzun- eta erresistentzia-ezaugarrien arabera, onetsi duena.
- Directiva 2004/54/CE del Parlamento Europeo y del Consejo de 29 de abril de 2004 sobre requisitos mínimos de seguridad en Túneles de la Red TransEuropea de carreteras.
- Corrección de errores de la Directiva 2004/54/CE.
- Real Decreto 635/2006, de 26 de mayo, sobre requisitos mínimos de seguridad en los túneles de carreteras del Estado.
- Corrección de errores del Real Decreto 635/2006, de 31 de julio 2006.
- Instrucción de Carreteras, Norma 3.1-IC, Trazado.
- Norma para el dimensionamiento de firmes de la red de carreteras del País Vasco. Orden del 12 de julio de 2007.
- Instrucción de Carreteras 6.1-IC «Secciones de firmes».
- Instrucción de Carreteras 6.3-IC «Rehabilitación de firmes».
- Instrucción de Carreteras 5.1-IC «Drenaje».
- Instrucción de Carreteras 5.2-IC «Drenaje superficial».
- Normas UNE.
- Anexo 2 de la Circular interministerial Número 2000-63 del 25 de agosto de 2000 relativa a la seguridad en los túneles de la red nacional de carreteras (Francia).
- Circular Interministerial Número 2006-20 del 29/03/2006, relativa a la seguridad de túneles de carreteras de longitud superior a 300 metros. Anula a la Circular Interministerial número 2000-63 del 25/08/2000, a la excepción del Anexo 2, que se mantiene en vigor (Francia).
- CETU- Dossier pilote des tunnels. (Francia).
- Real Decreto 312/2005, de 18 de marzo, por el que se aprueba la clasificación de los productos de construcción y de los elementos constructivos en función de sus propiedades de reacción y resistencia frente al fuego.

4. DISEINU GEOMETRIKOA

4.1. Sarrera

Funtzionaltasunaren gaineko elementuez, luraren ezaugarri geologikoez eta geoteknikoez eta ingurumenaren eskakizunez gain, tunelaren diseinu geometrikoa oso alderdi garrantzitsua da, bai errepideko erabiltzailearen ikuspuntutik, bai eraikuntzaren, mantentzearen, ustiapenaren eta segurtasunaren aldetik.

Errepideko gainerako tarteez eta horien ezaugarriek baldintzatu ohi dute tunelaren trazaketa; izan ere, tarte horiekin bat etorri behar du. Hala eta guztiz ere, tuneleko trazaketak istripuekin lotuta segurtasunaren aldetik duen eraginak baldintza geometriko zorrotzagoak eskatzen ditu, aire zabaleko errepidean baino handiagoak, hain zuzen.

Errepideko proiektuaren abiadurari dagozkion parametroekin egingo da tuneleko elementuen trazaketa.

Jarraibide honen ondorioetarako, ibilgailu astunen ehunekoak EBlaren %15 gainditzen duenean edo urtaroko eguneko batez besteko intentsitateak (EBI) nabarmen gainditzen duenean urteko batez bestekoa, ebaluatu egingo da aparteko arrisku hori.

4.2. Diseinuko abiadura

Noranzko bakarrekotunel guztietan, gehieneko abiadura 100 km ordukoa izango da, tunelen ezaugarri geometrikoen edo beste ezaugarri batzuen ondorioz muga zorrotzagoak ezarri behar badira izan ezik.

II. eta III. motetako tuneletan, tunela dagoen errepidearen gehieneko abiadura-muga bera ezarriko da, abiadura-muga baxuagoa ezartzea gomendatzen duten arrisku zehatzak baldin badaude ezik, eta, zehazki, arrisku-indizea (AI) 35ekoa baino gehiagokoa bada (arrisku ertaina).

Noranzko biko eta galtzada bakarrekotunel guztietan debeatuta egongo da aurreratzea, eta gehieneko abiadura 80 km ordu-

4. DISEÑO GEOMÉTRICO

4.1. Introducción

Además de los elementos de funcionalidad, de las características geológico-geotécnicas del terreno y de las exigencias medioambientales, el diseño geométrico del túnel es un aspecto de vital importancia, tanto desde el punto de vista del usuario de la carretera, como del de la construcción, mantenimiento, explotación y seguridad.

Normalmente el trazado del túnel se haya condicionado por el del resto de la carretera y sus características, con las cuales debe mantener una cierta homogeneidad. Ahora bien, la incidencia que el trazado del túnel tiene en la seguridad frente a incidentes, obliga a introducir unas mayores exigencias geométricas que en el caso de que la carretera discorra por cielo abierto.

El trazado de los elementos del túnel se realizará con los parámetros correspondientes a la velocidad de proyecto de la carretera en la se sitúa.

A efectos de esta instrucción, cuando el porcentaje de pesados supere el 15% de la IMD, o cuando la IMD estacional supere significativamente la media anual, el riesgo adicional, se evaluará.

4.2. Velocidad de diseño

En todos los túneles unidireccionales de tipo I, se limitará la velocidad máxima a 100 km/h, salvo que su geometría u otras características obliguen a mayores limitaciones.

En los túneles de tipo II y III, se empleará en general la limitación de velocidad genérica de la vía en la que se encuentra el túnel, salvo que existan riesgos específicos que recomienden una limitación inferior de la velocidad, particularmente si el índice de peligrosidad (IP) es superior a 35 (peligrosidad media).

En todos los túneles bidireccionales de una sola calzada se prohibirá el adelantamiento y se limitará la velocidad máxima a 80

koa izango da, tunelen ezaugarri geometrikoen edo beste ezaugarri batzuen ondorioz abiadura-muga baxuagoak ezarri behar badira izan ezik.

Tunel baten abiadura-muga lehen adierazitako mugetaraino areagotu ahal izateko, nahitaezkoa izango da neurri hori hartzea justifikatzen duen azterlan bat egitea. Azterlan horretan, arriskuaren aurreko segurtasun-mailak ebaluatu beharko dira, eta, horretarako, hainbat faktore garrantzitsu analizatuko dira, hala nola: tunelaren trazadura, diseinua, instalazioak, tunel-mota (arriskuari dagokionez), daukan trafikoa, astunen ehuneko eta salgai arriskuak igarotzen diren, bideak dituen zerbitzu-mailak, istripu-indizeak, etab., eta, egokia bada, beharrezkoak diren aldaketak proposatuko dira (seinaleak jartzea, jarduera-protokolo eta -sistemata egokitzea, etab.) indarrean dagoen araudia betetzeko, ezarpena egin baino lehen.

4.3. Oinplanoko trazaketa

Oinplanoko trazaketak, oro har, errepideetarako Trazaketaren 3.1-IC Arauan ezarritakoa bete beharko du, baita proiektuaren abiadura ere.

Gainera, tuneletako bestelako alderdi espezifikokoak izan beharko dira kontuan.

4.3.1. Tunelera hurbiltzea

Tunelera hurbiltzeko trazaketan, kontrakoa justifikatzen bada izan ezik, gidariak tuneleko ahoa tunelean sartu baino 15 segundo lehenago ikusiko duela bermatu behar da, zirkulazioa tunelari datzekion ezaugarrietara egokitzeko.

Hau da, honako ikuspen-distantzia hauek bete beharko dira:

$$D = 4,17 \times V$$

D = Tuneleko ahoaren ikuspen-distantzia (m).

V = Errepidearen proiektuko abiadura (km/h).

Hiriko tuneletan eta hainbat tunel jarraian dauden errepideetan, aipatutako denbora laburragoa izan daiteke.

4.3.2. Tuneleko irteera

Eguneko argitasunak tuneleko irteeran ibilgailuen gidariak itsu litzakeela ikusten bada, horrelako jazoerak ez gertatzeko neurriak hartuko dira, bereziki, zona horretako errepidearen lerrokadurak eguneko zenbait ordutan eguzki-izpien orientazioarekin bat egiten duenean.

Oro har, ez da proiektatuko ekialde-mendebaldearekin bat datozen alienaziorik.

Tunelaren irteera aztertuko da, trazaketaren kalitatea ez kaltezeko eta abiadura gutxitzea ez eragiteko.

4.3.3. Ikuspena

Gelditzeko gutxieneko distantzia baino handiagoa izango da tunelaren barruko ikuspen-distantzia, proiekturako abiadurarekin kalkulatu, eta ahal dela gelditzeko distantzia gaudituko du, proiektuko abiadura gehi 20 km orduko abiadurarekin kalkulatu.

Ikuspen-distantzia kalkulatzeko, ikuspena oztopatzen duten tuneleko elementu guztiak hartuko dira aintzat.

4.3.3.1. Gelditzeko distantzia

Ibilgailu bat lehenbailehen eta nahitaez gelditzeko eginiko guttizko distantziari deritzo D_p gelditzeko distantzia; gelditu beharra dakarren objektua agertzen denetik hasita neurtuko da distantzia hori. Pertzepzio, erreakzio eta balaztatze denboretan eginiko distantzia ere sartzen da distantzia horretan. Adierazpen honen bidez kalkulatu da:

$$D_p = \frac{V \cdot t_p}{3,6} + \frac{V^2}{254 \cdot (f_1 + i)}$$

Hauxe izanik:

D_p = Gelditzeko distantzia (m).

V = Abiadura (km/h).

f_1 = Gurpil-zoladuraren marruskadura longitudinalerako koefizientea.

km/h, salvo que su geometría u otras características impongan menores velocidades.

La limitación de velocidad en un túnel existente solo se podrá incrementar, hasta los límites marcados anteriormente, tras un estudio justificativo. En este estudio se deberán evaluar los niveles de seguridad frente a la exposición al riesgo y para ello se analizarán factores relevantes tales como: el trazado y geometría del túnel, su diseño, las instalaciones, su tipología en relación a los riesgos, el tráfico existente, el porcentaje de pesados y el paso de mercancías peligrosas, los niveles de servicio que presenta la vía, los índices de accidentabilidad, etc., proponiéndose en su caso las modificaciones necesarias (señalización, adaptación de protocolos de operación y sistemas, otros) para adaptarse a la normativa vigente, como paso previo a su implantación.

4.3. Trazado en planta

El trazado en planta cumplirá en general lo indicado en la Norma de Trazado 3.1-IC para carreteras con la correspondiente velocidad de proyecto.

Adicionalmente, se deben tener en cuenta otra serie de aspectos específicos de los túneles.

4.3.1. Aproximación al túnel

El trazado de aproximación al túnel deberá garantizar, salvo justificación en contrario, que el conductor perciba la boquilla de entrada 15 segundos antes de entrar, para que adecue la circulación a las características propias del túnel.

Esto conduce a una distancia de visibilidad de:

$$D = 4,17 \times V$$

D = Distancia de visibilidad de la boquilla del túnel (m).

V = Velocidad de proyecto de la carretera (km/h).

En túneles urbanos, y en circunstancias en que se produzca una sucesión de túneles, el tiempo requerido podrá ser inferior.

4.3.2. Salida del túnel

Se adoptarán medidas conducentes a eliminar o paliar el posible efecto del deslumbramiento del conductor del vehículo a la salida del túnel, en especial cuando la alineación de la vía en esta zona coincida con la orientación de los rayos solares en algunas horas del día.

En general, no se proyectarán alineaciones en planta con orientación este-oeste.

Se estudiará la salida del túnel con objeto de evitar pérdidas de calidad en el trazado que supongan requerimientos de disminución de velocidad.

4.3.3. Visibilidad

La distancia de visibilidad dentro del túnel será superior a la distancia de parada mínima, calculada con la velocidad de proyecto, siendo deseable que supere la distancia de parada calculada con la velocidad de proyecto incrementada en 20 km/h.

Para el cálculo de la distancia de visibilidad se considerarán todos los elementos del túnel que produzcan obstrucciones visuales.

4.3.3.1. Distancia de parada

Se define como distancia de parada (D_p) la distancia total recorrida por un vehículo obligado a detenerse tan rápidamente como le sea posible, medida desde su situación en el momento de aparecer el objeto que motiva la detención. Comprende la distancia recorrida durante los tiempos de percepción, reacción y frenado. Se calculará mediante la expresión:

$$D_p = \frac{V \cdot t_p}{3,6} + \frac{V^2}{254 \cdot (f_1 + i)}$$

Siendo:

D_p = Distancia de parada (m).

V = Velocidad (km/h).

f_1 = Coeficiente de rozamiento longitudinal rueda-pavimento.

i = Sestraren makurdura (bateko portzentajea).

t_p = Pertzepzio eta erreakzio denbora (s).

Arau honen ondorioetarako, gelditzeko gutxieneko distantzia izango da proiektuko abiadura oinarritzat hartuta lorturikoa.

Hainbat abiaduratarako marruskadura longitudinalako koefizientea kalkulatzeko, 3.1. taulatik lortuko dira balioak Tarteko abiadura-balioen kasuan, taula horretan linealki interpolatu ahaliko da. Pertzepzio eta erreakzio denboraren balioa bi segundokoa izango da ($t_p = 2$ s).

4.1. Taula – Marruskadura longitudinalako koefizientea


V (km/h)	40	50	60	70	80	90	100	110	120	130	140	150
μ	0,432	0,411	0,390	0,369	0,348	0,334	0,320	0,306	0,291	0,277	0,263	0,249

3.2. taulan, hainbat abiaduratan eta makurduran lortutako balioak agertzen dira.

4.2. Taula – Gelditzeko distantzia

Makurdura (%)	Abiadura (km/h)									
	40	60	80	90	100	110	120	130	140	150
-%8	40	79	138	176	220	272	335	410	499	607
-%7	40	78	135	171	213	263	323	394	478	578
-%6	39	76	132	166	207	255	312	379	458	552
-%5	39	75	129	162	201	247	302	365	440	528
-%4	38	74	126	158	196	240	293	353	424	507
-%3	38	73	124	155	191	234	284	342	409	488
-%2	38	72	121	152	187	228	276	331	395	470
-%1	37	71	119	148	183	222	268	321	383	454
%0	37	70	117	145	179	217	261	312	371	439
%1	36	69	115	143	175	212	255	304	360	425
%2	36	68	113	140	171	207	249	296	350	413
%3	36	67	111	138	168	203	243	289	341	401
%4	36	66	109	135	165	199	238	282	332	390
%5	35	66	108	133	162	195	233	276	324	380
%6	35	65	106	131	159	191	228	270	317	370
%7	35	64	105	129	157	188	224	264	310	361
%8	35	63	103	127	154	185	219	259	303	353

4.1. irudia – Gelditzeko distantzia



i = Inclinación de la rasante (en tanto por uno).

t_p = Tiempo de percepción y reacción (s).

A efectos de la presente Norma, se considerará como distancia de parada mínima, la obtenida a partir de la velocidad de proyecto.

A efectos de cálculo el coeficiente de rozamiento longitudinal para diferentes valores de velocidad se obtendrá de la Tabla 4.1. Para valores intermedios de velocidad se podrá interpolar linealmente en dicha tabla. El valor del tiempo de percepción y reacción se tomara igual a dos segundos ($t_p = 2$ s).

Tabla 4.1 – Coeficiente de rozamiento longitudinal


V (km/h)	40	50	60	70	80	90	100	110	120	130	140	150
μ	0,432	0,411	0,390	0,369	0,348	0,334	0,320	0,306	0,291	0,277	0,263	0,249

En la Tabla 4.2 se muestran los valores que se obtienen para distintas velocidades e inclinaciones.

Tabla 4.2 – Distancia de Parada

Inclinación (%)	Velocidad (km/h)									
	40	60	80	90	100	110	120	130	140	150
-8%	40	79	138	176	220	272	335	410	499	607
-7%	40	78	135	171	213	263	323	394	478	578
-6%	39	76	132	166	207	255	312	379	458	552
-5%	39	75	129	162	201	247	302	365	440	528
-4%	38	74	126	158	196	240	293	353	424	507
-3%	38	73	124	155	191	234	284	342	409	488
-2%	38	72	121	152	187	228	276	331	395	470
-1%	37	71	119	148	183	222	268	321	383	454
0%	37	70	117	145	179	217	261	312	371	439
1%	36	69	115	143	175	212	255	304	360	425
2%	36	68	113	140	171	207	249	296	350	413
3%	36	67	111	138	168	203	243	289	341	401
4%	36	66	109	135	165	199	238	282	332	390
5%	35	66	108	133	162	195	233	276	324	380
6%	35	65	106	131	159	191	228	270	317	370
7%	35	64	105	129	157	188	224	264	310	361
8%	35	63	103	127	154	185	219	259	303	353

Figura 4.1 – Distancia de parada



4.3.3.2. Eragozpen-garriketa

Formula hau aplikatuz lortuko da, kurba zirkular batean, ikuspen jakin bat izateko beharrezko eragozpen-garriketaren balioa (3.2. irudia):

$$e = R - R \cdot \cos \left(\frac{31,83 \cdot D}{R} \right)$$

Hauek izanik:

e = horma pikotik gidariaren ibilbiderainoko gutxieneko distantzia (m).


R = Gidariaren ibilbidearen radioa (m).

D = Ibilgailuaren ibilbidearen batezbesteko ikuspina (m).


Aurreko formularen angeluaren balioa goniotan dago adierazita.

Gidariaren kokapena (3.3. irudia), eskuinera eginiko kurbetan, erreieren eskuineko ertzetik 2,00 metrora dagoela ulertuko da. Ezkerrean eginiko kurbetan, berriz, erreieren ezkerreko ertzetik 1,50 metroko distantziara dagoela ulertuko da.

4.2 irudia – Ikuspen-distantzia kurban dagoen tunel batean



4.3 irudia – Ikuslearen kokapena ezkerrean eta eskuinera eginiko kurbetan



4.4. Altzaerako trazaketa

Altzaerako trazaketak, oro har, errepidearen proiektuko abiadurarako ezarritakoa beteko du, baina honako baldintza osagarri hauek izango ditu.

4.4.1. Gutxieneko makurdura

Tunelaren malda longitudinalak bertara doazen uren drainaketa egingo dela bermatu beharko du, baita isurketak galtzadaren gainetik bizkor kentzea ere.

Tunelaren gutxieneko makurdura ehuneko zero koma bostekoa izango da (%0,5). Salbuespenezko kasuetan, ordea, balio txikiagoa izan dezake sestrak, betiere ehuneko zero koma bitik gorako izanik (%0,2). Gehieneko maldaren lerroko makurdura ez da ehuneko zero koma bostekoa baino txikiagoa izango plataformaren edozein puntutan (%0,50).

4.4.2. Gehieneko makurdura

Galtzada bereziak dituzten errepideetan kokatutako tuneletan ez dira egongo ehuneko hirutik (%3) gorako arrapalak, ahal dela, eta maldak ez dira ehuneko bostetik gorakoak izango (%5). Galtzada bakarreko errepideetan ez da egongo ehuneko hirutik gorako sestrako makurdurarik (%3). I. motako tunelen kasuan, sestraren makurduraren inguruko azterketa espezifikoa egin beharko da.

Oro har, tuneletako arrapalaren makurduraren eta luzeraren konbinazioak ez du eragin beharko derrigorrez erre gehiago diseinatzetik, eta, kontrako justifikatuta badago izan ezik, tunelaren trazaketak tunel osoan ibilgailu astunen abiadura gutxienez hirurogei kilometroko ordukoa izatea ahalbidetuko du (60 km/h).

4.3.3.2. Despejes

El valor del despeje necesario para disponer de una determinada visibilidad en una curva circular (Figura 4.2) se obtendrá aplicando la fórmula:

$$e = R - R \cdot \cos \left(\frac{31,83 \cdot D}{R} \right)$$

Siendo:

e = Distancia mínima del hastial a la trayectoria del conductor (m).

R = Radio de la trayectoria del conductor (m).

D = Visibilidad medida en la trayectoria del vehículo (m).

El valor angular de la fórmula anterior está expresado en gonios.

La posición del conductor (Figura 4.3) se considerará en las curvas a la derecha a 2,00 m del borde derecho del carril. En las curvas a la izquierda se considerará a 1,50 m del borde izquierdo del carril.

Figura 4.2 – Distancia de visibilidad en un túnel en curva





Figura 4.3 – Posición del observador en Curva a izquierda y derecha



4.4. Trazado en alzado

En general el trazado en alzado cumplirá lo dispuesto para la velocidad de proyecto de la carretera, con los siguientes condicionantes adicionales.

4.4.1. Inclinación mínima

La pendiente longitudinal del túnel debe garantizar el drenaje de las aguas que afloran al mismo, así como la rápida evacuación de vertidos sobre la calzada.

La inclinación mínima en túnel será de cinco décimas por ciento (0,5%). Excepcionalmente la rasante podrá alcanzar un valor menor, no inferior a dos décimas por ciento (0,2%). La inclinación de la línea de máxima pendiente en cualquier punto de la plataforma no será menor que cinco décimas por ciento (0,50%).

4.4.2. Inclinación máxima

En los túneles ubicados en carreteras con calzadas separadas, se evitarán rampas mayores del tres por ciento (3%), y pendientes mayores del cinco por ciento (5%). En carreteras de calzada única, se evitarán inclinaciones de rasante mayores del tres por ciento (3%). Para los túneles Tipo I la inclinación de la rasante será objeto de un estudio específico.

En general, la combinación de inclinación y longitud de las rampas en túneles, deberá ser tal que no obligue al diseño de carriles adicionales y salvo justificación en contrario, el trazado en alzado del túnel será tal que en toda su longitud la velocidad de los vehículos pesados no sea inferior a sesenta kilómetros por hora (60 km/h).

Esandakoetatik gorako makurdurak dituzten tuneletan neurri osagarriak edo indartuak ebaluatuko dira segurtasuna hobetzeko, edo biak batera, arrisku-azterketa bat oinarri hartuta.

4.4.3. *Sestra aldaketak*

Tuneletako beheko tokiak direla-eta, ura ateratzeko ponpaketa-sistema izan behar da. Bestalde, toki altuek aireztapen arazoak eragiten dituzte. Horrexegatik, ahal dela, ez da aldatuko tuneletako makurdura-maila.

Edozein luzerako tunelek sestra-makurdura bakarria izango dute, aurkakoa justifikatzen bada izan ezik.

4.4.4. *Ibilgailu astunak*

Tuneletako arrapalari makurduraren eta luzeraren konbinazioak, ohar har, errei osagarrien diseinua ez behartzeko modukoa izan beharko du.

Nolanahi ere, kontrakoa justifikaturik badago izan ezik, tune-laren altxaera ibilgailu astunak altxaera osoan gutxienez hirurogei kilometro orduko (60 km/h) abiadura joan ahal izateko modukoa izango da, 3.1-IC arauan adierazitakoaren arabera kalkulaturik.

4.5. *Zeharkako sekzioa*

4.5.1. *Tunel-zuloen kopurua*

Tunel berrietan, bi norabideko tunel-zulo batekin diseinatuko dira tunelak, norabide bakoitzean errei bat, noiz-eta errei bakoitzerako EBlak eginiko 15 urterako aurreikuspena eguneko 10.000 ibilgailutik gora (egunean eta errei bakoitzeko) gainditzen ez bada.

Balio horretatik gora, norabide bakarreko trafikoko bi tunel-zulo diseinatuko dira. Trafikoko gorengo mailaren banaketa asimetrikoa bada argi eta garbi eta ez badago ibilgailu motelentzako erreirik, 3 errei dituen tunel-zulo bat defini daiteke, horietako bat bihur-garria.

Hiriko tuneletan, horietako hargune bat 800 metrotik beherako distantziara badago foru sarearen eta udal sarearen arteko mugatik, baldintzei buruzko azterketa espezifikoa egin beharko da, norabide bakarrekoa edo bi norabidekoa izango den ala ez finkatu ahal izateko; halako kasuetan, bi norabideko tunelak edo sasi tunelak jartzeko posibilitatea onartuko da, aurreko lerroaldetan ezarritako intentsitate horako intentsitateetan ere bai. Kasu horietan, erdibitzaileen new jersey erako barrera bat jartzea aurreikusitako beharko da, eta gainera segurtasuneko azpiegiturari buruzko azterketa espezifikoa egin beharko da, erabiltzaileen ebakuazioa bermatzea ahalbidetuko duena hain zuzen.

4.5.2. *Erreiak*

4.5.2.1. *Errei-kopurua*

Aurreikuspeneko urtean proiektaturiko trafikoaren intentsitatearen eta osakeraren arabera finkatuko da zeharkako sekzioaren erreien kopurua, hain zuzen ere tunela zerbitzuan hasi eta hogei urte igaro ondoren (20).

4.5.2.2. *Erreien zabalera*

Erreiek, oro har, 3,50 m-ko zabalera izango dute. Salbuespe- neko kasuetan, 3,25 m-ra murriztea onartuko da hiriko tuneletan. Erdiko bide-marken zati proportzionala sar daiteke zabalera horretan, baina ez du izango bide-bazterreko ertzeko bideko marka.

Tunelean 3,50 m baino zabalera txikiagoko ibilgailu astunei zuzendutako errea badago, eta bertatik ibilgailu astunek ere zirkulatu badezakete, neurri gehigarriak edo indartuak, edo biak batera, hartuko dira, betiere segurtasuna areagotzeko helburuarekin.

4.5.3. *Sekzio aldaketak*

Behar bezalako justifikaziorik egon ezik, ezin izango da inolako konexiorik, loturarik edo biribilgunerik egin, ezta errei kopuruetan aldaketarik ere, ez tunelaren barruan, ez tunelaren sekzio bat baino berrehun eta berrogeita hamar metro lehenago edo ondoren (250 m).
La energía debe estar disponible en todo el viario y ser monitorizada por el sistema de control, asegurando su disponibilidad continua en todos los puntos en que sea necesaria y en el momento en que sea preciso. Para hacer seguro el suministro de energía, éste está diseñado con una fuente principal de energía, una fuente redundante y un sistema de conmutación que hace seguro el relevo de una fuente por otra, en caso de fallo en el suministro de la primera. Además, un Sistema de Alimentación Ininterrumpida (SAI) proporciona energía estabilizada en tensión y frecuencia y asegura el funcionamiento de los equipos de mayor responsabilidad en el momento de la conmutación, que puede llevar algunos minutos, y en caso de eventual fallo de las dos fuentes.

Se debe diseñar los sistemas de energía y de control para que este último monitorice las instalaciones de energía, asegurando de esa forma una información al operador en tiempo real de las causas de una eventual avería. Para ello se instalarán sensores para que al menos se dispongan de las siguientes señales:

- Automáticos generales en los cuadros Generales de Baja Tensión.
- Magnetotérmicos y diferenciales de cada cuadro.
- Estación de medida con conexión RS485:
 - Entradas de la red.
 - Grupo electrógeno/fuente redundante.
 - SAI.
- Alarmas del transformador:
 - Temperatura.
- Estados y alarmas del grupo electrógeno/fuente de alimentación:
 - Estado en marcha.
 - Alarma aceite.
 - Alarma gasóleo.
 - Alarma temperatura.

- EESren egoerak eta alarmak:
 - Berehalako geldialdiaren alarma.
 - Gainkargaren alarma.
 - Sareko funtzionamendua.
 - Bateriako funtzionamendua.
 - Eskuzko by passeko funtzionamendua.
 - Bateriaren karga neurtzea.
- Sarea, taldea, EES konmutatzeko alarma. EESk komunikazioa izango du RS485 delakoaren bidez.

6. MANTENIMENDUA

Argien instalazioetako mantentze-lan espezifikoak edozein direla ere, akats elektrikoak aztertu behar dira; izan ere, akatsak gertatzen dira, normalean, hodiak eta sare elektrikoak zaharrak direlako, kontaktu elektrikoak herdoilduta eta lasai daudelako, lurrerako sistemak eta dispositiboak akatsak dituztelako, lanen ondorioz hodiak hautsi direlako, lurra mugitu delako, etab.

Era horretako instalazioak behar bezala mantendu behar dira nahitaez, honako arrazoi hauek direla eta: era horretako instalazioak aire zabalean jartzen direlako, horietako zati batzuk eskuragarri egoiteak eragiten dituen arriskuengatik eta instalaziook bide-segurtasunaren eta pertsonen eta ondasunen segurtasunaren arloan betetzen duten eginkizun garrantzitsuegatik.

Hortaz, denboraren joan-etorriarekin instalazio elektrikoak hondatu ez daitezten, behar bezalako mantentze bikoitza egingo da; batetik, mantentze pribatiboa deritzona, denboraren programazioa eginda jarduketa sistematikoki jakin batzuk burutzean datzana, eta, bestetik, mantentze zuzentzailea, matxuratutako instalazioak konpontzeko edo kalteturiko instalazioak funtzionamendu-egoera egokira itzultzeko beharrezko eragiketak biltzen dituen. Baldin eta mantentze prebentiboa behar bezala eta erregularitasunez egiten bada, mantentze zuzentzaileari dagozkion eragiketak ez dira hain garrantzitsuak izango eta ez dira hain maiz egingo.

Honako jarduera hauek barne hartuko dituzte mantentze prebentiboko lanek:

- Armairuak egiaztatzea, artatzea eta garbitzea.
- Tokiko edota urrutiko funtzionamendua egiaztatzea.
- Automatismoa egiaztatzea.
- Kanalizazio elektrikoak egiaztatzea eta artatzea.
- Goi-tentsioko eta behe-tentsioko lineen isolamendu elektrikoak neurtzea.
- Behe-tentsioko instalazioetan elektrizitatea banatzeko zentroen eta transformazio-zentroen lurreko sareak neurtzea (urtero).
- Pasoko tentsioak, kontaktukoak eta transferiturikoak neurtzea, instalazioa abiarazi baino lehen eta gutxienez hiru urterik behin egin beharrekoa.

Mantentze zuzentzaileko eragiketetan, trafiko istripuaren, ekintza bandalikoaren eta abarren ondorioz akatsak dituen edozein material aldatuko da eta instalazio elektrikoak osatzen dituzten elementuen akats elektrikoek edo mekanikoek eragindako matxurak konpontzeko dira gehienez 24 orduko epearen barruan.

6.1. Mantentze prebentiboaren programazioa

Ondorengo programazioa barne hartuko du mantentze prebentiboak, bertan agertzen diren eragiketen aldizkakotasunarekin:

1. Goi-tentsioko sistema:
 - GTAn adierazitakoaren arabera gutxienezko berrikuspenak.
 - Neutroaren, burdineriaren eta BTaren urteroko lurren neurketa.
2. Behe-tentsioko sistema:
 - BTAn adierazitakoaren arabera gutxienezko berrikuspenak.

- Estados y alarmas del SAI:
 - Alarma parada inminente.
 - Alarma sobrecarga.
 - Funcionamiento en red.
 - Funcionamiento en batería.
 - Funcionamiento en by pass manual.
 - Medida de la carga de las baterías.
- Alarma de conmutación red, grupo, SAI. El SAI dispondrá de comunicación vía RS485.

6. MANTENIMIENTO

Independientemente de las labores de mantenimiento específicas de la instalación de alumbrado se deben contemplar los fallos eléctricos cuyas causas más frecuentes hay que encontrarlas en el envejecimiento de los conductores y redes eléctricas, en la oxidación y aflojamiento de los contactos eléctricos, defectos en los dispositivos y sistemas de puesta a tierra, a las roturas de conductores debidas a trabajos, deslizamientos de terreno, etc.

La peculiar implantación de este tipo de instalaciones a la intemperie, el riesgo que implica que parte de sus elementos sean fácilmente accesibles, así como la función importante que dichas instalaciones desempeñan en materia de seguridad vial, así como de las personas y los bienes, obligan a establecer un correcto mantenimiento de las mismas.

Por tanto, al objeto de evitar la degradación de las instalaciones eléctricas en el transcurso del tiempo, se realizará un adecuado doble mantenimiento, el denominado preventivo que establecerá una programación en el tiempo consistente en efectuar sobre las instalaciones un cierto número de intervenciones sistemáticas, y el mantenimiento correctivo, que comprenderá una serie de operaciones necesarias para reponer las instalaciones averiadas o que han sufrido deterioro a un correcto estado de funcionamiento. Cuando se lleve a cabo correctamente y de forma regular el mantenimiento preventivo, las operaciones de mantenimiento correctivo serán menos importantes y frecuentes.

Los trabajos de mantenimiento preventivo comprenderán los siguientes:

- Verificación, conservación y limpieza de armarios.
- Verificación de funcionamiento local/remoto.
- Verificación y comprobación de automatismos.
- Verificación y conservación de las canalizaciones eléctricas.
- Medida de aislamiento eléctrico de líneas de Alta y Baja Tensión.
- Medida de redes de tierras en centros de transformación y centros de reparto a instalaciones de Baja Tensión (todos los años).
- Medida de tensiones de paso, contacto y transferidas, a realizar antes de la puesta en marcha y al menos cada tres años.

Las operaciones de mantenimiento correctivo consistirán en reemplazar cualquier material defectuoso como consecuencia de un accidente de tráfico, actos de vandalismo, etc. y en reparar las averías ocasionadas por fallos eléctricos o mecánicos de los elementos que componen las instalaciones eléctricas, en un plazo no superior a las 24 horas.

6.1. Programación del mantenimiento preventivo

El mantenimiento preventivo comprenderá la siguiente programación con la periodicidad en las operaciones que se indican:

1. Sistema de Alta Tensión:
 - Revisiones mínimas según se indica en el RAT.
 - Medición de tierras de neutro, herrajes y BT anual.
2. Sistema de Baja Tensión:
 - Revisiones mínimas según se indica en el RBT.

3. Behe-tentsioko koadro orokorrak eta bigarren mailakoak, Aginte eta Neurketa Zentroak:

- Armairua urtean behin berrikustea.
 - Babesak urtean behin egiaztatzea (etengailuak eta fusibleak).
 - Instalazioa lurtean ezartzeko sistema egiaztatzea urtean behin.
 - Instalazioa pizteko eta itzaltzeko dispositiboa kontrolatzea 6 hilean behin.
- ### 4. Instalazio elektrikoa:
- Elikatze-tentsioa erregistratzea 6 hilean behin, 24 orduz.
 - Potentzia-faktorea erregistratzea 6 hilean behin, 24 orduz.
 - Lurreko harguneak urtean behin berrikustea.
 - Linearen lurrarekiko linearen jarraikortasuna egiaztatzea, urtean behin.
 - Lurreko konexioaren sistema orokorra kontrolatzea, urtean behin.
 - Potentzia eta kontroleko konexioak egiaztatzea.
 - Hodien isolamendua egiaztatzea, urtean behin.
 - Sei hilean behin garbitzea.

Mantentze prebentiboaren programazioan ezarritako ekintzei kalterik egin gabe, horniduraren tentsioak, intentsitateak, potentzia-faktorea, etab. neurtuko dira aldian-aldian; urtean behin, gutxienez.

Prebentziorako mantentze-lanak planifikatzeko, kontuan hartu behar dira energia-eraginkortasunari buruzko 1890/2008 EDaren 12. artikuluko betekizunak, eta mantentze-lan horiek dekretu horretan aurreikusitako argiztapen-neurketekin batera planifikatuko dira, zeregin horiek antzeko baldintzetan gauzatzeko eta neurketak urte desberdinetan egindakoekin alderatu ahal izateko.

Energia Eraginkortasunaren Araudian adierazten den bezala, mantentze-lanak eta horien emaitzak erregistratu egin behar dira, arazoan trazagarritasuna izateko, baita mantentze-lanen jarraipena izateko edo/eta behin baino gehiagotan agertzen diren matxura posibleak identifikatzeko ere.

6.1.1. *Mantentze-lan zuzentzailea*

Instalazio elektrikoetako matxurak antzemateko eta konpontzeko beharrezko eragiketak barne hartzen ditu, eta haren helburuak matxurak arin antzematea eta kostu txikiko jarduketak burutzeko izango dira, betiere era horretako instalazioen segurtasuna hobetuko duen konponketaren kalitate ona izanik; gainera, kudeaketa zentralizatuko sistemak jar daitezke. Honako hauek sartzen dira, era berean, konponketa lanetan: matxuraturiko elementuak aldatzea edo konpontzea, matxuraren eragileak desagerrarazi direla egiaztatzea eta matxurarik berriz ez gertatzeko ahaleginak egitea.

6.2. *Energia-eraginkortasunari buruzko irizpideak*

Energia-eraginkortasunaren irizpideek argiztapen publikoko instalazioen energia-eraginkortasunari buruzko 1890/2008 EDan adierazitakoa bete behar dute, eta, oro har, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Ibilgailuentzako abiadura handiko bideetarako ezarritakoak izango dira argiztapen-mailak, proiektuko egoerari dagozkionak, eta ahal dela ez dira aipaturiko maila horiek gaindituko.
- Argi-eraginkortasun handiena ematen duten lanpara-motak erabili behar dira kolore-errendimenduaren, batzaz beste iraupenaren, eta abarren mugen barruan.
- Lanparek emandako argi-fluxua behar bezala aprobetxatzea ahalbidetuko dute argiztapen publikoko instalazioen diseinuak eta luminarien errendimenduak; horretarako, proiektuko kalkuluak eta abiarazi baino lehen egin beharreko

3. Cuadros de Baja tensión general y secundarios, Centros de Mando y Medida:

- Revisión del armario 1 vez al año.
 - Verificación de protecciones (interruptores y fusibles) 1 vez al año.
 - Comprobación de la puesta a tierra 1 vez al año.
 - Control dispositivo encendido /apagado instalación una vez cada 6 meses.
- ### 4. Instalación Eléctrica:
- Registro de tensión de alimentación una vez cada 6 meses, durante 24 horas.
 - Registro del factor de potencia una vez cada 6 meses, durante 24 horas.
 - Revisión de las tomas de tierra 1 vez al año.
 - Verificación de la continuidad de la línea de enlace con tierra 1 vez al año.
 - Control del sistema global de puesta a tierra de la instalación 1 vez al año.
 - Verificaciones de las conexiones de potencia y control.
 - Comprobación del aislamiento de los conductores 1 vez al año.
 - Limpieza cada seis meses.

Sin perjuicio de las acciones establecidas en la programación del mantenimiento preventivo, periódicamente, y como mínimo anualmente, se medirán las tensiones de suministro, intensidades, factor de potencia, etc. dejando registro histórico de las mismas.

Se deberá tener en cuenta para planificar el mantenimiento preventivo las exigencias de RD 1890/2008, artículo 12, sobre eficiencia energética y planificar este mantenimiento en conjunto con las mediciones de iluminación previstas por este decreto, para realizarlas en similares condiciones y poder contrastar las medidas con las realizadas en diferentes años.

Tal y como indica el Reglamento de Eficiencia Energética se deberá dejar registro de los trabajos de mantenimiento y sus resultados a fin de tener una trazabilidad de los problemas, seguimiento del mantenimiento y/o identificar posibles averías recurrentes.

6.1.1. *Mantenimiento correctivo*

Comprenderá las operaciones necesarias para la detección y reparación de las averías en las instalaciones eléctricas, y sus objetivos serán la rapidez en la detección y actuación a un coste bajo, con una buena calidad en la reparación que mejore la seguridad de este tipo de instalaciones, pudiendo implantarse sistemas de gestión centralizada. La reparación incluirá además de la sustitución o arreglo de los elementos averiados, la comprobación de la eliminación de las causas de la avería, evitando su repetición.

6.2. *Criterios de eficiencia energética*

Los criterios de eficiencia energética se han de ajustar a lo indicado en el RD 1890/2008 sobre eficiencia energética en instalaciones de alumbrado público y como carácter general los siguientes:

- Los niveles de iluminación serán los establecidos para las vías de tráfico rodado de alta velocidad correspondientes a situaciones de proyecto y se evitará superar los mismos.
- Deberán utilizarse, dentro de los límites de rendimiento de color, vida media, etc., los tipos de lámparas de mayor eficacia luminosa.
- El diseño de la instalación de alumbrado público y el rendimiento de las luminarias permitirán el óptimo aprovechamiento del flujo luminoso emitido por las lámparas, para ello se tomará base los cálculos de proyecto y los dossier

neurketeki buruzko dossierrak hartuko dira oinarritzat, eta gutxienez urtean behin egin beharreko neurketak gehituko zaizkio dossierrari. Urteko neurketa horiek instalazioak dituen beharrak utziko ditu agerian beiren garbiketari, itxierari, eta abarri dagokienez.

- Argien maila erregulatzeko sistemak aurreikusiko dira, kontsumo-ekonomiarako komenigarriak izan daitezkeenak.
- Ahal denean, halako moldez eraikiko dira galtzadetako zoladurak non luminantzia-koefiziente altua edo Qo argitasun-gradu ertaina ahalbidetuko baitute, baita S1 espekulazio-faktore baxua ere. Hortaz, energia-ehuneko jakin bat aurreztuko da.
- Instalazioari berari dagozkion galerak mugatuko dira, bereziki horniduraren tentsio handiegia dela-eta elikatze lineetan eta kontsumoetan Joule efektuak eragindakoak.
- Instalazioko osagarrien kalitateak eta egokitzapenak ez du disfuncziorik eragin behar, kontsumoa igoaraz dezaketen disfunczioak hain zuzen ere.
- Hilero zainduko da faktura elektrikoa, pizteko eta itzaltzeko sistemen eraginkortasuna kontrolatuz egun eguzkitsuen, egun lainotuen, egunsentiaren edo iluntzearen eta gidatuko argiteria modernoko fluxuaren erregulazioaren arabera.
- Lineen banaketa eta maniobrako dispositiboak lagungarriak izango dira aldi batez argirik behar ez den aldeetan ez jarzteko.
- Itzaltze eta pizte sistemek ez dute instalazioen funtzionamendu-denbora beharrezkoa izan gabe luzatu behar.
- Energiaren potentzia kontrolatzeko eta neurtzeko dispositiboak instalazioaren ezaugarrietarako eta aurreikusitako kontratazio-motarako egokienak direnak izango dira betiere.
- Ahal dela ez da energia erreaktiboa kontsumituko.
- Instalazio bakoitzerako kontratazio tarifarik egokiena aukeratu behar da eta hilero kontrolatu behar da faktura elektrikoa egokia den ala ez.

Aipatutakoaz gain, energia-eraginkortasunari buruzko 1890/2008 EDaren 12. artikuluan adierazitakoa bete beharko da.

Hasiera-hasieratik, instalazioen artapena eta mantentzea hartuko dira aintzat eta programatuko dira.

de mediciones a realizar antes de la puesta en marcha, que se compararán con mediciones a realizar cuando menos una vez al año. Estas mediciones anuales marcarán las necesidades de la instalación en cuanto a limpieza de vidrios, cierre, etc.

- Se preverán los sistemas de regulación del nivel de iluminación que puedan ser convenientes a la economía de consumo.
- Cuando sea posible, sería recomendable la construcción de los pavimentos de las calzadas que permitan un elevado coeficiente de luminancia medio o grado de luminosidad Qo y un factor especular S1 bajo y, por tanto, un porcentaje de ahorro energético.
- Se limitarán las pérdidas propias de la instalación, especialmente las debidas al efecto Joule en líneas de alimentación y los consumos por sobretensión de suministro.
- La calidad y adecuación de los componentes de la instalación evitarán disfuncionalidades que puedan repercutir en incrementos de consumo.
- Se vigilará mes a mes la factura eléctrica controlando la eficaz actuación de los sistemas de encendidos y apagados en función de días soleados, nublados, crepúsculo o nocturno y la regulación del flujo en alumbrado moderno de guiado.
- La distribución espacial de líneas y dispositivos de maniobra facilitarán la exclusión de zonas donde el alumbrado no sea necesario temporalmente.
- Los sistemas de encendido y apagado deberán evitar la prolongación innecesaria de los periodos de funcionamiento de las instalaciones.
- Los dispositivos de control de potencia y medición de energía serán los adecuados a las características de la instalación y a la modalidad de contratación prevista.
- Se evitará el consumo de energía reactiva.
- Deberá seleccionarse la tarifa de contratación más adecuada a cada instalación y controlar mes a mes la idoneidad de la factura eléctrica

Además de lo indicado anteriormente se deberá cumplir con el RD 1890/2008 Reglamento de Eficiencia Energética en el artículo 12.

Desde el instante inicial, se considerarán y programarán la conservación y mantenimiento de las instalaciones.

I. ERANSKINA

Kontrola eta zirkuitu elektrikoak	Kable mota			Elikadura		
	SZ1-K	RZ1-K	RVK / Buprenoa	Normala	Taldea	EES
Indarreko Kableak eta Argiztapena						
<i>Elektrizitatea</i>						
Hargunea Babes Kutxa kutxarako Hargunera BTan (barrualdeko inst. kasuan).....	x					
Hargunea Babes Kutxa kutxarako Hargunera BTan (kanpoaldeko inst. kasuan).....			x			
Trafo Hargunea TBKO koadroa (hornidura GTan).....	x					
Hargunea Multzoa TBKO koadroa.....	x					
EES Hargunea (Sarrera Irteera).....	x					
Larrialdietarako zerbitzuak edo/eta oinarritzekoak dituzten azpi-koadroetarako harguneeak.....	x					
Larrialdietarako zerbitzuak edo/eta oinarritzekoak ez dituzten azpi-koadroetarako harguneeak.....		x				
<i>Argiztapena</i>						
Harguneeak eta argiztapen linea lagungarriak (hodeiak, eguzkia).....		x		x		
Harguneeak eta etengabeko argiztapen lineak.....		x		x		
Harguneeak eta larrialdietarako argiztapen lineak.....	x					x
Harguneeak eta ebakuazioko argiztapen lineak (autonomoak).....	x					x
Ebakuazio-seinaleztapeneko elementuen lineetarako harguneeak (ariadna haria, paper fotolumineszenteak, adierazleak, ebakuazio-ahoetako argiztapen lagungarria...)	x					x
Kanpoko argiztapenerako harguneeak (tunelaren barruan badoaz).....		x				
Kanpoko argiztapenerako harguneeak (tunelaren kanpoan badoaz).....			x			
Kanpoko argiztapenerako harguneeak (kanalizazio lurperatua).....			x			
Argiztapena aho bakoitzean.....			x	x	x	
<i>Aireztapena</i>						
Keen kontroleko haizagailuetarako harguneeak.....	x				x	
Galerien presurizazioarako haizagailuetarako harguneeak.....	x					x
Motorretarako harguneeak edo/eta tranpolen, sareten... eragingarrietakoak.....	x					x
Detektoreen elikadura (opazimetroak, anemometroak...).....	x					x

Kontrola eta zirkuitu elektrikoak	Kable mota			Elikadura		
	SZ1-K	RZ1-K	RVK / Buprenoa	Normala	Taldea	EES
PCI						
Sute-zentraletarako eta azpi-zentral banatuetarako harguneak	x					x
Ponpa eta presio-multzoetarako harguneak	x				x	
Tuneleko balbula-mozketa maniobrarako elementuetarako harguneak	x					x
ITS						
Megafonia zentralerako hargunea.....	x					x
CCTV zentralerako hargunea	x					x
GAD zentralerako hargunea	x					x
SOS zutoinetarako bigarren mailako koadroetarako harguneak.....	x					x
CCTV kameretarako bigarren mailako koadroetarako harguneak	x					x
Barrerak		x				x
Ahoko semaforoak		x				x
Kanpoko informazio-panelak.....					x	
Barruko informazio-panelak		x			x	
Kontrolako kableak eta komunikazioak						
Elektrizitatea						
.....						
Argiztapena						
.....						
Aireztapena						
Haizagailuetarako zunden kontrolerako kableak.....	x					
Instrumentazio seinalearen kableak	x					
PCI						
Detektoreen lineak		x				
Komunikazio-lotura zentralak	x					
ITS						
SOS zutoinen komunikazio-kableak	x					
CCTV Bideo kableak.....	x					
Megafonia bozgorailuak kableak.....	x					
Komunikazioak (Busak kobrezkoak eta F.O.)						
Guztiak.....	x					

ANEXO I

Circuitos eléctricos y de control	Tipo cable			Alimentación		
	SZ1-K	RZ1-K	RVK / Bupreno	Normal	Grupo	SAI
Cableados de fuerza e iluminación						
Electricidad						
Acometida Caja Protección a cuadro Acometida en BT (en caso de inst. interior).....	x					
Acometida Caja Protección a cuadro Acometida en BT (en caso de inst. exterior).....			x			
Acometida Trafo cuadro CGBT (suministro en AT)	x					
Acometida Grupo cuadro CGBT	x					
Acometida SAI (Entrada Salida)	x					
Acometidas a subcuadros que tengan servicios de emergencia y/o esenciales.....	x					
Acometidas a subcuadros sin servicios de emergencia y/o esenciales		x				
Alumbrado						
Acometidas y líneas alumbrado refuerzo (nublado, soleado)		x		x		
Acometidas y líneas alumbrado permanente.....		x		x		
Acometidas y líneas alumbrado emergencia	x					x
Acometidas y líneas alumbrado evacuación (Autónomas)	x					x
Acometidas a líneas de elementos de señalización evacuación (Hilo ariadna, paneles fotoluminiscentes, ... indicadores , refuerzos alumbrado bocas evacuación...)	x					x
Acometidas a alumbrado exterior (en caso de recorrido por el interior del túnel)		x				
Acometidas a alumbrado exterior (en caso de recorrido exterior del túnel).....			x			
Líneas de alumbrado exterior (canalización enterrada).....			x			
Alumbrado en cada una de las bocas.....			x	x	x	
Ventilación						
Acometidas a ventiladores control de humos	x				x	
Acometidas a ventiladores presurización de galerías.....	x					x
Acometidas a motores de y/o actuadores de trampillas, rejillas etc.	x					x
Alimentación a detectores (opacímetros, anemómetros ...)	x					x
PCI						
Acometida a central de incendios y subcentrales distribuidas.....	x					x
Acometidas a bombas y grupos de presión.....	x				x	
Acometidas a elementos de maniobra de seccionamiento de valvulería en túnel.....	x					x
ITS						
Acometida a central Megafonía	x					x
Acometida a central CCTV	x					x
Acometida a central DAI	x					x
Acometidas de cuadros secundarios a postes SOS.....	x					x
Acometidas de cuadros secundarios cámaras CCTV	x					x
Barreras		x				x
Semáforos boca.....		x				x
Paneles informativos exteriores					x	
Paneles informativos interiores.....		x			x	

Circuitos eléctricos y de control)	Tipo cable			Alimentación		
	SZ1-K	RZ1-K	RVK / Bupreno	Normal	Grupo	SAI
Cableados control y comunicaciones						
<i>Electricidad</i>						
.....						
<i>Alumbrado</i>						
.....						
<i>Ventilación</i>						
Cables control de sondas a ventiladores						
Cables señal instrumentación						
<i>PCI</i>						
Líneas de detectores						
Lazos de comunicación centrales						
<i>ITS</i>						
Cables comunicación postes SOS						
Cables Video CCTV						
Cables altavoces Megafonía						
Comunicaciones (Buses en cobre y F.O.)						
Todos						

III. ERANSKINA ARGIZTAPENA

1. XEDEA

Jarraibide Tekniko honen xedea Bizkaiko Foru Aldundiaren eremu geografikokoak diren tunelen ustiapenean, zerbitzuan jartzean, eraikuntzan, proiektuan eta plangintzan energia elektrikoaren horniduraren instalazioek bete behar dituzten xedapen eta zehaztapen teknikoak definitzea da.

Dokumentu honen helburua da Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritako helburu hauek erdiestea:

- Tunelen plangintza-egileari, proiektu-egileari, eraikitzaileari edo ustiatzaileari lagungarri izango zaien gida bat eskuragarri jarri nahi da, nork bere etapan diseinuaren, eraikuntzaren, zerbitzuan jartzearen eta ustiapenaren gaineko jarraibide teknikoak izan dezan segurtasunaren eskakizunei buruz; hala, horien jarraibidearen edukia landu ahal izango dute.
- Herri administrazioaren eskakizunak teknikoki zehaztea; hala, eskatzekoa den legezko eremu gisa balioko du.
- Zerbitzu-maila altuari eustea errepideetako tunelen ustiapenean, tunelen barruko aldeetan pertsonen segurtasuna eta ongizatea hobetzeko, baita tunelen kudeaketa ekonomikoa hobea izan dadin lagungarria izateko ere.

2. IRISMENA

Jarraibide tekniko hau zerbitzuan dauden tunelei eta, oraindik ustiatu ez arren, zerbitzuan jartzeko fasean, eraikitzeko fasean, proiektu fasean edo planeamenduko fasean dauden Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide-sareko tunelei aplikatuko zaie, Bizkaiko Errepideei buruzko martxoaren 24ko 2/2011 Foru Arauan ezarritakoaren arabera, eta kontuan hartuta errepideetako tunelen segurtasunari buruzko abuztuaren 23ko 135/2006 Foru Dekretuko 2. artikuluan ezarritako tunel definizioa.

Jarraibide teknikoak nahitaez bete beharreko segurtasun-baldintzak zehaztu ditu.

Praktikan betearazi ezin diren soluzio teknikoak erabili behar badira (jarraibidean adierazitako baldintza batzuk betetzeko) edo horien kostua neurriz kanpokoa izanez gero, Administrazio Agintaritzak arriskua murrizteko beste neurri batzuk aplikatzeko baimena eman dezake, baldin eta arriskua murrizteko neurriok segurtasun maila berbera edo handiagoa sortzen badute. Tunelaren kudeatzaileak, neurri horiek proposatzen dituenak, neurrien eraginkortasuna justifikatu beharko du, arriskuaren azterketa eginez.

Txosten hau Ikuskapen Erakundeak ikuskatuko du; Segurtasun Irizpena bidaliko dio Administrazio Agintaritzari, eta aldeko balo-

ANEXO III ALUMBRADO

1. OBJETO

La presente Instrucción Técnica tiene por objeto definir las disposiciones y especificaciones de carácter técnico que deben satisfacer las instalaciones de alumbrado y suministro de energía eléctrica en los túneles en explotación, puesta en servicio, construcción, proyecto, y planeamiento perteneciente al ámbito geográfico de la Diputación Foral de Bizkaia.

Este documento persigue los siguientes objetivos establecidos por la Diputación Foral de Bizkaia, a saber:

- Disponer de una guía que sirva de ayuda al planificador, proyectista, constructor o explotador de túneles en carretera para que, cada uno en las etapas de su incumbencia, tenga una instrucción técnica clara de diseño, construcción, puesta en servicio y explotación sobre los requerimientos de seguridad que le permita desarrollar sus cometidos.
- Concretar técnicamente las exigencias de la Administración Pública, de forma que sirvan de marco legal exigible.
- Mantener un elevado nivel de servicio en la explotación de túneles viarios, incrementando la seguridad y bienestar de las personas en su interior, así como contribuir a la mejor gestión económica de los túneles.

2. ALCANCE

La presente Instrucción técnica se aplicará a los túneles en servicio y a los túneles que aún no estando en explotación, se encuentran en fase de puesta en servicio, en fase de construcción, en fase de proyecto o en fase de planeamiento, de la red de carreteras del Territorio Histórico de Bizkaia según Norma Foral 2/2011, del 24 de marzo de Carreteras de Bizkaia y según la definición de túnel establecida en el artículo 2 del Decreto Foral 135/2006, de 23 de agosto, sobre seguridad de túneles en carreteras.

La Instrucción técnica define los requisitos de seguridad que serán de obligado cumplimiento.

En el caso de que determinados requisitos indicados en la instrucción solo puedan satisfacerse recurriendo a soluciones técnicas de imposible ejecución en la práctica o que tengan un coste desproporcionado, la Autoridad Administrativa podrá autorizar que se apliquen otras medidas de reducción del riesgo, siempre y cuando estas medidas de reducción del riesgo den lugar a un nivel equivalente o mayor de seguridad. El Gestor del Túnel, proponente de estas medidas, deberá justificar la eficacia de las mismas mediante un Análisis de riesgo.

Este informe será auditado por el Organismo de Inspección, quien remitirá a la Autoridad Administrativa un Dictamen de Segu-

razioa ezinbestekoa izango da Administrazio Agintaritzaren baimena lortzeko.

Tunelaren kudeatzaileak, zuzenean edo kontratistaren edo ustiatzen duen enpresaren bidez (kudeatzaile ordezkariak), errepide-etako tunelen segurtasunari buruzko abuztuaren 23ko 135/2006 Foru Dekretuko 5. artikulua betetzen dela bermatzeko beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko ditu, eta bereziki, ikuskapen-organismoaren ikuskapenetan, probetan, entseguetan, ikuskapen-, gainbegiratzeko eta ebaluazio-zereginetan, jardute-protokoloen simulakro edo simulazioetan, bai eta lanetan segurtasunerako baldintzak bermatzeko ere (adibidez: erreiak ixtea, seinaleak jartzea).

3. KODEAK, ARAUAK ETA ARAUDIAK

Jarraian, dokumentu honetan aplikatu beharreko arauak eta araudiak aipatzen dira:

- Zentral elektrikoak, azpiestazioen eta transformazio zentroyen baldintza teknikoak eta segurtasun bermeei buruzko araudia. (Industria eta Energia Ministerioa).
- Behe-tentsiorako Araudi Elektroteknikoa. Jarraibide tekniko osagarriak. (Zientzia eta Teknologia Ministerioa). Abuztuaren 2ko 842/2002 Dekretua, 2002ko irailaren 18ko 224 zk.ko «BOEren» gehigarria.
- Errepideak eta tunelak argiztatzeko gomendioak (Sustapen Ministerioa – 1999).
- Guide for the lighting of road tunnels and underpasses. (Argitalpena CIE 88 – 2004).
- Road lighting – Part 1: Selection of lighting classes. (DRAFT prEN 13201-1 – 1998).
- Road lighting – Part 2: Performance requirements. (DRAFT prEN 13201-2 – 2003).
- Road lighting – Part 3: Calculation of performance. (DRAFT prEN 13201-3 – 2003 + EN 13201-3/AC:2005).
- Road lighting – Part 4: Methods of measuring the light performance of installations. (DRAFT prEN 13201-4 – 2003).
- DIN 67524 standard alemana (1972ko edizioa).
- CIEren argitalpena, 33/AB-1977. Herri Argiterien instalazioen balio galera eta mantentzea.
- CIEren argitalpena, 34-1977. Argiteriaren instalazioetarako luminariak. Datu fotometrikoak, sailkapena eta jokabidea.
- CIEren argitalpena, 61-1984. Tunelen sarreratako argiztapena.
- CIEren argitalpena, 88-2004. Errepideko tunelak eta lur azpiko pasabideak argiztatzeko gida.
- UNE arauak.
- Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko apirilaren 29an emandako 2004/54/CE Zuzentaraua, errepideen Europaz gairako sarearen tuneletarako segurtasunari buruzko gutxieneko eskakizunen gainekoa. 500 m-tik gorako tunelei aplikatu beharrekoa.
- Maiatzaren 26ko 635/2006 Errege Dekretua, Estatuko errepideetako tunelen segurtasunerako gutxieneko baldintzei buruzkoa.
- 635/2006 Errege Dekretuan jasotako okerren zuzenketa.
- Abuztuaren 23ko 135/2006 Foru Dekretua, errepideetako tunelen segurtasunari buruzkoa.
- Azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretua, kanpoko argiztapenaren instalazioen energia eraginkortasunari buruzko Araudiaren ingurukoa, eta horren jarraibide tekniko osagarriak, EA01, 02, 03, 04, 05, 06 eta 07.
- CIEren 115-2010 argitalpena. Errepideetako argiztapena, trafikorako eta oinezkoentzat.
- CIEren 189:2010 argitalpena. Tuneletako argiztapenaren kalitate-irizpidearen kalkulua.
- CIEren 144-2001 argitalpena. Errepideko marken eta errepidearen azaleraren isla-ezaugarriak.

riedad, cuya valoración favorable será necesaria para obtener la autorización de la Autoridad Administrativa.

El gestor del Túnel, directamente o a través del contratista o empresa explotadora (gestores delegados), deberá poner los recursos materiales y humanos necesarios para garantizar el cumplimiento del DFST (DF 135/2006, de 23 de agosto, artículo 5), y particularmente en la ejecución de las inspecciones del Organismo de Inspección, pruebas, ensayos, tareas de inspección, supervisión y evaluación así como la realización de simulacros o simulaciones de protocolos de actuación, y para garantizar las condiciones de seguridad en los trabajos (ej. Cortes de carril, señalización).

3. CÓDIGOS, NORMAS Y REGLAMENTOS

A continuación se citan Normas y Reglamentos de referencia aplicables en este documento:

- Reglamento sobre Condiciones Técnicas y Garantías de Seguridad en Centrales Eléctricas, Subestaciones y Centros de Transformación. (Ministerio de Industria y Energía).
- Reglamento electrotécnico para Baja Tensión. Instrucciones Técnicas complementarias. (Ministerio de Ciencia y Tecnología). Decreto 842/2002 de 2 de agosto, «B.O.E.» suplemento del número 224 de 18 de septiembre de 2002.
- Recomendaciones para la iluminación de carreteras y túneles (Ministerio de Fomento - 1999).
- Guide for the lighting of road tunnels and underpasses. (Publicación CIE 88 - 2004).
- Road lighting - Part 1: Selection of lighting classes. (DRAFT prEN 13201-1 - 1998).
- Road lighting - Part 2: Performance requirements. (DRAFT prEN 13201-2 - 2003).
- Road lighting - Part 3: Calculation of performance. (DRAFT prEN 13201-3 - 2003 + EN 13201-3/AC:2005).
- Road lighting - Part 4: Methods of measuring the light performance of installations. (DRAFT prEN 13201-4 - 2003).
- Standard Alemán DIN 67524 (edición 1972).
- Publicación CIE número 33/AB-1977. Depreciación y mantenimiento de Instalaciones de Alumbrado Público.
- Publicación CIE número 34-1977. Luminarias para instalaciones de Alumbrado. Datos fotométricos, clasificación y comportamiento.
- Publicación CIE número 61-1984. Iluminación en la entrada a túneles.
- Publicación CIE número 88-2004. Guía para la iluminación de túneles de carretera y pasos subterráneos.
- Normas UNE.
- Directiva 2004/54/CE del parlamento Europeo y del consejo, de 29 de abril de 2004, sobre requisitos mínimos de seguridad para túneles de la red transeuropea de carreteras. Aplicable a túneles de más de 500 m.
- Real Decreto 635/2006, de 26 de mayo, sobre requisitos mínimos de seguridad en los túneles de carreteras del Estado.
- Corrección de errores del Real Decreto 635/2006.
- Decreto Foral 135/2006, de 23 de agosto, sobre seguridad de túneles en carreteras.
- Real Decreto 1890/2008, de 14 de noviembre, sobre el Reglamento de eficiencia energética en instalaciones de alumbrado exterior y sus Instrucciones técnicas complementarias EA01,02,03,04,05,06 y 07.
- Publicación CIE número 115-2010. Alumbrado de carreteras para tráfico de vehículos y peatones.
- Publicación CIE número 189:2010. Cálculo del criterio de calidad del alumbrado de túneles.
- Publicación CIE número 144-2001. Características de reflexión de las marcas de la carretera y de la superficie de la carretera.

4. TUNELETAKO ARGIAK

4.1. Argiztapen-motak

Hiru argiztapen-mota daude: arrunta, larrialdietakoa eta ebakuaziorakoa.

- Argiztapen arrunta eskainiko da gidariek egunez nahiz gaez tunelaren sarreran ikusmen egokia izan dezaten, bai eta iragabideetan eta alderdi zentrolean ere.
- Larrialdietako argiztapena eskainiko da tuneleko erabiltzaileek energia elektrikoaren hornidura matxuraturaz gero beren ibilgailuetan kanporatu ahal izateko gutxienezko argia izan dezaten.
- Ebakuazioetarako argiztapena 1,5 metrotik behera egongo da kokaturik, eta suteran bat egonez gero tunelaren erabiltzaileak oinez tunela ebakutzeko gidatzeko moduan proiektatuko da.

I. motako tuneletan hiru motetako argiztapena egongo da.

II. eta III. motako tuneletan hiru argiztapen-motak ezarriko dira, eta gainerakoan argiztapena ezartzeko beharrezana aztertuko da, jarraibide honetan ezarritakoa kontuan izanda.

4.2. Sarrera

Tunelera hurbildu, tunelean sartu eta bertatik irteteko beharra da tunelean argiztapen sistema bat jartzeko arrazoi nagusia, betiere eguneko eta gaueko baldintza onetan eta abiadura jakin batean; hala ere, segurtasun eta erosotasun maila aire zabaleko errepidekoari dagokiona bezain handia izango da.

Egun argiz tunelean ibilgailua gidatzeak dakartzan arazoak eta gaez aire zabalean gidatzeak planteatzen dituenak erabat ezberdinak dira; izan ere, gizakiaren begiak tunelaren barruan dauden luminantzia-maila baxuen eta kanpoan dauden luminantzia-maila altuen arteko diferentzietara egokitu beharra du. Horren guztiaren ondorioz, «zulo beltzaren efektua» deritzona eragiten du diferentzia horrek, eta efektu horrek galarazi egiten die gidariei tunelaren barruko aldea ikustea egunez tunelaren ahotik distantzia jakin batera daudenean.

Luminantziari dagokionez, berriz, hiru alde bereizten dira tuneletan: sarrerakoa, atalaseko aldeak eta trantsizioko aldekoak, barrualdekoak eta, azkenik, irteerako aldea. Arrazoi ekonomikoak tartean direla, ezinezkoa da tuneleko sarreretan kanpoko aldean egunez dagoen antzeko egoera ezartzea (sarrerakoa); izan ere, 100.000 luxerainoko balioak izan daitezke bertan.

Tuneleko sarreraren ondoan dagoen atalaseko aldean, gutxi gorabehera segurtasun distantziaren luzera berdina izanik, halako moldez diseinatuko da argiztapena non galtzadako balizko oztopoak nahikoa ondo ikusteko modua ziurtatuko baita, nahiz eta hasieran kanpoko aldean (sarreran) dauden argiztapen-mailak bat-batean murriztu; maila hori, dena dela, onargarria da. Atalaseko bigarren zatian murriztu egiten dira argiztapen-mailak pixkanaka.

Hurrengo aldearen edo trantsizioko aldearen luzera aldatu egiten da zirkulazio abiaduraren arabera, eta bertan jarri beharreko argiteria honako egokitzapen-efektu hau arintzeko modukoa izango da: oso argiztapen-maila altutik, bat-batean, nahikoa maila baxuagora igarotzea, baina argiztapen-mailak pixkanaka txikituz joango dira harik eta begia egokitzeko prozesua osatu arte barruko aldera iristean; bertan jarriko da nahikoa argiztapen-maila konstantea duen argiteria.

Gutxi gorabehera segurtasun distantziaren luzera berdina duen irteerako aldean, era berean, argiteria indartu behar da pixkanaka argiztapen-mailak handituz, halako moldez non gidariak hobeto egokitu ahal izango baitira kanpoko argiaren egoerara. Bi norabideko tuneletako irteerako argiteriak sarrerakoaren antzekoa izan behar du.

4. ALUMBRADO DE TÚNELES

4.1. Tipos de Iluminación

Se distinguen tres tipos de iluminación: normal, emergencia y de evacuación.

- La iluminación normal se proporcionará de modo que asegure a los conductores una visibilidad adecuada de día y de noche en la entrada del túnel, en las zonas de transición y en la parte central.
- La iluminación de emergencia se proporcionará de modo que permita una visibilidad mínima para que los usuarios del túnel puedan evacuarlo en sus vehículos, en caso de avería del suministro de energía eléctrica.
- La iluminación de evacuación estará situada a una altura no superior a 1,5 metros y deberá proyectarse de modo que permita guiar a los usuarios del túnel para evacuarlo a pie en caso de incendio.

En los túneles de Tipo I, se dispondrán de los tres tipos de iluminación.

En los túneles de tipo II y III en zona urbana se instalarán los tres tipos de iluminación, en el resto se estudiará su necesidad, según lo indicado en la presente instrucción.

4.2. Introducción

La razón principal por la que un túnel debe ser dotado de un sistema de iluminación se debe a la necesidad de poder aproximarse, atravesar y salir del túnel en condiciones diurnas y nocturnas a una velocidad determinada con una grado de seguridad y confort no inferior a las condiciones en carretera abierta.

La conducción de vehículos a través de los túneles durante las horas diurnas plantea una problemática totalmente diferente a la conducción al aire libre por la noche, que se concreta fundamentalmente en la adaptación del ojo humano a las diferencias existentes entre los elevados niveles de luminancia exteriores y los bajos niveles de luminancia en el interior de los túneles. Todo lo cual da lugar al denominado «efecto agujero negro» que impide, durante el día, que los conductores vean el interior del túnel cuando se encuentran a una cierta distancia de la boca del mismo.

Desde el punto de vista luminotécnico en los túneles se diferencian las siguientes zonas: de acceso, de entrada constituida por las zonas de umbral y de transición, del interior y, finalmente, de salida. Por razones económicas, no es posible reestablecer en la zona de entrada de los túneles condiciones de iluminación idénticas a las existentes durante el día en el exterior (zona de acceso), que pueden alcanzar valores de hasta 100.000 lux.

En la zona de umbral situada justo a la entrada del túnel, con una longitud aproximadamente igual a la distancia de seguridad, el alumbrado durante el día debe dimensionarse de forma que asegure una visión suficiente de eventuales obstáculos sobre la calzada, aunque se produzca una primera reducción brusca de los niveles de iluminación existentes en el exterior (zona de acceso), pero que resulta aceptable. En la segunda parte de la zona de umbral se disminuyen progresivamente los niveles de iluminación.

En la zona inmediata siguiente o zona de transición, de longitud variable en función de la velocidad de circulación, la instalación de alumbrado debe concebirse para paliar el efecto de adaptación por el paso súbito de un nivel de iluminación muy elevado a un nivel bastante bajo continuando con la disminución paulatina de los niveles de iluminación hasta haber completado el proceso de adaptación del ojo al llegar a la zona del interior, donde se instala un alumbrado con un nivel constante de iluminación.

En la zona de salida, con una longitud aproximadamente igual a la distancia de seguridad debe reforzarse de forma asimismo progresiva el alumbrado elevando los niveles de iluminación, de manera que se facilite a los conductores la adaptación a las condiciones luminosas exteriores. En los túneles bidireccionales el alumbrado en la zona de salida será idéntico al de la zona de entrada.

4.3. Ikuspen-arazoak tuneletan

Ikuspenaren inguruko arazoak barruan, indukzio-efektuak eta egokitzapen-efektuak eta errezel-luminantziaren eragina ere sarzzen dira. Horren guztiaren ondorioz, segurtasun distantzia hartu behar da kontuan tuneleko trafikoaren abiaduraren arabera.

4.3.1. Indukzio-efektua

Tunel batera eguneko kanpoko luminantzia altuekin hurbiltzen den gidariaren begiek egokitu beharra dutela-eta, gidariak tuneleko ahoa edo sarrera ikusten duenean, kanpoko irudia jasotzen duen erretinaren zatiak indukzio-efektua eragiten dio tuneleko ahoko irudia jasotzen duen beste zatiari, halako moldez non tuneleko sarre-*ra* «zulo beltz» lez agertzen baita; halakoetan, ezin da xehetasunik bat ere ikusi.

4.3.2. Egokitzapen-efektua

Egokitzapen-efektua deritzonari esker, gizakiaren begiaren sensibilitatea ikuspen-eremuko luminantzia aldatetari egokitu ahal zaio. Halaber, begiaren sensibilitateak ikuspen-eremuko luminantzia aldatetari egokitzeko behar duen denborari egokitzapen denbora deritzo.

Begiaren sensibilitatea ez zaie berehala egokitzen ikuspen-eremuko luminantziaren banaketaren aldaketa bizkorrei; hori dela-eta, ikusmena txikitu egiten da denbora batez, eta uneko itsualdia gertatzen da luminantziaren banaketa bat-batean aldatzen bada.

4.3.3. Errezel-luminantziaren eragina

Ondoren aipatuko ditugunak konbinatuz, tuneleko sarrerako oztopoak ikusteko ahalmena murrizten duen argi-errezela sortzen da: gidariaren begietan dagoen argi parasittoa (foveal errezel luminantzia edo Fry luminantzia), atmosferaren egoera (Atmosfera-*ren* luminantzia) eta ibilgailuko haizetako islapenak (haizetakoen luminantzia).

Tuneleko argiztapenaren eginkizun nagusia uneoro oztopoak ikusteko modua ematea da, eta horretarako, oztopoaren luminantziaren eta tunelaren atzealdeko edo galtzadako luminantziaren arteko diferentzia antzeman behar da.

Definizioz, honelaxe adierazten da kontrastea:

$$C = \frac{L_o - L_f}{L_f}$$

non:

- L_o = Oztopoaren luminantzia.
- L_f = Atzeko aldeko luminantzia.
- C kontrastea positiboa edo negatiboa izan daiteke:
 - $L_o > L_f$ $C > 0$ bada, kontraste positiboa (oztopoa atzeko aldea baino argiagoa).
 - $L_o < L_f$ $C < 0$ bada, kontraste negatiboa (oztopoa atzeko aldea baino ilunagoa).

Tunelaren kasuan, bi kontraste-mota bereizi behar dira: berezkoa edo fisikoa deritzona, C_{int} , oztopoaren ondoan neurtuta, eta erretinako kontrastea, C_R , ibilgailuko gidariaren begitik neurtua. Bi kontraste horien artean errezel-luminantziaren multzoa sartzen da; atmosfera-*ren* luminantzia (L_{atm}), haizetako luminantzia (L_{pb}) eta foveal edo Fry luminantzia (L_f) deritze, gidariaren ikusmena eteten duen errezel-itsualdia eragiten dutenak gidariaren begietan. (Ikus 4.3.3 irudia).

Eguzki argiarekin argiztaturiko partikulak dakartzaten atmosferako aire-geruzek atmosfera-*ren* L_{atm} eragiten dute, atmosfera-*ren* aire-geruza horietako argien errefrakzioa dela-eta. Atmosfera-*ren* egoeraren eta eguzkiaren kokalekuaren arabera da aipaturiko luminantzia.

Haizetako L_{pb} luminantzia ibilgailuetako haizetakoak eragiten du, difrakzio edo erreflexio efektuak sorrarazten ditu eguzkiak ikuspen-eremuan duen kokalekuaren eta haizetakoaren beraren egoeraren, kurbaturaren eta makurduraren arabera.

4.3. Problemática visual en los túneles

La problemática visual en los túneles comprende los efectos de inducción y adaptación, así como la influencia de las luminancias de velo. Todo lo cual exige tener en cuenta la distancia de seguridad en función de la velocidad del tráfico del túnel.

4.3.1. Efecto de inducción

Debido a la adaptación de los ojos del conductor que se aproxima a un túnel a las altas luminancias exteriores diurnas, cuando éste observa la boca o entrada del mismo, la parte de la retina que recibe la imagen del exterior ejerce sobre la otra parte que recibe la imagen de la boca del túnel un efecto de inducción, de forma que la entrada del túnel aparece como un «agujero negro» en el que no se ve ni un solo detalle.

4.3.2. Efecto de adaptación

Es el que permite el ajuste de la sensibilidad del ojo humano a un cambio en la distribución de luminancias en el campo de visión. El tiempo que tarda en producirse la adaptación de la sensibilidad del ojo al cambio en la distribución de luminancias, se denomina tiempo de adaptación.

La adaptación de la sensibilidad del ojo a los cambios rápidos de la distribución de luminancias en el campo de visión no es instantánea, por lo que durante un determinado tiempo la capacidad de visión disminuye, llegando a producirse una ceguera momentánea en el caso de un cambio brusco de la distribución de luminancias.

4.3.3. Influencia de las luminancias de velo

La luz parásita presente sobre el ojo de los conductores (luminancia de velo foveal o de Fry), el estado de la atmósfera (luminancia atmosférica) y los reflejos del parabrisas del vehículo (luminancia del parabrisas), se combinan para formar un velo luminoso que reduce la visibilidad de los obstáculos a la entrada de los túneles.

La razón principal de la iluminación de un túnel es asegurar en todo momento la visibilidad de los obstáculos, lo que exige percibir una diferencia entre la luminancia del obstáculo y la luminancia de fondo o de la calzada y paredes del túnel.

Por definición, el contraste se expresa de la forma siguiente:

$$C = \frac{L_o - L_f}{L_f}$$

donde:

- L_o = Luminancia del obstáculo.
- L_f = Luminancia de fondo.
- El contraste C puede ser positivo o negativo:
 - Sí $L_o > L_f$ $C > 0$ Contraste positivo (obstáculo más claro que el fondo).
 - Sí $L_o < L_f$ $C < 0$ Contraste negativo (obstáculo más oscuro que el fondo).

En el caso de túneles se deben diferenciar dos tipos de contraste: el denominado intrínseco o físico C_{int} , medido junto al obstáculo y el contraste de retina C_R , medido desde el ojo del conductor del vehículo, interponiéndose entre ambos contrastes un conjunto de luminancias de velo denominadas atmosférica L_{atm} , de parabrisas L_{pb} y foveal o de Fry, L_f , que dan origen en el ojo del conductor a un deslumbramiento de velo que perturba la visión. (Ver figura 4.3.3).

Las capas de aire de la atmósfera conteniendo partículas iluminadas por la luz solar dan lugar a la luminancia atmosférica L_{atm} debido a la refracción de la luz en dichas capas de aire de la atmósfera. Depende de las condiciones atmosféricas y de la posición del sol.

La luminancia de parabrisas L_{pb} se produce como consecuencia de la existencia en los vehículos del parabrisas, que provoca efectos de difracción o reflexión según la posición del sol en el campo visual y el estado, curvatura e inclinación del propio parabrisas.

4.3.3. irudia – Atmosferako errezel parasitoak, haizetako errezelak eta fove errezelak





Fig 4.3.3 – Velos parásitos atmosféricos, de parabrisas y de velo foveal



Fove errezel-luminantzia edo Fry luminantzia, L_v , ikuspena ete-tean gertatzen da, noiz-eta ikusi beharrekoarekin zerikusirik ez duen luminantzia batek eragiten duenean eta irudiak antzematea zailtzen denean, begi-globoko ur-humorean argiaren difrakzioak gidariaren begian eragindako argi-errezela dela-eta.

Oztopoaren eta gidariaren artean sartzen diren atmosferako errezel-luminantziak, haizetako luminantziak edo fove edo fry luminantziak oztopoaren C_{int} berezko kontrastea murrizten dute ($C_r < C_{int}$) kontrastearen zeinua aldatu barik betiere, eta oztopoak ikusteko ahalmena txikitzen dute tuneleko sarreretan.

Berezko kontraste horren murrizketa dela-eta, gerta liteke tuneletako sarreraren ikuspena ziurtatzeko modurik ez izatea, eta horren ondorioz, tuneleko atalaseko aldean lortu beharreko luminantzia-balioak nahitaez bikoiztu beharra gerta liteke tunelean argi artifizialak jarrita.

Tunelaren inguruko efektuen ezaugarri nagusiak diren errezel parasitoak edo luminantziak, haizetako luminantziak eta atmosferaren luminantziak, gidariaren ikuspena eteten dutenak, aldatu egiten dira tuneleko aldearen arabera, baita orientazioaren, urtaroren, klimatologiaren, eguneko orduaren eta abarren arabera ere.

4.3.4. Segurtasun distantzia (edo balaztatzeakoa)

Abiadura jakin batean doan ibilgailu batek galtzadako oztopo batekin talka egin baino lehen gelditzeko behar duen distantziari deritzo segurtasun distantzia. Bi batugai ditu distantzia horrek: gidariak oztopoa ikusten duen unetik aurrera ibilgailuak eginiko distantzia, batetik, eta balaztatzeakoa distantzia bera, bestetik.

Ibilgailu bat tunel batera hurbiltzen denean, indukzio-efektuek eta egokitzapen-efektuek eta errezel-luminantziaren eraginak lotura estua dute ibilgailuko gidaria tuneleko ahotik dagoen distantziarekin, hain zuzen ere gutxi gorabehera segurtasun distantziaren (SD) distantzia bereko luzera duen sarrerako aldean.

La luminancia de velo foveal o de Fry, L_v está causada por la perturbación en la visión que induce una luminancia ajena a la tarea visual a realizar, y que dificulta la percepción de las imágenes, debido al velo luminoso producido en el ojo del conductor a causa de la difracción de la luz en el humor acuoso del globo ocular.

Las luminancias de velo atmosférico, de parabrisas y foveal, o de Fry que, se interponen entre el obstáculo y el conductor, reducen el contraste intrínseco C_{int} del obstáculo ($C_r < C_{int}$) sin cambiar el signo del contraste, disminuyendo la visibilidad de los obstáculos a la entrada de los túneles.

Dicha reducción del contraste intrínseco podría ocasionar que no se llegara a asegurar la visibilidad de los obstáculos a la entrada de los túneles, sobre todo en el caso de luminancias de velo fuertes, que podrían obligar a duplicar los valores de luminancia a alcanzar en la zona de umbral del túnel mediante el alumbrado artificial.

Las luminancias o velos parásitos que caracterizan los efectos del entorno del túnel, del parabrisas y de la atmósfera y que perturban la visión del conductor, son variables según la región y zona donde se encuentra el túnel, así como su orientación, la estación del año, climatología, la hora de la jornada, etc.

4.3.4. Distancia de seguridad (o de parada)

Distancia de seguridad (DS) es la distancia necesaria para que el conductor de un vehículo que circula a determinada velocidad, pueda detenerse antes de alcanzar a un obstáculo situado en la calzada. Dicha distancia consta de dos sumandos: el recorrido del vehículo desde el instante que el conductor divisa el obstáculo hasta que aplica los frenos y la distancia de frenado propiamente dicha.

Quando se aproxima un vehículo a un túnel los efectos de inducción, adaptación y la influencia de las luminancias de velo están íntimamente relacionadas con la distancia a la que el conductor del vehículo se encuentra de la boca de dicho túnel, en la denominada zona de acceso con una longitud aproximadamente igual a la distancia de seguridad (DS).

4.3.4. irudia – Segurtasun distantziak





Fig 4.3.4 – Distancias de seguridad



Bi faktorearen araberakoa izango da, funtsean, segurtasun distantzia: ibilgailuaren abiadura eta galtzadaren malda.

Ibilgailuak daraman abiadura zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da segurtasun distantzia (SD), eta horrexegatik hartu behar dira kontuan ondorengo alderdi hauek:

- Oztopo baten pertzepzioa segurtasun distantziaren karra-tuaren alderantzizkoaren proportzionala izango da ($SD \propto v^2$), kontrastea konstantea dela suposatuz.
- Errezel atmosferikoaren luminantzia, L_{atm} , segurtasun distantziaren proportzionala da (SD). Transmisio atmosferikoa $T_{atm} = 10 \cdot kSD$ da.
- Ikusizko egokitzapen-abiadura ibilgailuaren hurbiltze-abiadurarekin dago lotuta betiere.

La Distancia de Seguridad depende fundamentalmente de dos factores: velocidad de circulación del vehículo y pendiente de la calzada.

Quando mayor es la velocidad de un vehículo, mayor resulta la distancia de seguridad (DS) y por ello deben tenerse en cuenta algunas consideraciones:

- La percepción de un obstáculo es proporcional a la inversa del cuadrado de la distancia de seguridad ($DS \propto v^2$), suponiendo que el contraste es constante.
- La luminancia de velo atmosférico L_{atm} es proporcional a la distancia de seguridad (DS). La transmisión atmosférica es $T_{atm} = 10 \cdot kDS$.
- La velocidad de adaptación visual está relacionada con la velocidad de aproximación del vehículo.

Ibilgailuaren abiadura zenbat eta handiagoa izan orduan eta luzeagoa izango da segurtasun distantzia tuneleko ahotik tunelaren barruko alderantz, hain zuzen ere gidariak tunelaren barruan ikusi behar duen tokitik; argiztatu beharreko atalaseko aldea luzeagoa izatea dakar horrek.

Halaber, zenbat eta distantzia handiagoak izan, orduan eta txikiagoa izango da tunelaren barruko oztopo batek duen angelua eta, beraz, zailagoa izango da oztopoa ikuste. Gainera, sarreran dagoen gidariaren eta tuneleko sarreraren arteko aire-geruza handiagoa da eta, beraz, horrek esan nahi du L_{atm} atmosferaren luminantzia handiagoa izango dela, C_{int} berezko kontrastea murriztuko da eta, ondorioz, oztopoak ikusteko ahalmena txikiagoa izango da. Horrek guztiak argiztapen-maila handiagoak eskatzen ditu tunelaren atalaseko aldean.

Segurtasun distantzia edo gelditzeko distantzia CIE-88 txostenaren ediziorik eguneratuenerako A.2 eranskinaren arabera kalkulatu da.

4.4. Argiztapen-sistemak

Bi multzotan bana daitezke tuneleko argiztapen-sistemak: simetrikoa eta asimetrikoa; aldi berean, beste azpisailkapen bat egin daiteke: ibilgailuaren zirkulazioa norabidearen kontrako fluxuko argiztapen-sistema, «kontrafluxua» izenekoa, eta norabidearen aldeko fluxuko argiztapen sistema.

Azken hori, praktikan baliagarria ez dela-eta, ez da kontsideratzen. Tuneleko argiteriaren ezaugarri nagusia kontraste kalitatearen P parametroa da, q_c kontraste koefizientearen deribazioa, eta honelaxe adierazten da:

Non:

$$P = q_c = \frac{L}{E_v}$$


L = Galtzadaren luminantzia cd/m^2 -tan.

E_v = Oztopoaren luminantzia bertikala galtzadaren mailako lux-etan, ibilgailuaren zirkulazioaren noranzkoan, hots, tunelaren ardatzaren azalera bertikal perpendikularren gainean neurturiko luminantzia, sarrerarantz bideratuta.

4.4.1. Argiztapen simetriko sistema

Argiztapen simetriko sistema dituen luminariak argi intentsitatearen banaketa jakin bat dute; izan ere, aipaturiko banaketa hori simetrikoa da tuneleko ardatzaren perpendikularrekiko.

4.4.1. irudia – Argiztapen simetriko sistema



Oztopoen kontrasteak negatiboak edo positiboak izan daitezke, horien azaleraren erreflexio-propietateen arabera. Aitzitik, sistema honekin kontraste positiboko ikuspena ziurtatu nahi da, hots, oztopoen kontraste argia izatea galtzadako eta tuneleko hormetako atzealde ilunean.

Lanpara fluorescente konbentzionalak eta trinkoak dituzten luminariak –presio altuko eta baxuko sodio-lurrineko lanparak edo indukzio bidezko deskargako lanparak- dauden tuneletako barruko aldean erabiltzen da, kasu guztietan, argiztapen simetriko sistema

Para un conductor en la zona de acceso, cuanto mayor es la velocidad de su vehículo más larga es la distancia desde la boca del túnel hacia el interior en la que el conductor tiene que ver dentro del túnel, lo que supone mayor longitud de la zona umbral a iluminar.

Asimismo, a mayores distancias un obstáculo situado en el interior del túnel subtende un ángulo más pequeño en el ojo del conductor y, por tanto, es menos visible. Además, la capa de aire entre el conductor situado en la zona de acceso y la entrada del túnel es mayor, lo que significa mayor luminancia atmosférica L_{atm} , reducción del contraste intrínseco C_{int} y, consecuentemente, disminución de la visibilidad de los obstáculos. Todo ello exige mayores niveles de iluminación en la zona de umbral del túnel.

La distancia de seguridad o de parada se calculará según el anexo A.2 del informe CIE-88 en su edición más actualizada.

4.4. Sistemas de alumbrado

Los sistemas de alumbrado de túneles pueden dividirse en dos familias: simétrico y asimétrico que a su vez comprende el sistema de alumbrado de flujo contrario al sentido de circulación de vehículos, también denominado a «contraflujo» y el sistema de alumbrado a favor de flujo que carece de utilidad práctica y, por tanto, no se considera.

El alumbrado de los túneles se caracteriza por el parámetro de calidad de contraste P , también conocido como coeficiente de revelado de contraste q_c cuya expresión es la siguiente:

Donde:

$$P = q_c = \frac{L}{E_v}$$


L = Luminancia de la calzada en cd/m^2 .

E_v = Iluminancia vertical del obstáculo en lux a nivel de la calzada en la dirección de la circulación de vehículos, es decir, iluminancia medida sobre una superficie vertical perpendicular al eje del túnel y, orientada hacia la entrada.

4.4.1. Sistema de alumbrado simétrico

El sistema de alumbrado simétrico es un sistema en el que las luminarias tienen una distribución de la intensidad luminosa que es simétrica en relación a un plano perpendicular al eje del túnel.

Fig 4.4.1 – Sistema de alumbrado simétrico



Los contrastes de los obstáculos pueden ser negativos o positivos; dependiendo de las propiedades de reflexión de la superficie de los mismos. No obstante, con este sistema se pretende asegurar una visión en contraste positivo, es decir, que los obstáculos se destaquen claros sobre el fondo oscuro de la calzada y paredes del túnel.

El sistema de alumbrado simétrico se utiliza en todos los casos en la zona del interior de los túneles con luminarias dotadas de lámparas fluorescentes convencionales y compactas, de vapor de sodio a alta y baja presión o de descarga por inducción, pudiéndose uti-

tema, eta sistema hori ezar daiteke sarreretan ibilgailuak hurbiltzeko muga baxua ezarrita duten tuneletan.

Honelaxe laburbil daitezke argiteria-sistemaren ezaugarri nagusiak:

- Oztipoen kontraste positiboa ematen du.
- Nahikoa itsualdi txikiko irtenbidea eskaintzen du.
- Trafikoko dentsitate altua dagoen egoeretara ondo egokitua.
- Luminarien kokapen ezberdinak ahalbidetzen ditu tunelaren sekzioan.
- Horman argiteria ona izatea errazagoa da.

Sistema horri esker, tunelean dauden oztipoak ondo ikus daitezke eta ez dago itsualdirik, eta gomendagarria da fotometriaren aldetik galtzadako zoladurak eta tuneleko hormak azalera difusoreak (S1 faktore espekular txikia) eta argiak izatea (batez besteko luminantziaren Q_0 koefiziente altua). Hortaz, zoladura R1, R2 edo C1 klasekoa izatea gomendatzen da, CIEren gomendioen arabera, argiztapen-maila altuarekin (ahalik eta Q_0 altuena).


Baldin eta tuneletako argiteriaren tamaina sarrerako sistema metriko baten bidez finkatzen bada, lortzen zailak izango diren argiztapen-mailak edukiko ditugu ibilgailuen 90 km/h-tik gorako hurbiltze-abiaduretan, errezel-luminantziekin edo sarreran neurturiko luminantziekin, edo 70 km/h-tik gorako hurbiltze-abiaduretan errezel gogorrek. 200 cd/m²-tik gorako balioak lortu nahi direnean (lortzen oso zailak direnak, praktikan, sistema simetrikoarekin) beharrezkoa da halakoetan bestelako alternatibak bilatzea, bai ibilgailuen abiadura mugak jarritz, bai kontrafluxuko argiztapen-sistema ezarri sarreran.

4.4.2. Kontrafluxuko argiztapen-sistema

Kontrafluxuko argiztapen-sisteman, argiaren intentsitatea modu asimétrikoan banatzen da, hain zuzen ere ibilgailuen trafikoko zirkulazioaren norabidearen kontra, 4.4.2. irudian agertzen denez.

Argiztapen-sistema honi esker, errazagoa da oztipoa ikustea kontraste negatiboaren bidez, hots, oztipoak nabarmen geldituko dira galtzadako eta tuneleko hormetako atzealde argian. Kontraste negatiboko ikuspen hori oztipoaren luminantzia murriztuz (L_0), horren iluminantzia bertikala nabarmen murriztuz (E_v) eta galtzadaren luminantzia handituz lortzen da.

4.4.2. irudia – Kontrafluxuko argiztapen-sistema.



Hauexek dira sistema honen ezaugarriak:

- Atalasean eta trantsizioko aldean baino ez da baliagarria.
- Eraginkorragoak dira zoladura espekularrekin.
- Erabilitako luminaria-kopuru txikiagoa, inbertsio kostu txikiagoa.
- Kontu handiz jarriko dira itsualdirik ez eragiteko.
- Luminariak sabai pean jarri behar dira nahitaez.
- Ez da hain eroso; ez da gomendatzen trafiko handia dagoenean.

lizar la implantación de dicho sistema en la zona de entrada de aquellos túneles que tengan establecida una limitación de la velocidad de aproximación de los vehículos baja.

Las características principales de este sistema de alumbrado se resumen en:

- Proporciona un contraste positivo de los obstáculos.
- Solución con deslumbramiento relativamente bajo.
- Bien adaptado a situaciones con densidad de tráfico alta.
- Permite diferentes ubicaciones de las luminarias en la sección del túnel.
- Hace más fácil un buen alumbrado en la pared.

Este sistema permite una buena visibilidad de los obstáculos y ausencia de deslumbramiento, siendo aconsejable fotométricamente que el pavimento de la calzada y las paredes del túnel sean superficies difusoras (factor especular S1 pequeño) y claras (coeficiente de luminancia medio Q_0 alto). Por tanto, el pavimento conviene que sea de la Clase R1, R2 o C1, según Recomendaciones de la CIE, con alto grado de claridad o luminosidad (Q_0 lo más elevado posible).


El dimensionamiento del alumbrado de los túneles, mediante sistema simétrico en la zona de entrada, conduce a niveles de iluminación difíciles de conseguir para velocidades de aproximación de los vehículos superiores a 90 km/h con luminancias de velo débiles o medias en la zona de acceso, o mayores de 70 km/h con luminancias de velo fuertes. Cuando se pretenda alcanzar niveles superiores a 200 cd/m², muy complicados de lograr en la práctica con el sistema simétrico, resulta necesario en dichos casos buscar otras alternativas, bien de limitación en la velocidad de los vehículos o de implantación del sistema de alumbrado a contraflujo, en la zona de entrada.

4.4.2. Sistema de alumbrado a contraflujo

El sistema de alumbrado a contraflujo es un sistema en el que las luminarias tienen una distribución de la intensidad luminosa asimétrica, que está dirigida contra el sentido de circulación del tráfico de vehículos, tal y como se representa la figura 4.4.2.

Este sistema de alumbrado favorece la visión de obstáculos por contraste negativo, es decir, que los obstáculos se destaquen oscuros sobre el fondo claro de calzada y paredes del túnel. Esta visión en contraste negativo se logra reduciendo la luminancia del obstáculo (L_0), limitando sensiblemente la iluminancia vertical del mismo (E_v), y aumentando la luminancia de la calzada.

Fig 4.4.2 – Sistema de alumbrado a contraflujo.



Las características de este sistema se resumen en:

- Sólo es válido en zona umbral y de transición.
- Más eficiente con pavimentos especulares.
- Menor número de luminarias utilizadas, menor coste de inversión.
- Instalación muy cuidadosa y crítica para evitar deslumbramientos.
- Las luminarias deben ir colocadas forzosamente bajo techo.
- Menos confortable, no recomendado en situaciones con tráfico denso.

Kontrafluxuko argiztapen-sistema soilik tunelen sarreretan erabiltzen da (ez barruko aldean). Alde horretan erabiltzea gomendatzen da, zeren eta kasu horietan abantaila ekonomikoak baitaude; izan ere, ibilgailuen abiaduraren muga altua da, hots, gutxi gorabehera 90 km orduko abiaduratik gorakoa izaten da. Luminariak, ezinbestean, trafikoko erreien gainean jarri behar dira eta presio altuko sodio-lurrineko lanpaz daude hornituta normalean.

Sistema ulertzeko modua bera dela-eta, ahal dela ez da bi norabideko tuneletan erabiliko, zeren eta kasu horretan zirkulazioaren norabide jakin baterako kontrafluxua izango litzatekeen fluxuaren aldekoa izango bailitzateke kontrako norabiderako; hortaz, gidarien ikuspen-baldintzak aldatuko litzuzke.

Kontrafluxuko argiztapen-sistemak kontraste handiagoa eragin ohi du oztopoaren eta atzeko aldearen artean, baina nolabait «zulo beltza» efektua handitu dezake eta, ondorioz, gidariaren ikuspen-erosotasuna murriztuko litzateke. Halaber, kontrafluxuko sistema hori baliteke egokia ez izatea eguneko argitasun handia sartzen den tuneleko sarreretan, eta ez da hain eraginkorra trafikoko intentsitateak oso altuak direnean edo trafikoko aurrekusten diren ibilgailu astunen ehuneko oso altua denean.

Argiztapen-sistema honek oztopoak ondo ikusteko modua ematen du, baina, hala ere, itsualdiak mugatu behar dira luminarietako ematen duten argi-intentsitatea kontrolatuz. Hala, bada, gomendagarria da fotometriaren aldetik zoladura espekularrak (S1 faktore espekular altua) eta argiak erabiltzea, hots, batez besteko Q_0 luminantzia altua, R3, R4 ed C2 klaseko zoladurak, CIEren gomendioen arabera, argiztapen-maila altuarekin betiere (ahalik eta Q_0 , altuena). Gainera, tuneleko hormetan luminantzia handia mugatu beharra dago, gutxienez metro bateko mailaraino, oztopoen iluminantzia bertikala murrizteko (E_v).

4.4.3. Kontrastearen errebelatze-koefizientea

Hartutako argiteriaren sistema simetrikoaren edo kontrafluxuko sistemaren ezaugarri nagusia kontrastea errebelatzeko zenbait koefiziente dira, q_c , eta horien balioak ondoko taulan agertzen dira

4.4.3. Taula – Kontrastearen errebelatze-koefizientea

Argiztapen-Sistema	Errebelatze-Koefizientea $q_c = L/E_v$
Simetrikoa	$\leq 0,2$
Kontrafluxua	$\geq 0,6$

$q_c = L/E_v$ kontrastearen errebelatze-koefizientearen balioak oso lotura estua du tuneleko argiztapen-sistemari datzekion ezaugarriekin, luminarien ezarpenarekin, zoladuraren ezaugarriekin eta tuneletako hormen ekarpen fotometrikoarekin. Taulako balio horiek tuneletako argiztapen-sistemaren ezaugarri nagusia dira, baina gaeuz egiten diren neurketetan soilik.

4.4.4. Argiztapen-sistema naturala eguneko argiarekin

Argiztapen artifizial simetrikoko eta kontrafluxuko argiztapen sistemaz gain, bada beste alternatiba bat tuneleko sarrerak argiztatzeko, eta horretarako, paralumenek edo pantailak emandako pantaila-itxurako eguneko argi egokia erabili beharko da. Argiztapen natural mota horrek bete egin behar ditu argiztapen artifizialak emandako argiztapen-maila berak, eta ka faktorearen balioak dira (koefiziente horrekin biderkatu behar da tuneleko sarrerako L_{20} luminantzia tuneleko atalaseko aldeko L_{th} luminantzia lortzeko, hots, $L_{th} = k L_{20}$) argiztapen simetrikoaren sistemaren antzekoak izango dira. Halaber, argiztapen artifizialean bezala finkatuko da kontrasteko q_c errebelatze-koefizientea argiztapen naturalean, eta kalkulu horretan, gainera, bitartean islaturiko argiaren ekarpena ere sartzen da.

4.5. Tunelen sailkapena

Argiztapenari dagokionez, tunelak hiru motatan sailkatzen dira:

- Geometrikoki luzeak diren tunelak.
- Optikoki luzeak diren tunelak.
- Tunel laburrak.

El sistema de alumbrado a contraflujo únicamente se utiliza en la zona de entrada de los túneles (no en la zona interior). Se recomienda en esta zona cuya limitación de la velocidad de los vehículos es elevada, es decir, a partir aproximadamente de 90 km/h, dadas las ventajas económicas que en dichos casos representa. Las luminarias se instalan necesariamente encima de los carriles de tráfico y están equipadas normalmente con lámparas de vapor de sodio a alta presión.

Por la propia concepción de este sistema, debe evitarse su utilización en túnel de doble sentido de circulación (bidireccionales), dado que en dicho caso, lo que sería contraflujo para un sentido de circulación determinado, resultaría a favor de flujo para el sentido contrario, con lo que se modificarían las condiciones de visión de los conductores.

El sistema de alumbrado a contraflujo crea habitualmente mayor contraste entre obstáculo y el fondo, pero puede producir un cierto aumento del efecto «agujero negro» reduciendo el confort visual del conductor. Asimismo, este sistema a contraflujo puede no ser apropiado en la entrada de túneles con penetración muy alta de luz diurna, y resulta menos efectivo cuando las intensidades de tráfico sean muy elevadas o se prevea en el tráfico un elevado porcentaje de vehículos pesados.

En este sistema de alumbrado, que proporciona una buena visibilidad de los obstáculos, debe limitarse el deslumbramiento controlando la intensidad luminosa emitida por las luminarias, siendo aconsejable fotométricamente la utilización de pavimentos especulares (factor espekular S1 elevado) y claros, es decir, con coeficiente de luminancia medio Q_0 alto, pavimentos clase R3, R4 o C2, según Recomendaciones de la CIE, con alto grado de claridad o luminosidad (Q_0 , lo más elevado posible). Además debe limitarse en las paredes del túnel, al menos hasta el nivel de 1 m, una elevada luminancia, con el fin de reducir la iluminancia vertical de los obstáculos (E_v).

4.4.3. Coeficiente de revelado de contraste

El sistema de alumbrado adoptado bien simétrico o a contraflujo se caracteriza por unos determinados coeficientes de revelado de contraste q_c cuyos valores se incluyen en la tabla adjunta.

Tabla 4.4.3 – Coeficiente de revelado de contraste

Sistema de alumbrado	Coeficiente de revelado $q_c = L/E_v$
Simétrico	$\leq 0,2$
Contraflujo	$\geq 0,6$

El valor del coeficiente de revelado de contraste $q_c = L/E_v$ está estrechamente ligado a las características intrínsecas del sistema de alumbrado del túnel, a la implantación de las luminarias y a las características reflexivas del pavimento, así como a la contribución fotométrica de las paredes del túnel. Estos valores de la tabla caracterizan el sistema de alumbrado de los túneles únicamente en mediciones nocturnas.

4.4.4. Sistema de iluminación natural con luz diurna

Además de los sistemas de alumbrado artificial simétrico y a contraflujo, existe otra alternativa para la iluminación de la entrada de los túneles mediante la adecuada utilización de la luz diurna apantallada proporcionada por paralúmenes o pantallas. Este tipo de iluminación natural debe satisfacer los mismos niveles luminosos que los del alumbrado artificial, siendo los valores del factor k (coeficiente por el que se debe multiplicar la luminancia de la zona de acceso del túnel L_{20} , para obtener la luminancia de la zona de umbral de túnel L_{th} , es decir, $L_{th} = k L_{20}$), idénticas a las del sistema de alumbrado simétrico. Asimismo, el coeficiente de revelado de contraste q_c se determinará en la iluminación natural del mismo modo que para el alumbrado artificial, incluyéndose también en el cálculo la contribución de la luz interreflejada.



4.5. Clasificación de túneles

Con respecto a la iluminación, los túneles son subdivididos en tres clases:

- Túneles geoméricamente largos.
- Túneles ópticamente largos.
- Túneles cortos.

4.5. irudia – Argiztapena egunez, luzera desberdinetako tuneletan

Fig 4.5 – Alumbrado durante el día de túneles de longitudes diferentes



Oharra: 75 metrorainoko tuneletan, egunez argizterik gomendatzen ez bada, 4.5 irudian bezala, egunsentia iritsi baino ordu bete lehenago, gutxienez, eta ilundu eta ordubetera, tunel luze baten barrurako gomendatzen diren balioen pareko argiztapen-maila lortu behar da (ikus barrualdeko luminantzia). Gazez gaueko argiztapenerako gomendatutako balioa besterik ez da behar.

Nota: Para longitudes de túnel de hasta 75 m en los que no se recomienda alumbrado durante el día en la fig. 4.5, ha de observarse que al menos una hora antes del amanecer y una hora después del ocaso debe conseguirse un nivel de iluminación igual a los valores recomendados para la zona interior de un túnel largo (véase luminancia en la zona interior). Durante la noche solamente se necesita el valor recomendado para alumbrado nocturno.

5. TUNEL LUZEETAKO ARGIZTAPEN ARRUNTA

Hona hemen tuneleko argiztapenaren kalitatea ezartzeko beharrezko ezaugarri fotometriko nagusiak:

- Galtzadaren luminantzia-maila.
- Hormen luminantzia-maila, bereziki gehienez 2 m-rainoko altueran.
- Luminantziaren banaketa-uniformetasuna galtzadetan eta hormetan.
- Itsualdia mugatzea.
- Flicker-efektua kontrolatzea.

5. irudian hiri arteko norabide bakarreko I edo II. motako tunel baten sekzio longitudinala agertzen da, tuneleko alde desberdinen luzerak eta luminantzia-mailak zehaztuz. Ondoren zehaztuko dira argiztapen-mailen nomenklatura eta definizioa:

- L_{20} = Sarreraren inguruko luminantzia.
- L_{th} = Atalaseen inguruko luminantzia.
- L_{tr} = Trantsizioko aldearen inguruko luminantzia.
- L_n = Barruko aldearen luminantzia.
- L_{ex} = Irteeraren inguruko luminantzia.

Jarraian, berriz, eskematikoki agertzen eta identifikatzen dira hainbat aldetako argiztapen-mailak.

Non:

$$L_{tr} = L_{th} (1,9+t)^{-1,428}$$

Eta L_{th} = %100 eta t = denbora segundotan

Segurtasun distantziak lortzen dira 4.3.4 irudia oinarritzat hartuta zirkulatzeko gehieneko abiaduraren eta galtzadaren maldaren datuekin.

5. ALUMBRADO NORMAL DE TÚNELES LARGOS

Las principales características fotométricas necesarias para establecer la calidad del alumbrado de un túnel son las siguientes:

- Nivel de luminancia de la calzada.
- Nivel de luminancia de las paredes, en particular hasta una altura de 2 metros.
- Uniformidad de distribución de luminancia en calzada y paredes.
- Limitación del deslumbramiento.
- Control del efecto flicker.

En la figura 5 se ha representado una sección longitudinal de un túnel tipo I o II unidireccional interurbano, detallando las longitudes y niveles luminancia de las diferentes zonas del mismo. La nomenclatura y correspondiente definición de dichos niveles luminotécnicos se concreta a continuación:

- L_{20} = Luminancia en la zona de acceso.
- L_{th} = Luminancia en la zona de umbral.
- L_{tr} = Luminancia en la zona de transición:
- L_n = Luminancia en la zona del interior.
- L_{ex} = Luminancia en la zona de salida.

A continuación se identifican y representan de forma esquemática los niveles de iluminación en las distintas zonas.

Donde:



$$L_{tr} = L_{th} (1,9+t)^{-1,428}$$

Con L_{th} = 100% y t = tiempo en segundos

Las Distancias de Seguridad se obtienen a partir de la Figura 4.3.4 con los datos de la velocidad máxima permitida de circulación y de la pendiente de la calzada.

5. irud. – Luminantziaren bilakaera tunelean.
%100eko balioa atalase aldeko
lehen zatiri dagokio

Fig. 5 – Evolución de la luminancia a lo largo del túnel.
El valor de 100% corresponde a la primera mitad
de la zona de umbral



5.1. Sarrerako aldeko luminantzia

Sarrera aire zabalean dagoen errepideko zatia da, tuneleko sarreraren edo atariaren aurretik dagoena eta tuneleko hurbiltzen den gidariak tuneleko sarrera ikusteko modua izan behar duen distantzia betetzen duena. Sarrerako aldearen luzera berekoa da (SD), eta ahoa baino 20 edo 30 metro lehenago bukatzen da, 5. irudian agertzen den moduan.

Sarrerako aldeko L_{20} luminantzia 20 graduko angelua duen ikuspen-eremuko batez besteko luminantzia da, erpina gidariaren begiaren posizioan du (tuneletik distantzia jakin batera kokatuta, hau da, gelditzeko distantziara kokatuta) eta tunelaren atarirantz bideratuta tunelaren ahoaren 1/4ko altueran.

Sarrerako aldeko L_{20} luminantzia finkatzeak berebiziko garrantzia du, atalaseko aldeko argiztapenaren bidez lortu beharreko maila aurrez finkatzen baitu. Sarrerako aldeko luminantzia hori inguruko atmosferaren egoeraren eta tunelaren kokalekuaren arabera izango da (orografia, inguruak, etab.).

5.1.1. Luminantzia finkatzea tuneleko sarreraren aldean

Atalaseko aldearen hasieran behar den luminantziaren balioaren oinarriak sarrerako L_{20} luminantziaren balioa izan behar du, tunelaren aurreko tarte jakin batean: tarte horrek segurtasun distantziaren luzera berekoa izan behar du nolahi ere. Eguneko argiaren antzeko baldintzetan, hurbiltzeko alde eta inguru ezberdinak dituzten tunelek (orografia ezberdina, ingurunea, eta abar) nahikoa luminantzia balio ezberdinak izango dituzte L_{20} sarrerako aldean.

Tunel bateko argiztapenaren instalazioaren diseinua eta proiektua egiteko, urte osoan nahikoa maiz gertatzen den L_{20} horren gehieneko balioa ezagutu beharra dago. Kasurik gehienetan L_{20} balio hori urtaroaren baldintzen eta eguraldiaren arabera denez gero, ondoren zehaztuko diren bi metodo empiriko erraztu erabiltzen dira L_{20} ebaluatu ahal izateko.

5.1.1.1. Hurbiltze-metodoa

Izenak berak adierazten duenez, metodo honek gutxi gorabeherako balioak ematen ditu, eta tuneleko sarreraren inguruei buruzko nahikoa informazio zehatzik ez dagoenean erabiliko da soilik. Sarrerako L_{20} luminantzia aukeratzean datza metodo hau, 5.1.1.1. taularen bidez eta kcd/m^2 -tan adierazia (103 cd/m^2):

5.1 Luminancia en la zona de acceso

La zona de acceso es la parte de la carretera a cielo abierto, situada inmediatamente anterior a la entrada o portal del túnel, que cubre la distancia a la que un conductor que se aproxima debe ser capaz de ver en el interior del túnel. La longitud de la zona de acceso es igual a la distancia de seguridad (DS), y termina 20 o 30 m antes del emboquille tal y como se ha indicado en la figura 5.

La luminancia de la zona de acceso L_{20} es la luminancia media contenida en un campo cónico de visión que subtiende un ángulo de 20° , con el vértice en la posición del ojo del conductor, situado a una distancia anterior al túnel igual a la distancia de parada, y orientado el cono hacia el portal de túnel sobre un punto situado a una altura de 1/4 de la boca del túnel.

La determinación de la luminancia de la zona de acceso L_{20} tiene una gran trascendencia, ya que es la que predetermina el nivel a obtener mediante el alumbrado en la zona de umbral. Dicha luminancia de la zona de acceso depende de las condiciones atmosféricas de la zona y del emplazamiento del túnel (orografía, alrededores, etc.).

5.1.1. Determinación de la luminancia en la zona de acceso del túnel

El valor de luminancia necesaria al comienzo de la zona de umbral debe basarse en el valor de la luminancia en la zona de acceso L_{20} a una separación delante del túnel igual a la distancia de seguridad «DS». Bajo idénticas condiciones de luz diurnas, los túneles con distintas zonas de aproximación y alrededores (distinta orografía, entorno etc.) tendrán valores considerablemente diferentes de luminancia en la zona de acceso L_{20} .

Para diseñar y proyectar la instalación de alumbrado de un túnel se necesita conocer el valor máximo de L_{20} que tiene lugar con una frecuencia suficiente durante todo el año. Como en la mayoría de los casos este valor L_{20} depende de las condiciones estacionales y del tiempo meteorológico, se utilizan dos métodos empíricos simplificados para la evaluación de L_{20} que a continuación se especifican.

5.1.1.1. Método de aproximación

Como su propio nombre indica este método da solamente una indicación aproximada, y únicamente debe utilizarse cuando no exista información suficientemente detallada acerca de los alrededores inmediatos de la boca de entrada del túnel. Este método consiste en la elección de la luminancia de la zona de acceso L_{20} mediante la Tabla 5.1.1.1 expresada en kcd/m^2 (103 cd/m^2):

5.1.1.1. Taula – Sarreraren aldeko batez besteko luminantzia L_{20} (Kcd/m^2)

Segurtasun distantzia eta egoera	Zeruko portzentajeak (%) 20°-ko ikuspen-eremu konikoan															
	%35				%25				%10				%0			
	Ohik.		Elurra		Ohik.		Elurra		Ohik.		Elurra		Ohik.		Elurra	
	B	A	B	A	B	A	B	A	B	A	B	A	B	A	B	A
Ikuspen-eremuko distira	(1)		(1)		(1)		(1)		(2)		(3)		(2)		(3)	
60 m-ko segurtasun distantzia (60 km/h)	(4)		(4)		4	5	4	5	2,5	3,5	3	3,5	1,5	3	1,5	4
100 m-ko segurtasun distantzia (80 km/h)	4	6	4	6	4	6	4	6	3	4,5	3	5	2,5	5	2,5	5

Tabla 5.1.1.1 – Luminancia media de la zona de acceso L_{20} (Kcd/m^2)

Situación y distancia de seguridad	Porcentaje de cielo (%) en los campos de visión cónicos A 20°															
	35%				25%				10%				0%			
	Normal		Nieve		Normal		Nieve		Normal		Nieve		Normal		Nieve	
	B	A	B	A	B	A	B	A	B	A	B	A	B	A	B	A
Situación de brillo en campo de visión	(1)		(1)		(1)		(1)		(2)		(3)		(2)		(3)	
Distancia seguridad 60 m (60 km/h)	(4)		(4)		4	5	4	5	2,5	3,5	3	3,5	1,5	3	1,5	4
Distancia seguridad 100 m (80 km/h)	4	6	4	6	4	6	4	6	3	4,5	3	5	2,5	5	2,5	5

Azalpena:

1) Efektu hori, funtsean, tunelaren orientazioaren arabera da:

— «B»: Baxua; iparraldeko hemisferioan: «hegoaldeko sarrera».

— «A»: Altua; iparraldeko hemisferioan: «iparraldeko sarrera».

Ekialdeko eta mendebaldeko sarreretan, maila baxuaren eta altuaren bitarteko balioak hautatu behar dira.

2. Efektu hori, funtsean, inguruko distiraren arabera da:

— «B»: Baxua; inguruetako islapen baxuak.

— «A»: Altua; inguruetako islapen altuak.

3. Efektu hori, funtsean, tunelaren orientazioaren arabera da:

— «B»: Baxua; iparraldeko hemisferioan: «hegoaldeko sarrera».

— «A»: Altua; iparraldeko hemisferioan: «iparraldeko sarrera».

Ekialdeko eta mendebaldeko sarreretan, maila baxuaren eta altuaren bitarteko balioak hautatu behar dira.

4. 60 metroko gelditzeeko distantzian ez dago, praktikan, %35eko zeruko portzentajerik.

Oharrak: «Iparraldeko sarrerak» esan nahi du hegoalderantz doazen ibilgailuetako gidarientzako sarrera dela. «Hegoaldeko sarrerak» iparralderantz doazen ibilgailuetako gidarientzako sarrera adierazten du.

5.1.1.2. Metodo zehatza

Bigarrena metodoa, zehatzagoa dena, tunelaren ahoaren hiru dimentsioko bista dagoenean erabili behar da. Sarrerako batez besteko L_{20} luminantzia ebaluatzeeko metodo hori lortzeko abiapuntua tuneleko sarreraren inguruetako krokis bat da, eta ondoko formularen bidez kalkulatzen da.

$$L_{20} = aL_c + bL_R + cL_E + dL_{th}$$

Non:

— L_c = Zeruko luminantzia

a = zeruaren %.

— L_R = Errepideko luminantzia

b = errepidearen %.

— L_E = Inguruetako luminantzia

c = inguruen %.

— L_{th} = Tuneleko atalasearen inguruko luminantzia

d = tuneleko sarreraren %.

Eta hauxe egiaztatzen da:

$$a + b + c + d = 1$$

Siendo:

1. Efecto dependiente fundamentalmente de la orientación del túnel:

— «B»: Bajo; En el hemisferio norte: «entrada sur».

— «A»: Alto; En el hemisferio norte: «entrada norte».

Para entradas este y oeste deben elegirse valores intermedios entre bajo y alto.

2. Efecto dependiente fundamentalmente del brillo de los alrededores:

— «B»: Bajo; Reflectancias de los alrededores bajas.

— «A»: Alto; Reflectancias de los alrededores altas.

3. Efecto dependiente fundamentalmente de la orientación del túnel:

— «B»: Bajo; En el hemisferio norte: «entrada sur».

— «A»: Alto; En el hemisferio norte: «entrada norte».

Para entradas este y oeste deben elegirse valores intermedios entre bajo y alto.

4. Para una distancia de parada de 60 m no se encuentran en la práctica porcentajes de cielo del 35%.

Notas: La «entrada norte» significa la entrada para conductores de vehículos viajando hacia el sur. La «entrada sur» expresa la entrada para conductores de vehículos viajando hacia el norte.

5.1.1.2. Método exacto

El segundo método, más exacto, debe utilizarse cuando exista disponible una vista en tres dimensiones de la boca del túnel. En este método la evaluación de la luminancia media de la zona de acceso L_{20} se obtiene a partir de un croquis de los alrededores de la entrada del túnel y se calcula mediante la fórmula siguiente.

$$L_{20} = aL_c + bL_R + cL_E + dL_{th}$$

Donde:

— L_c = Luminancia del cielo

a = % de cielo.

— L_R = Luminancia de la carretera

b = % de la carretera.

— L_E = Luminancia de los alrededores

c = % de los alrededores.

— L_{th} = Luminancia de la zona de umbral del túnel

d = % de la entrada del túnel.

Verificándose que:

$$a + b + c + d = 1$$

100 m-tik gorako segurtasun distantzietan (SD), (d)-ren balioa txikia da ($d < \%10$) eta atalaseko aldearen L_{th} luminantzia txikia denez aire zabaleko beste luminantzia-balio batzuekiko, balioa gal dezake L_{th} -ren ekarpenak.

60 m-ko segurtasun-distantzia batean, honako adierazpen hau ezar daiteke:

$$L_{20} = \frac{aL_C + bL_R + cL_E}{1+k}$$

Nor:

$$k = L_{th}/L_{20}$$

k faktorearen balioak 5.2.1. taulan ezarri dira, eta faktore horrek 0,1eko balioa inoiz gainditzen ez duenez, honelaxe gelditzen da formula:

$$L_{20} = aL_C + bL_R + cL_E$$

Ondokoa kontuan izanik:

$$a + b + c < 1$$

a, b eta c finkatzea ezinezkoa denean, 5.1.1.3 irudian jasotako tuneletan sartzeko 8 diseinuren bildumarekin konparatuta egin daiteke ebaluazioa; izan ere, irudi horietan gidariak tunelaren sarreran duen ikuspeneko zeru-portzentajeak agertzen dira.

L_C , L_R eta L_E -ren tokiko balio zehatzik egon ezean, ondoko taularen bidez lor daitezke, non balio horiek Kcd/m^2 -tan adierazten diren ($103 cd/m^2$).

5.1.1.2. Taula – Zeruko, errepideko eta inguruetako luminantzien balioak (Kcd/m^2)

Tunel zuloaren norabidea	Zerua Errepidea		L_E (inguruak)			
	L_C	L_R	Harkaitzak	Eraikinak	Elurra	Zelaiak
I	8	3	3	8	15 (V)/15(H)	2
E-M	12	4	2	6	10 (V)/15(H)	2
H	16	5	1	4	5(V)/15(H)	2

Oharra: (V) Azalera bertikalak; (H) Azalera horizontalak.

5.1.1.3. Metodoen erabilera

Hurbiltze-metodoaren 5.1.1.1. taularen erabilera errazteko, tunelearen sarreraren zortzi eredu bilduma bat erantsi da (5.1.1.3. irudia). Diseinu horien oinarriak argazkiak dira, eta marrazki bakoitzaren gainetik jarriko dira 20 graduko ikuspen-eremu konikoan, sarrerako L_{20} luminantzia definituz. Diseinu bakoitzean, zeruko portzentajea agertzen da 20 graduko eremuaren barruan tuneleko sarrerako segurtasun distantziarekin batera; izan ere, sarreratik hartu zen hasieran argazkia.

Edozein tuneletako sarrerako L_{20} luminantziaren balioa izateko ekarpena egiten duen zeruko portzentajearen balioa zein den jakiteko, argazki bat atera beharko litzateke segurtasun distantzia hasten den puntutik, eta horren gaineko benetako neurriren bat eza gutuz gero, adibidez tunelaren altuera, 20 graduko konoaren diametroa finka liteke argazkian.

Tunela egiteke badago oraindik, zeruaren lerroan ateratako argazkia edo eskalara eginiko marrazkia erabil daiteke, baina ez litzateke aldatu behar tunelaren eraikuntzak irau bitartean. Argazkia edo marrazkia, orduan, bereziki beharuriko zeruko portzentajearen balioetatik hurbilen duen diseinuarekin konpara daiteke (1 - 8. irudiak).

Zeruko portzentajea 5.1.1.1. taulan agertzen diren balioen artean badago, orduan beharrezkoa da interpolatzea sarrerako L_{20} luminantziaren balioa lortzeko. Aipaturiko taula hori erabiliz lortu diren L_{20} balioak gutxi gorabeherakoak dira, eta tuneleko sarrerari buruzko informazio oso mugatua denean gomendatzen da balio horiek erabiltzea.

Tunelean sartzeko nahikoa informazio dagoenean erabili behar da L_{20} finkatzeko metodo zehatza. Tunel bateko argiztapenaren gaineko proiektua egiteko modurik onena, praktikan, sarrerako L_{20} luminantziaren balioaren hasierako kalkulua egitea da hurbiltze-metodoaren 5.1.1.1. taula erabiliz, baina argiteriaren azken diseinua metodo zehatzaren bidez egin beharko da.

Para distancias de seguridad (DS) superiores a 100 m, el valor de (d) es pequeño ($d < 10\%$) y como la luminancia de la zona de umbral L_{th} es baja respecto a otros valores de luminancia a cielo abierto, puede desprejarse la contribución de L_{th} .

Para una distancia de seguridad (DS) de 60 m se puede establecer la siguiente expresión:

$$L_{20} = \frac{aL_C + bL_R + cL_E}{1+k}$$

Siendo:

$$k = L_{th}/L_{20}$$

Como el factor k, cuyos valores se establecen en la tabla 5.2.1, nunca excede de 0,1 la fórmula anterior queda de la siguiente forma:

$$L_{20} = aL_C + bL_R + cL_E$$

Teniendo en cuenta que:

$$a + b + c < 1$$

Cuando la determinación de a, b y c no resulta factible, pueden evaluarse por comparación con la colección de 8 diseños de entrada de túneles de la figura 5.1.1.3, que muestran los porcentajes de cielo en la visión del conductor para la zona de acceso.

En el caso de no disponer de valores locales exactos de L_C , L_R y L_E , pueden obtenerse mediante la Tabla siguiente, en la que dichos valores se expresan en Kcd/m^2 ($103 cd/m^2$).

Tabla 5.1.1.2 – Valores de las luminancias de cielo, carretera y alrededores (Kcd/m^2)

Dirección de conducción	Cielo Carretera		L_E (alrededores)			
	L_C	L_R	Rocas	Edificios	Nieve	Praderas
N	8	3	3	8	15 (V)/15(H)	2
E-O	12	4	2	6	10 (V)/15(H)	2
S	16	5	1	4	5(V)/15(H)	2

Nota: (V) Superficies verticales; (H) Superficies horizontales.

5.1.1.3. Uso de dos métodos

Para facilitar el uso de la tabla 5.1.1.1 del método de aproximación se incluye una colección de ocho diseños de entradas de túneles (figura 5.1.1.3). Estos diseños se basan en fotografías y se superponen a cada dibujo en el campo de vista cónico de 20° , definiendo la luminancia de la zona de acceso L_{20} . Bajo cada diseño aparece el porcentaje de cielo dentro del campo de 20° , junto con la distancia de seguridad a la entrada del túnel, desde la cual se tomó originariamente cada fotografía.

Para estimar el valor de porcentaje de cielo que contribuye al valor de la luminancia de la zona de acceso L_{20} en la entrada de cualquier túnel, debería sacarse una fotografía desde el punto donde se inicia la distancia de seguridad y conociendo alguna dimensión real de la misma, por ejemplo, la altura del túnel, podría determinarse el diámetro del cono de 20° en la fotografía.

Si el túnel no está todavía construido, entonces podría utilizarse una fotografía sacada a lo largo de la línea del cielo, o un dibujo a escala, que debería no alterarse durante la construcción del túnel. La fotografía o el dibujo puede entonces compararse con el diseño (figuras 1 a 8) que se parezca más a los valores del porcentaje de cielo observados particularmente.

Cuando el porcentaje de cielo se sitúa entre los valores de la Tabla 5.1.1.1, entonces es necesario interpolar para obtener el valor de la luminancia de la zona de acceso L_{20} . Los valores L_{20} obtenidos utilizando dicha tabla son muy aproximados y se recomienda su uso cuando la disponibilidad de información de la entrada del túnel sea muy limitada.


El método exacto para determinar L_{20} debe utilizarse cuando se dispone de suficiente información de la entrada del túnel. En la práctica, el mejor sistema de operar, a la hora de proyectar la iluminación de un túnel, es realizar una estimación inicial del valor de la luminancia de la zona de acceso L_{20} utilizando la Tabla 5.1.1.1 del Método aproximado, pero el diseño final del alumbrado debe realizarse mediante el Método exacto.

Komenigarria da segurtasun nahikoa dakarren maila definitzea, betiere kostuaren benetako beharretara egokituta. Tunelaren barruko argiztapen-maila definitzeko ikuspen irizpide zorrotzak erabiliko balira soilik, nahikoak ez diren balioak izango genituzke; segurtasun neurriak dira, hain zuzen, lehenago aipaturikoak baino maila handiagoak dakartzatenak. Argiztapen atalaseen maila horiek handiagoak dira trafiko dentsitate handiagoak dauden hiri-tuneletan.

Es conveniente definir el nivel adecuado que, ajustándose a las necesidades reales de costo, suponga tener la suficiente seguridad. Si se utilizasen solamente estrictos criterios de visibilidad para la definición del nivel de iluminación en el interior del túnel, se llegaría a valores insuficientes; son las medidas de seguridad, las que imponen unos niveles superiores a los antes mencionados. Hay que señalar que estos niveles de umbral de iluminación son mayores en los túneles urbanos donde las densidades de tráfico son más elevadas.

5.1.1.3 irudia – Zeruko portzentajeak gidariaren ikuspenean

Fig. 5.1.1.3 – Porcentajes de cielo en la visual del conductor



Honako hauen arabera aldatzen dira egokitapen-luminantziako balioak tuneleko ardatzean zentraturiko 20 graduko eremuan, sarrerako ahoetan erreferentziatzat jotzen direnak: gelditzeko distantziaren, ikuspen-eremuko luminantziaren intentsitatearen eta 20 graduko ikuspen-eremuko zeruko portzentajearen arabera; gutxieneko balioak 1.500 cd/m²-koak eta gehienekoak, berriz, 7.500 cd/m²-koak dira. 5.1.1.3 taulak ikusizko inguruaren baldintzen araberako balioak ematen ditu.

Los valores de luminancia de adaptación en el campo de 20° centrado en el eje del túnel, que se toman de referencia en las bocas de entrada varían con la distancia de parada, con la intensidad de iluminación en el campo de visión y con el porcentaje de cielo en el campo de visión de 20°, con valores mínimos de 1500 cd/m² y máximos de 7500 cd/m². La tabla 5.1.1.3 indica unos valores en función de las condiciones del entorno visual.

5.1.1.3. Taula – Egokitapen-luminantziak, ikuspen-eremuaren baldintzen arabera

Tabla 5.1.1.3. – Luminancias de adaptación según las condiciones del entorno visual

Ikuspen-eremuaren baldintzak	Luminantzia (cd/m ²)
Zeruak edo luminantzia altuko eremuak hartzen dute ikuspen-aldearen %60 baino gehiago.....	7.000
Tunelaren ahoa eta ingurua gune irekietan daude kokatuta, hegoalderantz. Ikuspen-eremuaren %50 baino gehiago hartzen du zeruak edo azalera argiak.....	6.000
Sarrerako aldea garbi dago eta ahokaduran obra-azalera argia du, baita zoladura ere. Ikuspen-eremuaren %40 baino gehiago hartzen du zeruak edo azalera argiak.....	5.000

Condiciones del entorno visual	Luminancia (cd/m ²)
Más del 60% del área de visión está ocupada por el cielo o superficies con alta luminancia.....	7.000
La embocadura del túnel y su entorno están localizados en un entorno abierto y orientados hacia el Sur..... Más del 50% del campo de visión está ocupada por el cielo o superficies con alta luminancia.....	6.000
La zona de entrada se encuentra despejada y en la embocadura presenta una gran superficie de obra clara, así como el pavimento. Más del 40% del área de visión está ocupada por el cielo o superficie clara.....	5.000


Ikuspen-eremuaren baldintzak	Luminantzia (cd/m ²)
Ikuspen-eremuaren %25 baino gehiago hartzen du zeruak edo luminantzia altuko azalerek. Tunelaren ahokadura eta inguruak nahikoa toki irekian daude koka-tuta, hego-sortaldera edo hego-sartaldera bideratuta gutxienez 25°-tan. Hiri guneetako tunelak oro har.....	4.000
Ez dago ikuspen-eremu oso azalera argitsurik –zerua, adibidez– proportzio txikian ez bada. Tunelaren ahokadura malda handiko magalekin edo alde bietan basoekin inguratutik. Hiri guneetako tunelak, ahokaduretan eraikin altuekin inguratutik. Tunelaren ahokaduretan eguzki argiak zuzenean eragiten ez duen inoiz, edozein urtaro izanda ere.	3.000
Mendiko tuneleko ahokadura, iparraldera bideratuta eta alboetan landarez beteriko magalekin; ikuspen-eremu horretan luminantzia baxuko azalera daude soilik.....	2.000

Condiciones del entorno visual	Luminancia (cd/m ²)
Más del 25% del área de visión está ocupada por el cielo o superficies con alta luminancia. La embocadura del túnel y su entorno están localizados en una zona bastante abierta y orientada al sudeste o sudoeste por lo menos 25°. Túneles en áreas urbanas en general.....	4.000
No existen en el campo de visión superficies muy luminosas como cielo, mas que en muy pequeña proporción. La embocadura del túnel se encuentra flanqueada por laderas de pendiente acentuada o bosque a ambos lados. Túneles en áreas urbanas con la embocadura rodeada de altos edificios. Túneles localizados de tal manera que sobre su embocadura no pueden incidir directamente la luz solar en ningún momento ni época del año.....	3.000
Embocadura del túnel de montaña orientada hacia el Norte y flanqueada por laderas cubiertas de vegetación, en cuyo campo de visión solo existen superficies de baja luminancia.....	2.000

5.1.1.4. Hautemandako kontraste metodoa

Metodorik zehatzena hautemandako kontrastearena da, CIE-88aren azken berrikuspenean adierazten denaren arabera, baina zailtasun bat du, hau da, errezel-luminantzia atmosferikoen eta haizetakoarenaren benetako balioak zein diren jakitea, baita errezel-luminantzia baliokidearena zein den jakitea ere. Eszenako luminariak ondoko irudian jaso dira:

5.1.1.4. irudia



Balaztatzeko distantziatik hautemandako oztupoaren kontrastea, objektuaren luminantzia hautemanaren ($L_{o,p}$) eta galtzadaren luminantzia hautemanaren ($L_{r,p}$) araberakoa da:

$$C_{\text{percibido}} = \frac{L_{o,p} - L_{r,p}}{L_{r,p}}$$

Komenigarria da eskatutako gutxieneko kontrastea %28koa izatea.

$$L_{o,p} = \tau_{WS} \cdot \tau_{atm} \cdot L_{o,intrinseco} + \tau_{WS} \cdot L_{atm} + L_{WS} + L_{seq}$$

$$L_{r,p} = \tau_{WS} \cdot \tau_{atm} \cdot L_{r,intrinseco} + \tau_{WS} \cdot L_{atm} + L_{WS} + L_{seq}$$

Non:

ζ_{WS} : haizetakoaren transmisio-faktorea, 0,8ko balioarekin, tokiko datu eskuragarriak ez badago.

τ_{WS} : transmisio-faktore atmosferikoa, 1,0eko balioarekin, tokiko datu eskuragarriak ez badago.

L_{atm} : Errezel atmosferikoaren luminantzia.

L_{WS} : Haizetakoaren atmosferikoaren luminantzia.

L_{seq} : Errezel luminantzia baliokidea.

Errezel atmosferikoaren luminantzien balio tipikoak eta haizetakoarenak honakoak dira:

5.1.1.4. Taula


Errezel-mailak	Altua	Ertaina	Baxua
Errezel atmosferikoaren luminantzia (cd/m ²)	300	200	100
Haizetakoaren errezel luminantzia (cd/m ²)	200	100	50

Ikuspegi-eremuko azalera luminantziarik handiena duen errezel luminantzia baliokidearen kalkuluak (L_{seq}) atalaseko argizta-

5.1.1.4. Método de contraste percibido

El método más preciso es el del contraste percibido, según se enuncia en la última revisión de la CIE-88, aunque presenta la dificultad de conocer los valores reales de luminancias de velo atmosférica y del parabrisas, así como de la luminancia de velo equivalente. Las luminarias de la escena se presentan en la siguiente figura:

Fig. 5.1.1.4.



El contraste del obstáculo percibido desde la distancia de parada es función de la luminancia percibida del objeto ($L_{o,p}$) y de la luminancia percibida de la calzada ($L_{r,p}$):

$$C_{\text{percibido}} = \frac{L_{o,p} - L_{r,p}}{L_{r,p}}$$

Se recomienda que el contraste mínimo requerido sea del 28%.

$$L_{o,p} = \tau_{WS} \cdot \tau_{atm} \cdot L_{o,intrinseco} + \tau_{WS} \cdot L_{atm} + L_{WS} + L_{seq}$$

$$L_{r,p} = \tau_{WS} \cdot \tau_{atm} \cdot L_{r,intrinseco} + \tau_{WS} \cdot L_{atm} + L_{WS} + L_{seq}$$

Donde:

ζ_{WS} : factor de transmisión del parabrisas, con valor de 0,8 a falta de datos locales disponibles.

τ_{WS} : factor de transmisión atmosférico, con valor de 1,0 a falta de datos locales disponibles.

L_{atm} : Luminancia de velo atmosférica.

L_{WS} : Luminancia de velo del parabrisas.

L_{seq} : Luminancia de velo equivalente.

Altuera libreko tamaina handia du. Onena zirkulazio bideen gainean kokatzen da.

10.1.1.a.1. irudia – Ganga-formako tunela, luminariak zirkulazio bideen gainean (segurtasun-distantzia: 0,10 m)



Hona hemen abantailak:

- Aparatuak ahalik eta erabilera-faktorik onena dute; izan ere, fluxua simetrikoki bana daiteke galtzadaren zeharkako planoan, halako moldez non banaketa homogeenagoa eta hobeto lortzen baita. Gainera, ikuspen-erosotasun handiagoa ematen zaie erabiltzaileei.
- Itsualdi txikia da alboan jarritako aparatuekin alderatuta; horri esker, aparatuek askoz modu malguagoan jar daitezke presio altuko sodio-lanparen kasuan. Hala, errendimendua hobetu egingo da.

Instalazio-mota honek, bestalde, eragozpen praktikoak ditu:

- Argi-ilarak zenbait ekiporen bidez pasatzea (erauzgailuak, seinaleztapen-panelak, etab.).
- Luminarietara iristeko erraztasuna mantentze-lanetan.
- Zenbait kasutan burdinaria kantitate handia hornitu beharra (esekidura luzeak); kopuru hori txikitu egin daiteke aparatuek hormaren kontra kokatuz gangaren alboetan.

Tunelak trafiko intentsitate txikia badu, arrazoi ekonomikoak direla-eta, sekzioaren erdian aparatuen ilara bakarra jartzea planteatu daiteke, irudiak erakusten duenez.

Se distinguen dos categorías de secciones:



- Secciones abovedadas.
- Perfiles cuadrados.

10.1.1. Túneles de perfil abovedado

a) Sin falso techo de ventilación:

Dispone de un volumen importante de altura libre. La mejor implantación es situarlas encima de las vías de circulación

Fig 10.1.1 a.1 – Túnel abovedado, luminarias encima de las vías de circulación (distancia de seguridad 0,10 m)



Las ventajas son las siguientes:

- Los aparatos presentan el mejor factor de utilización posible; en efecto el flujo puede estar distribuido de manera simétrica dentro del plano transversal de la calzada, de manera que se obtiene un reparto homogéneo y optimizado, aportando igualmente un mejor confort visual para los usuarios.
- El deslumbramiento es reducido en comparación con una implantación lateral, lo que permite en el caso de lámparas de sodio a alta presión una alineación de aparatos mucho menos severa que conducen a mejorar el rendimiento.

Este tipo de instalación presenta por otra parte, inconvenientes de orden práctico:

- Paso de filas luminosas a través de ciertos equipos (extractores, paneles de señalización, etc.).
- Acceso a las luminarias en operaciones de mantenimiento.
- Necesidad de proveer en ciertos casos de un volumen de herrajes importante (suspensiones de gran longitud) lo cual se puede reducir situando los aparatos contra la pared en los laterales de la bóveda.

Por razones económicas cuando el túnel tiene una intensidad de tráfico poco densa se puede plantear la instalación de una sola fila de aparatos en el medio de la sección como se muestra en la figura.

10.1.1 a.2. irudia – Ganga-formako tunel estua; ilara albo baterantz mugiturik egon daiteke bide azkarraren gainean (luminariarekiko segurtasun-distantzia: 0,10 m)





Fig 10.1.1 a.2 – Túnel abovedado estrecho, la fila puede estar desplazada lateralmente encima de la vía rápida (distancia de seguridad a luminarias 0,10 m)




Aurreko irtenbidearekiko abantaila nagusia kostua da; kostu txikiagoa da inbertsioan eta ustiapenean.

Instalazioa mantentzeko tunel-zuloa itxi behar izaten da oro har; horixe da eragozpen nagusia. Zirkulazioa ezin bada beste tunel-zulo batetik edo ibilbide paralelo batetik desbideratu, baliteke ustiapenaren zailtasun horien ondorioz beharrezkoa izatea gailuen lerroa albo batean jartzea. Aukera hori ez da komenigarria bi noranzkoko tuneletarako.

b) Aireztapeneko sabai aizunarekin

Baldin eta zirkulazio bideen gainean dagoen gunerik erabilgarria nahikoa bada, aurreko kasuen moduan jokatu da, irudiak erakusten duen bezala:

10.1.1.b.1 irudia – Nahikoa altua den sabai aizuneko tunela, aparatuak zirkulazio bideen gainean (segurtasun-distantzia: 0,10 m)



Azpimarratzekoa da mesedegarria dela luminariak lerrokatzean nolabaiteko ganga-itxurarekin jartzea. Kasu honetako eragozpenak eta abantailak aurreko atalean agertzen diren berberak izango dira, zirkulazio-bidean bi ilara edo ilara bakarra jartzearen arabera.

Baldin eta zirkulazio bidearen gainean dagoen tokia nahikoa ez bada, albo batean jarriko da, baina horretarako babeseko alboko 0,25eko atzeraeramangunea behar da, ondoko irudian agertzen den bezala.


La principal ventaja con relación a la solución precedente es el coste inferior tanto en inversión como en explotación.

El inconveniente principal reside en que el mantenimiento requiere generalmente el cierre del tubo considerado. Si no se puede desviar la circulación sobre otro tubo o sobre un itinerario paralelo, estas dificultades de explotación pueden imponer la fijación lateral de la línea de aparatos. Esta solución es desaconsejable para túneles bidireccionales.

b) Con falso techo de ventilación

En el caso de que el espacio disponible por encima de las vías de circulación sea suficiente se realizará la disposición similar a los casos precedentes, como muestra la figura:

Fig 10.1.1.b.1 – Túnel con falso techo suficientemente alto, aparatos encima de las vías de circulación (distancia de seguridad 0,10 m)



Conviene hacer notar la ventaja que presenta a la hora de alinear las luminarias, el situarlas ligeramente abovedadas. Las ventajas e inconvenientes que se presentan según sea la disposición de dos hileras sobre las vías de circulación o una hilera central son evidentemente las mismas que las enunciadas en el apartado anterior.

En el caso de que el espacio disponible por encima de las vías de circulación no sea suficiente se realizará una instalación lateral que necesita un retranqueo lateral de protección de 0,25 m, tal y como se muestra en la figura.

10.1.1.b.2. irudia – Sabai aizuna duen tunela, bi aldeko instalazioa





Fig 10.1.1.b.2 – Túnel con falso techo, instalación bilateral



Hauexek dira funtsezko abantailak:

- Abantaila nabarmena tunelaren guztizko sekzioaren gainean.
- Oso mantentze erraza (erraz iristeko tokian daude luminariak, lan egiteko kokapena errazago erabiltzeko modua, neutralizatu beharreko zirkulazio bakarra).

Hona hemen eragozpen nagusiak:

- Zirkulazio bideen gaineko instalazioa bezain ona ez den erabilera-faktorea.
- Presio altuko sodio-lurrineko lanparek erabiltzaileek eragindako itsualdia saihesteko zailtasuna; horren ondorioz, lumenak eramateko aparatu handiekin parekatu behar dira aparatuak eta, hala, instalazioaren errendimendua txikitzen da.

Las ventajas esenciales que se presentan son:

- Una ganancia sensible sobre la sección total del túnel.
- Un mantenimiento muy simple (luminarias fácilmente accesibles, posición de trabajo mas manejable, uno sola vía de circulación a neutralizar).

Los inconvenientes principales son:

- Un factor de utilización no tan bueno como una instalación por encima de las vías de circulación.
- La dificultad de evitar el deslumbramiento de los usuarios por las lámparas de sodio a alta presión, lo que puede conducir a equipar los aparatos con parálumenes considerables y disminuir así el rendimiento de la instalación.

10.1.2. **Profil karratuko tunelak**

Aurrekoaren antzeko kasua dugu hau, eta sabai aizuna duen ganga-formako profilerako ezarritako irtenbide berak izango dira.

Garaiera librearen gainetik nahikoa tokirik ez badago luminariak zirkulazio bidearen gainean jartzeko, albo batean jartzea izango da irtenbidea.

10.1.2. **Túneles de perfil cuadrado**

Este caso es similar al precedente y las soluciones son las mismas que para el perfil abovedado con falso techo.

Cuando no se dispone de un espacio suficiente por encima de la altura libre para instalar las luminarias sobre las vías de circulación, la solución consiste en una implantación lateral.

10.1.2.1. irudia – Profil karratua, bi aldeko instalazioa





Fig 10.1.2.1 – Perfil cuadrado instalación bilateral




Bi aldeko instalazioa agertzen da irudian; irtenbide honen abantailak eta eragozpenak, jakina, sabai aizunean aireztapen-

La figura muestra una instalación bilateral, las ventajas e inconvenientes para esta solución son evidentemente las mismas que

hodiak dituen ganga-itxurako sekzioko aipaturiko berberak izango dira.

Galtzadak bi bide baino gehiago ez baditu, baliteke albo bateko instalazioaren proiektua egitea, irudian ikusten den bezala.

10.1.2.2. irudia – Profil karratua, alde bateko instalazioa



Norabide bakarrekotuneletan hobe da aparatua ezkerrean jartzea, ibilgailu astunen trafikoak eragindako mozorro-efektua saihesteko.


Bi aldeko instalazioarekin alderatuta duen funtsezko abantaila askoz merkeagoa izatea da. Ez dira tunel luzeetan erabili behar, galtzadaren mailan argiztapen-mailaren zeharkako uniformetasuna lortzeko zailtasuna dagoela-eta.

Nahikoa profil altua izanez gero, zirkulazio bideen gainetik jarri ahal izango dira luminariak, irudian ikus daitekeen bezala.

las mencionadas para la sección abovedada con conductos de ventilación en el falso techo.

Si la calzada no presenta más de dos vías es posible proyectar una implantación unilateral según se muestra en la figura.

Fig 10.1.2.2 – Perfil cuadrado, instalación unilateral




Para los túneles unidireccionales es preferible poner los aparatos a la izquierda, a fin de evitar el efecto de enmascaramiento producido por el paso de los vehículos pesados.

La ventaja esencial sobre la solución bilateral es el coste sensiblemente inferior. No debe usarse en túneles largos por razones de dificultad en obtener una uniformidad transversal de la iluminación a nivel de calzada.

En el caso de disponer de un perfil suficientemente alto se podrán instalar las luminarias por encima de las vías de circulación según se muestra en la figura.

10.1.2.3. irudia Nahikoa altua den profil karratua; aparatua zirkulazio bideen gainean daude



Luminariak jartzeko sistema behin betiko hautatzerako orduan, kontuan izan behar da tuneleko instalazioko bestelako ekipobatzuen finkapena, eta, bereziki, seinaleztapeneko elementuak.


10.2. Fluxu asimétriko edo kontrafluxuko luminariak

Aipaturiko sistema horri esker, nahitaez jarri beharko dira luminariak zirkulazio bideen gainetik erabiltzaileei itsualdirik ez eragiteko, betiere sor litzaketen auto-ilarak kontuan izanik.

Arazoa garrantzitsua da batez ere sekzio karratuko edo antzeko sekzioko tuneletan. Aparatuen 0,4 m-ko gehieneko altueran jarri ahal izango dira, finkapenak barne. Sabai aizunik ez duten ganga-itxurako tuneletan nahikoa izango da egon dagoen tokia luminariak zailtasun handi barik jartzeko.

Bideen gainean nahikoa tokirik ez duten tuneletan, luminariak sekzioaren bazterretan jarri behar badira galtzadaren ardatzarekiko errotazioarekin, itsualdia onartezina izango da kasu guztietan.

Fig 10.1.2.3 Perfil cuadrado suficientemente alto, aparatos encima de las vías de circulación



La elección definitiva de la implantación de luminarias debe tener en cuenta la fijación de otros equipos constituyentes de la instalación interior del túnel y en particular los elementos de señalización.

10.2. Luminarias de flujo asimétrico o a contraflujo

Con este sistema las luminarias serán instaladas obligatoriamente por encima de las vías de circulación para evitar el deslumbramiento de los usuarios, teniendo en cuenta los posibles embotellamientos a que pudiera dar lugar.

El problema es sobre todo importante en los túneles de sección cuadrada o similar. Se podrán fijar sobre una altura máxima de 0,4 m de los aparatos incluyendo las fijaciones. En los túneles abovedados sin falso techo el espacio disponible es suficiente para permitir su implantación sin grandes dificultades.

En los túneles donde no hay espacio suficiente sobre las vías y la colocación de las luminarias tenga que ser en las esquinas de la sección con una rotación hacia el eje de la calzada, el deslumbramiento producido será inaceptable.

10.2. irudia – Oinarrizko argiztapen simetrikoa duten tunelak eta kontrafluxuko sistema indartuta

Fig. 10.2 – Túnel con iluminación básica simétrica, y refuerzo a contraflujo



11. MANTENTZE-LANAK

Argiztapenari buruzko azterlanean erabiltzen den mantentze-faktoreak, normalean, luminariaren (zikintzea) eta lanpararen (argi-fluxua) balio galera estaltzen du. Balio orokortzat 0,7 har daiteke.

Tunelak poluzio atmosferiko handiko instalazioak dira, eta hala-koetan oso garrantzitsua da garbiketa-zikloak zehaztuko duen mantentze-programa izatea (hormak eta luminariak garbitzea), azterlanean ezarritako faktorea bete ahal izateko.

Herri argiteriako instalazio baten ezaugarriak eta prestazioak, denboraren joan-etorriarekin, aldatu eta kaltetu egiten dira. Instalazioak behar bezala ustiatzeari eta mantentzeari esker, ahalik eta funtzionamendurik onena ziurtatzen du eta zeharkako aurrezkia lor daiteke. Izan ere, horrela egin ezean, kontsumituriko energiaren zati handi bat (guztizkoaren %30 - %50) lanparak zahartu izana eta argiteriako aparatuetako sistema optikoak eta itxierak (errefraktoreak eta hedatzaileak) zikindu izana konpentsatzeko erabiliko litzateke argi-energia bihurtu beharrean, hots, erabiltzaileari zerbitzua emango litzaiokie.

Halaber, ekintza bandalikoan, trafiko-istripuetako kolpeen, haizeak eragindako dardaren, irradiazio ultramoreak argiteriako aparatuen plastikozko itxieretan duen eraginaren, korrosioaren eta abarren ondoriozko kalte mekanikoak ere izan beharko dira kontuan. Azkenik, akats elektrikoak zaindu beharko dira; izan ere, honako hauek izan daitezke akats horien eragileak: gehienetan herri argiteriako instalazioetako osagaiak, eroaleak eta sare elektrikoak zahartzea, kontaktu elektrikoak oxidatzea eta lasaitzea, dispositiboetako eta lurrarekiko instalazioko sistemetak akatsak, lanen ondoriozko eroale-hausturak, lur-lerradurak, etab.

Era horretako instalazioak behar bezala mantendu behar dira nahitaez, honako arrazoi hauek direla eta: era horretako instalazioak aire zabalean jartzen direlako, horietako zati batzuk eskuragarri egoteak eragiten dituen arriskuengatik eta instalazio horiek bide-segurtasunaren eta pertsonen eta ondasunen segurtasunaren arloan betetzen duten eginkizun garrantzitsuagatik.

Hortaz, denboraren joan-etorriarekin herri argiteriako instalazioak kaltetu ez daitezen, mantentze bikoitza burutuko da. Alde bate-tik, mantentze prebentiboa, non zenbait jarduketa sistematikoko egingo baitira instalazioetan; bestetik, mantentze zuzentzailea, matxuraturiko instalazioak edo behar bezala funtzionatzeari utzi dioten instalazioak aldatzeko beharrezko hainbat eragiketa burutzeari dagokiona. Baldin eta mantentze prebentiboa behar bezala eta erregulartasunez egiten bada, mantentze zuzentzaileari dagozkion eragiketak ez dira hain garrantzitsuak izango eta ez dira hain maiz egingo.

Honako jarduera hauek barne hartuko dituzte mantentze prebentiboko lanek:

- Lanparak masiboki aldatzea.

11. MANTENIMIENTO

El factor de mantenimiento utilizado en los estudios de iluminación cubren normalmente la depreciación de luminaria (ensuciamiento) y lámpara (pérdida de flujo luminoso). Como valor típico se puede adoptar 0,7.

En el caso de los túneles que son instalaciones con un alto grado de polución atmosférica, es muy importante disponer de un programa de mantenimiento (limpieza de paredes y luminarias) que defina los ciclos de limpieza que permitan cumplir el factor establecido en el estudio.

Las características y las prestaciones de una instalación de alumbrado público se modifican y se degradan en el transcurso del tiempo. Una correcta explotación y un buen mantenimiento permiten conservar la calidad de la instalación, asegurar el mejor funcionamiento posible y conseguir un ahorro indirecto, pues de no llevarse a cabo, una proporción importante de la energía consumida —entre un 30 y un 50% del total— se utilizará en compensar el envejecimiento de las lámparas, el ensuciamiento de los sistemas ópticos y cierres (refractores y difusores) de los aparatos de alumbrado, en lugar de traducirse en energía luminosa es decir, en servicio al usuario.

Asimismo, hay que tener en cuenta los desperfectos mecánicos cuyo origen se debe a actos de vandalismo, golpes ocasionados por accidentes de tráfico, fenómenos de vibraciones debidas a la acción del viento, efectos de la radiación ultravioleta sobre los cierres de plástico de los aparatos de alumbrado, acciones de la corrosión, etc. Por último, se deben contemplar los fallos eléctricos cuyas causas más frecuentes hay que encontrarlas en el envejecimiento de los diferentes componentes de la instalación de alumbrado público, conductores y distintas redes eléctricas, en la oxidación y aflojamiento de los contactos eléctricos, defectos en los dispositivos y sistemas de puesta a tierra, a las rupturas de conductores debidas a trabajos, deslizamientos de terreno, etc.

La peculiar implantación de este tipo de instalaciones a la intemperie, el riesgo que implica que parte de sus elementos sean fácilmente accesibles, así como la función importante que dichas instalaciones desempeñan en materia de seguridad vial, así como de las personas y los bienes, obligan a establecer un correcto mantenimiento de las mismas.

Por tanto, al objeto de evitar la degradación de las instalaciones de alumbrado público en el transcurso del tiempo, se realizará un adecuado doble mantenimiento, el denominado preventivo que establecerá una programación en el tiempo consistente en efectuar sobre las instalaciones un cierto número de intervenciones sistemáticas, y el mantenimiento correctivo, que comprenderá una serie de operaciones necesarias para reponer las instalaciones averiadas o que han sufrido deterioro a un correcto estado de funcionamiento. Cuando se lleve a cabo correctamente y de forma regular el mantenimiento preventivo, las operaciones de mantenimiento correctivo serán menos importantes y frecuentes.

Los trabajos de mantenimiento preventivo comprenderán los siguientes:

- Reposición masiva de lámparas.

- Luminariak egiaztatzea, artatzea eta garbitzea.
- Ekipo osagarriak egiaztatzea eta artatzea.
- Euskarriak egiaztatzea eta artatzea.

Trafiko istripuaren, ekintza bandalikoaren eta abarren ondorioz kalteturiko edozein material aldatzean dautza mantentze zuzentzaileari dagozkion eragiketak, baita herri argiteriako instalazioko elementuen akats elektrikoek edo mekanikoek eragindako matxurak lehenbailehen konpontzean ere.

11.1. Mantentze prebentiboaren programazioa

Ondorengo hauek kontuan izanik egingo da mantentze prebentiboaren programazioa: deskarga-lanparen batez besteko iraupena, argi-fluxuaren balio galera iragandako batez besteko iraupenaren ehunekoaren arabera eta luminarien zikinkeria hermetikotasunaren eta kutsadura atmosferikoaren mailaren arabera, euskarriak margotuta egotea, koadro elektrikoak egiaztatzea eta berrikustea, etab.

Ondorengo programazioa barne hartuko du mantentze prebentiboak, bertan agertzen diren eragiketen aldizkakotasunarekin:

1. Lanparak:

- 24 orduz eta etengabe dabilzan instalazioetako aldaketak, 1-2 urtean behin.
- Gauetz dabilzan instalazioetako aldaketak, 2-4 urtean behin.

2. Ekipo osagarriak:

- Argiztapen-mailak erregulatzeko sistemak egiaztatzea (linea-buruko erregulatzailak eta maila bikoitzeko balastoak), sei hilean behin.
- Ekipo osagarriak masiboki aldatzea (balastoak, arrankatzeko gailuak eta kondentsatzaileak), 6-8 urtean behin.

3. Luminariak:

- Sistema optikoa eta itxiera garbitzea (erreflektorea, difusorea), urtean behin edo bi urterik behin.
- Konexioak eta oxidazioa kontrolatzea, lanpara aldatzen den aldi bakoitzean.
- Finkapen-sistema mekanikoak kontrolatzea, lanpara aldatzen den bakoitzean.
- Linearen lurrarekiko linearen jarraikortasuna egiaztatzea, urtean behin.
- Lurreko konexioaren sistema orokorra kontrolatzea, urtean behin.
- Konexioak aztertzea, urtean behin.
- Eroaleen isolamendua egiaztatzea, urtean behin.

4. Euskarriak:

- Korrosioaren kontrola (barnekoa eta kanpokoak), urtean behin.
- Deformazioen kontrola (haizea, talkak), urtean behin.
- Altzairu galvanizatuzko euskarriak (lehenbiziko aldiz margotuta), 15 urtean behin.
- Altzairu galvanizatuzko euskarriak (hainbat aldiz margotuta), 7 urtean behin.
- Altzairu margotuzko euskarriak, 5 urtean behin.

Baldin eta lanparak aldatzea eta luminariak garbitzea batera egiten badira, bi eragiketok aldi berean burutuko dira. Lanpara gehienak eta aldi berean aldatzeko eta luminariak garbitzeko lana osatzeko, konexioak kontrolatuko dira eta ekipo osagarriaren funtzionamendua egiaztatuko da.

11.2. Mantentze-lan zuzentzailea

Herri argiteriako instalazioetako matxurak detektatzeko eta konpontzeko beharrezko eragiketak biltzen ditu, eta xedea matxurak bizkor detektatzea eta halakoetan bizkor jardutea izango da kostu txikiarekin, betiere era horretako instalazioen segurtasuna hobetuko duen konponketaren kalitate ona izanik; gainera, kude-

- Verificación, conservación y limpieza de luminarias.
- Verificación y conservación de equipos auxiliares.
- Verificación y conservación de soportes.

Las operaciones de mantenimiento correctivo consistirán en reemplazar cualquier material defectuoso como consecuencia de un accidente de tráfico, actos de vandalismo, etc. y en reparar las averías ocasionadas por fallos eléctricos o mecánicos de los elementos que componen las instalaciones de alumbrado público, lo antes posible.

11.1. Programación del mantenimiento preventivo

La programación del mantenimiento preventivo se establecerá teniendo en cuenta la vida media de las lámparas de descarga, la depreciación del flujo luminoso en función del porcentaje de vida media transcurrida, así como el ensuciamiento de las luminarias en función de su hermeticidad y grado de contaminación atmosférica, pintado de soportes, verificación y revisión de cuadros eléctricos etc.

El mantenimiento preventivo comprenderá la siguiente programación con la periodicidad en las operaciones que se indican:

1. Lámparas:

- Reposición en instalaciones con funcionamiento permanente de 24 horas de 1 a 2 años.
- Reposición en instalaciones con funcionamiento nocturno de 2 a 4 años.

2. Equipos auxiliares:

- Verificación de sistemas de regulación del nivel luminoso (reguladores en cabecera de línea y balastos de doble nivel), una vez cada seis meses.
- Reposición masiva de equipos auxiliares (balastos, arranadores y condensadores) de 6 a 8 años

3. Luminarias:

- Limpieza del sistema óptico y cierre (reflector, difusor) de 1 a 2 años.
- Control de conexiones y de la oxidación, con cada cambio de lámpara.
- Control de los sistemas mecánicos de fijación, con cada cambio de lámpara.
- Verificación de la continuidad de la línea de enlace con tierra 1 vez al año.
- Control del sistema global de puesta a tierra de la instalación 1 vez al año.
- Examen de las conexiones 1 vez al año.
- Comprobación del aislamiento de los conductores 1 vez al año.

4. Soportes:

- Control de la corrosión (interna y externa) 1 vez al año.
- Control de las deformaciones (viento, choques) 1 vez al año.
- Soportes de acero galvanizado (Pintado primera vez) 15 años.
- Soportes de acero galvanizado (Pintado veces sucesivas) 7 años.
- Soportes de acero pintado 5 años.

Cuando en el transcurso del tiempo coincidan la reposición de lámparas y la limpieza de luminarias, ambas operaciones se ejecutarán de forma simultánea. La reposición masiva de lámparas y la limpieza de luminarias se completará efectuando el control de las conexiones y verificando el funcionamiento del equipo auxiliar.

11.2. Mantenimiento correctivo

Comprenderá las operaciones necesarias para la detección y reparación de las averías en las instalaciones de alumbrado público, y sus objetivos serán la rapidez en la detección y actuación a un coste bajo, con una buena calidad en la reparación que mejore la seguridad de este tipo de instalaciones, pudiendo implantar-

aketa zentralizatuko sistemak jarri ahal izango dira. Honako hauek sartzen dira, era berean, konponketa lanetan: matxuraturiko elementuak aldatzea edo konpontzea, matxuraren eragileak desagerrarazi direla egiaztatzea eta matxurarik berriz ez gertatzeko ahalgintza egitea.

11.3. Balio galeraren edo mantentzearen faktorea

Argiteriako instalazioak faktore zuzentzaile batekin kalkulatzeko erabiltzen da balio galeraren edo mantentzearen faktorea, luminantziaren eta iluminantziaren balioei dagokionez, zerbitzuan dauden gutxieneko balioei eusteko denboran; izan ere, faktore horri deritzo argiteriako instalazioak zerbitzuan iraun bitartean mantendu beharreko argi-balioen (luminantzia eta iluminantzia) eta hasierako argi-balioen arteko erlazioa.

Aire zabaleko argiteriako instalazioen kasuan, gehienez 0,8ko balio galera kontsideratuko da, CIEren 33. argitalpenean ezarri denez; luminaria-motaren eta airearen kutsadura-mailaren arabera izango da faktore hori. Lehenespenez proiektuetan 0,70 depreziatio-faktorea erabiliko da.

Tuneletako kutsadura atmosferikoa, oso sarri, oso handia izaten denez gero, bizkor zikintzen diren argiteriako instalazioko luminariak, baita tuneletako hormak ere. Horrek guztiak tuneletako hormak eta luminariak sarriago garbitzea eskatzen du.

Behar-beharrezkoa da luminariak garbitzea, zeren eta bestela, denboraren joan-etorriarekin, ia erabat galdu egin baitaiteke fluxua. Baldin eta luminariak hermetikotasun-maila handia badute, gehienbat hautsaren kontra, nahikoa izan beharko luke luminarien itxierako kanpoko aldea garbitzea argitasun-mailari eutsi ahal izateko.

Gerta liteke tuneleko hormak garbitzearen ondorioa oso handia ez izatea argiaren guztizko ekarpenarekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, komenigarria izaten da beti tuneleko hormak garbi izatea, zeren eta tuneleko hormako objektuak sarri ikusi ohi diren «atze-ko aldeak» baitira, eta beharbada oinezkoak ere bai; gainera, ekarpen nabarmendua egiten diote gidatze optikoari. Tuneleko hormak garbitzeko maiztasuna trafikoaren baldintzen, hormak estaltzen dituen materialaren eta beste faktore askoren arabera izango da, betiere eskaturiko baldintzei eutsi ahal izateko.

Tuneleko luminariak eta hormak benetan garbitzeko zikloak lotuta egon behar du balio galeraren edo mantentzearen faktorearekin; faktore hori zerbitzuan diren argiztapen-mailak kalkulatzeko, instalazioaren mantentzea izanik. Tunelen kasuan, diseinua edo proiektua egiteko fasean, gehienez 0,7ko balio galeraren faktorea gomendatzen da galtzada bakoitzeko luminantzia eta iluminantzia kalkulatzeko.

Hortaz, tuneleko luminariak eta hormak garbitzeko zikloa hala-ko moldez egokituko da non balio-galeraren faktorea ez baita 0,7tik behera jaitsiko, hori guztia lanparak 3 urteko epealdian (oinarriko argiztapenerako eta eguneko 24 ordurako lanpara fluoreszenteak) eta 4 urteko epealdian (SAP lanparak) lanparak aldatzeari kalterik egin barik; hartara, mantentze prebentiboa ezarriko da.

11.4. Tuneletako argiztapen-mailak kontrolatzeko sistemak

Segurtasuna eta kostua direla-eta, oso garrantzitsua da tuneleko sarrerak eta atalaseak kontrolatzeko fotometroak edo luminanzimetroak egiaztatzea, tuneleko luminantzia-maila kanpoko eguneko eguzki-argiaren baldintzetara egokitzeko.

Luminanzimetroen kalibraketa urtean behin erkatu behar da gutxienez. Halaber, energia elektrikoaren kontsumoaren gaineko konparazioak ezarri behar dira funtzionamendu-erregimen ezberdinei dagozkien zirkuituetan: tunel berean aurreko urteetan izan diren kontsumoekin alderatu behar dira edo, hala denean, antzeko tuneletan.

Era berean, ustiatzaileak argiztapenaren kontrolak egingo ditu Energia Eraginkortasunari buruzko 1890:2008 Araudian zehaztutako irizpideei jarraiki.

se sistemas de gestión centralizada. La reparación incluirá además de la sustitución o arreglo de los elementos averiados, la comprobación de la eliminación de las causas de la avería, evitando su repetición.

11.3. Factor de depreciación o de mantenimiento

El factor de depreciación o mantenimiento definido como la relación entre los valores lumínicos (luminancia e iluminancia) a mantener a lo largo de la vida de la instalación de alumbrado, y los valores lumínicos iniciales, se utiliza para calcular instalaciones de alumbrado con un factor corrector, en lo que se refiere a valores de luminancia e iluminancia, para que se mantengan los valores mínimos en servicio a lo largo del tiempo.

En el caso de las instalaciones de alumbrado al aire libre, debe considerarse un factor de depreciación no mayor de 0,8 tal y como establece la Publicación n.º 33 de la CIE, dependiendo dicho factor del tipo de luminaria y del grado de contaminación del aire. Preferentemente se utilizará un factor de depreciación de 0,70 en los proyectos.

Con mucha frecuencia la contaminación atmosférica en el interior de los túneles es muy elevada, por lo que se ensucian rápidamente tanto las luminarias de la instalación de alumbrado, como las paredes del túnel. Todo ello exige una limpieza más asidua de las luminarias y las paredes del túnel.

Resulta totalmente necesario efectuar la limpieza de las luminarias, ya que de otro modo con el transcurso del tiempo la pérdida de flujo puede llegar a ser casi total. Si las luminarias tienen un grado de hermeticidad elevado, fundamentalmente contra el polvo, entonces debería ser suficiente limpiar el exterior de los cierres de las luminarias para mantener el nivel luminoso.

El efecto de la limpieza de las paredes del túnel puede resultar no muy elevado en relación con la contribución total de la luz. Sin embargo, la limpieza siempre es deseable porque las paredes del túnel forman frecuentemente el «fondo» contra el cual se ven los objetos y quizá los peatones, y aportan una contribución significativa en el guiado óptico. La frecuencia de limpieza de las paredes del túnel varía de acuerdo con las condiciones de tráfico, el material que recubre las paredes y muchos factores más, con la finalidad de mantener las exigencias requeridas.

El ciclo de limpieza real de las luminarias y paredes del túnel, debe estar relacionado con el factor de depreciación o de mantenimiento utilizado en los cálculos de los niveles de iluminación en servicio con mantenimiento de la instalación. En el caso de túneles, en la etapa de diseño o proyecto, se recomienda un factor de depreciación no mayor de 0,7 para el cálculo de la luminancia e iluminancia en la calzada.

Por tanto, el ciclo de limpieza de las luminarias y las paredes del túnel debe adecuarse para que el factor de depreciación no caiga por debajo de 0,7. Todo ello sin perjuicio de efectuar la reposición de lámparas en un período de 3 años (lámparas fluorescentes para alumbrado base y nocturno 24h) y de 4 años (lámparas SAP), mediante la implantación del correspondiente mantenimiento preventivo.

11.4. Sistemas de control de los niveles luminosos en túneles

Resulta de gran importancia, por razones de seguridad y de coste económico, realizar comprobaciones de los fotómetros o luminancímetros de control de las zonas de acceso y umbral del túnel, para regular y adecuar el nivel de luminancia en el túnel a las condiciones de la luz solar diurna en el exterior.

La calibración de los luminancímetros debe contrastarse como mínimo una vez al año. Asimismo, deben establecerse comparaciones del consumo de energía eléctrica en los distintos circuitos correspondientes a diferentes regímenes de funcionamiento, con los consumos de años anteriores en el mismo túnel o, en su caso, en túneles similares.

De igual forma, el explotador realizará controles de la iluminación siguiendo los criterios definidos en el Reglamento de Eficiencia Energética 1890:2008.

12. ARGITERIAREN MATERIAL ELEKTRIKOAK

Tuneletako argiterian erabilitako material elektrikoaren artean, honako hauek hartzen dira kontuan:

- Lanparak.
- Ekipo osagarriak:
 - Balastoak.
 - Kondentsadoreak.
 - Arrankatzeko gailuak.
- Luminariak

12.1. Lanparak

Hauexek dira herri argiteriaren instalazioetan erabilitako lanpara-motak:

- Fluoreszentzia-lanparak.
- Presio altuko merkurio-lurrineko lanparak.
- Presio baxuko sodio-lurrineko lanparak.
- Presio altuko sodio-lurrineko lanparak.
- Merkurio-lanparak, metalezko halogenuroekin.
- Indukzio bidezko deskarga-lanparak.

Tuneletako argiterian erabil daitezkeen lanparak fluoreszentiakoak dira, presio altuko eta baxuko sodio-lurrinekoak eta azkenik indukzio bidezko deskargakoak.

12.1.1. Tuneletako argiztapenerako lanparak aukeratzeko irizpideak

Tuneletako argiztapenerako argi-iturriak aukeratzean, honako hauen inguruko irizpideak izan behar dira kontuan:

- Eraginkortasun energetikoa.
- Argiaren kalitatea.
- Lanparen iraunkortasuna.

Lanparak aukeratzeko orduan, lanparok honako baldintza hauek egokitu behar dutela izango da kontuan:

1. Zenbait luminantzia uniformitate lortu beharko dira.
2. Lanparek potentzia handiagoa izango dute lortu beharreko argiztapen-maila altuen arabera, zertarako-eta argi iturriak mugatu ahal izateko, baina luminantziaren uniformitateak kaltetu barik.
3. Luminariak ezartzeko posibilitateak, fotometria baldintzatzen dutenak.
4. Lanpara berriz pizteko posibilitatea argindarra eteten denean.
5. Lanpararen fluxua aldatzeko posibilitatea, zirkuitu elektrikoaren kopurua ez handitzeko funtzionatzeko erregimen ezberdinetarako.
6. Tunela erabiltzeko baldintzak; kontuan izango da zaila eta garestia dela argien instalazioa mantentzea eta horren urteko funtzionamendua oso garrantzitsua dela, hain zuzen ere 6.000 - 8.000 ordu inguru tunelaren barruan eta ehunetik milaka ordukoa erre-ortzuko aldeetan (sarrerako aldea eta, hala denean, irteerako aldea).
7. Kontsumituriko energia ekonomizatu beharra izatea (lumen eta watten arteko erlazio ona).

Oro har, eta tunelaren barruko aldeari dagokionez, komenigarria da lanpara fluoreszentea erabiltzeko ikuspen-erosotasuna, kolore-errendimendua, itxura, iraupena eta erregulatzeko posibilitatea direla-eta. Hala eta guztiz ere, merkeagoa da presio baxuko sodio-lurrineko lanpara jartzea. Era berean, bi argi-iturri mota horien nahasketako instalazioa jartzeko aukera azter daiteke. Indukzio bidezko deskarga-lanparak iraupen luzea du; horrek mantentze merkeagoa dakarrenez, komenigarria da horrelako lanparak erabiltzea. Argiztapen-maila handia behar duten hirietako tunelen kasuan edo tunelak oso zabalak direnean, egokia da presio altuko sodio-lurrineko lanparak erabiltzea.

12. MATERIALES ELÉCTRICOS DE ALUMBRADO

Entre los materiales eléctricos utilizados en el alumbrado de túneles se consideran los siguientes:

- Lámparas.
- Equipos auxiliares:
 - Balastos.
 - Condensadores.
 - Arrancadores.
- Luminarias.

12.1. Lámparas

Los tipos de lámparas utilizadas en instalaciones de alumbrado público, son los siguientes:

- Lámparas de fluorescencia.
- Lámparas de vapor de mercurio a alta presión.
- Lámparas de vapor de sodio a baja presión.
- Lámparas de vapor de sodio a alta presión.
- Lámparas de mercurio con halógenos metálicos.
- Lámparas de descarga por inducción.

Las lámparas susceptibles de utilización en instalaciones de alumbrado de túneles son las de fluorescencia, de vapor de sodio a baja y alta presión y finalmente las de descarga por inducción.

12.1.1. Criterios de elección de lámparas para el alumbrado de túneles

En la elección de las fuentes de luz para la iluminación de túneles se han de tener muy en cuenta los criterios de:

- Eficiencia energética.
- Calidad de luz.
- Durabilidad de las lámparas.

A la hora de la elección de las lámparas se tendrá en cuenta que las mismas deben adaptarse a los siguientes condicionantes:

1. Deben lograrse unas uniformidades de luminancias satisfactorias.
2. Las lámparas tendrán mayor potencia en función de los elevados niveles de iluminación a conseguir, al objeto de limitar el número de fuentes de luz, pero sin comprometer las uniformidades de luminancia.
3. Posibilidades de implantación de las luminarias, que condicionan su fotometría.
4. Posibilidad de reencendido de la lámpara en el caso de un corte en la alimentación eléctrica.
5. Posibilidad de variación del flujo que emite la lámpara, al objeto de no multiplicar el número de circuitos eléctricos para los distintos regímenes de funcionamiento.
6. Condiciones de utilización del túnel, considerando que el mantenimiento de la instalación de alumbrado es difícil y costoso, teniendo en cuenta que el funcionamiento anual de la misma es muy importante, del orden de 6.000 a 8.000 horas en la zona del interior del túnel, y de algunos centenares a varios millares de horas en las zonas de refuerzo (zona de entrada y, en su caso, de salida).
7. Necesidad de economizar la energía consumida (buena relación lúmenes/vatio).

En líneas generales, y en lo que respecta a la zona del interior del túnel, conviene utilizar la lámpara fluorescente por razones de confort visual, rendimiento de color, aspecto, horas de vida y posibilidad de regulación. Sin embargo, adoptar la lámpara de vapor de sodio a baja presión resulta más económico. Igualmente puede considerarse la instalación de una mezcla de estos dos tipos de fuentes de luz. La lámpara de descarga por inducción tiene una vida muy elevada, lo que abarata el mantenimiento, por lo que también es conveniente su uso. En el caso de túneles urbanos que requieren elevados niveles de iluminación o cuando los túneles son muy anchos, resulta apropiada la utilización de lámparas de vapor de sodio a alta presión.

Errefortzuko aldeetan, hots, tuneletako sarreretan eta irteeretan, presio altuko sodio-lurrineko lanparak erabiltzea gomendatu ohi da; itsualdien kontrola aurreikusitako behar da batez ere 250 w-ko potentziatik aurrera: lanpara tunelaren sabaian zein gangan jarriko dira, bai luminariaren kontzeptio beragatik, bai jartzeko moduagatik. Horri esker, errazagoa da kontrola egitea. Jarri beharreko luminaria-kopurua mugatzeko, kolore bakarrekoak badira ere, zenbait kasutan presio baxuko sodio-lurrineko lanparak erabil litezke.

12.1.2. Lanpara normalizatuaren ezaugarri elektrikoak

Jarraian, lanpara-mota bakoitzak bete beharko dituen ezaugarri elektrikoak azalduko dira atal honetan:

12.1.2.1. Lanpara fluoresenteak

Argiteria orokorreko zerbitzuetarako fluoresentziako lanpara tubularrak UNE-EN 60081 arauan ezarritako xedapenei lotuko zaizkie oro har; zorro bakarreko lanpara fluoresente tubularrek, berriz, UNE-EN 60901 arauan xedaturiko preskripzioak bete beharko dituzte. Lanpara-mota eta lanpara-potentzia bakoitzari dagokionez arau horretan zehazturikoak izango dira funtzionamenduaren balio elektrikoak.

Era berean, balasto elektronikoa duten lanpara fluoresenteak UNE-EN 60968 eta 60969 arauetako preskripzioak beteko dituzte.

12.1.2.2. Presio altuko merkurio-lurrineko lanparak

UNE-EN 20354 arauan eskaturiko balioei lotuko zaizkie presio altuko sodio-lurrineko lanparak. Lanpara-mota eta lanpara-potentzia bakoitzari dagokionez arau horretan zehazturikoak izango dira funtzionamenduaren ezaugarri elektrikoak.

12.1.2.3. Presio baxuko sodio-lurrineko lanparak

UNE-EN 60192 arauan eskaturiko balioei lotuko zaizkie presio baxuko sodio-lurrineko lanparak. Lanpara-mota eta lanpara-potentzia bakoitzari dagokionez arau horretan zehazturikoak izango dira funtzionamenduaren ezaugarri elektrikoak.

12.1.2.4. Presio altuko sodio-lurrineko lanparak

UNE-EN 60662 arauan ezarritako eskakizunak beteko dituzte presio altuko sodio-lurrineko lanparek. Lanpara-mota eta lanpara-potentzia bakoitzari dagokionez arau horretan zehazturikoak izango dira funtzionamenduaren balio elektrikoak.

12.1.2.5. Merkurio-lanparak, metalezko halogenuroekin

EN 61167 arauan xedaturiko zehaztapenak beteko dituzte halogenuroak dituzten merkurio-lanparek. Lanpara-mota eta lanpara-potentzia bakoitzari dagokionez arau horretan zehazturikoak izango dira funtzionamenduaren balio elektrikoak.

12.1.3. Normalizatu gabeko lanparen ezaugarri elektrikoak

Aplikazio-eremuaren barruko lanpara-moteak, oraindik normalizatu gabe daudenean, honako preskripzio hauek bete beharko dituzte gutxienez:

12.1.3.1. Lanpara fluoresente estandarrek eta trinkoak

Lanparak xurgaturiko hasierako potentzia ez da %5 + 0,5 w-koa baino gehiago aldatuko finkaturiko balio nominalari dagokionez, entsegua aurretik ezarritako baldintzetan egiten denean.

12.1.3.2. Presio altuko merkurio-lurrineko lanparak

Lanparak xurgaturiko hasierako potentzia ez da %5 baino gehiago aldatuko finkaturiko balio nominalarekiko, entsegua aurretik ezarritako baldintzetan egiten denean. Lanpara ez da itzaliko tentsioa %100etik %90era jaisten denean 0,5 segundoan eta balio horri eusten zaionean 5 segundoan.

En las zonas de refuerzo, es decir, zona de entrada y de salida de los túneles, se recomienda utilizar normalmente lámparas de vapor de sodio a alta presión; previendo controlar el deslumbramiento sobre todo a partir de 250 w de potencia desfilando la lámpara, bien por la propia concepción de la luminaria o por la forma de implantación, tanto en el techo como en la bóveda del túnel lo que facilita al respecto dicho control. Con el fin de limitar el número de luminarias a instalar, a pesar de su monocromatismo, en algunos casos podría utilizarse la lámpara de vapor de sodio a baja presión.

12.1.2. Características eléctricas de las lámparas normalizadas

A continuación se reflejan las características eléctricas a las que deberá acomodarse cada tipo de lámpara:

12.1.2.1. Lámparas fluorescentes

Las lámparas tubulares de fluorescencia para servicios de alumbrado general se adecuarán a las estipulaciones contenidas en la norma UNE-EN 60081, mientras que las lámparas fluorescentes tubulares de casquillo único se regirán por lo dispuesto en la norma UNE-EN 60901. Los valores eléctricos de funcionamiento serán los detallados en dichas normas para cada uno de los diferentes tipos y potencias de lámparas.

Igualmente las lámparas fluorescentes con balasto electrónico incorporado seguirán las prescripciones de las normas UNE-EN 60968 y 60969.

12.1.2.2. Lámparas de vapor de mercurio a alta presión

Las lámparas de vapor de mercurio a alta presión cumplirán las prescripciones fijadas en la norma UNE-EN 20354. Las características eléctricas de funcionamiento serán las contenidas en dicha norma para cada uno de los diferentes tipos y potencias de lámparas.

12.1.2.3. Lámparas de vapor de sodio a baja presión

Las lámparas de vapor de sodio a baja presión se ajustarán a los valores exigidos en la norma UNE-EN 60192. Las características eléctricas de funcionamiento serán las determinadas en dicha norma para cada uno de los diferentes tipos y potencias de lámparas.

12.1.2.4. Lámparas de vapor de sodio a alta presión

Las lámparas de vapor de sodio a alta presión satisfarán las exigencias establecidas en la norma UNE-EN 60662. Los valores eléctricos de funcionamiento serán los expresados en dicha norma para cada uno de los diferentes tipos y potencias de lámparas.

12.1.2.5. Lámparas de mercurio con halogenuros metálicos

Las lámparas de mercurio con halogenuros metálicos cumplirán las especificaciones dispuestas en la norma EN 61167. Los valores eléctricos de funcionamiento serán los especificados en dicha norma para cada uno de los diferentes tipos y potencias de lámparas.

12.1.3. Características eléctricas de las lámparas no normalizadas

Las características eléctricas de las lámparas incluidas en el campo de aplicación y todavía no normalizadas deberán cumplir, como mínimo, las siguientes prescripciones:

12.1.3.1. Lámparas fluorescentes estándar y compactas

La potencia inicial absorbida por la lámpara no deberá variar, respecto del valor nominal marcado, en más del 5% + 0,5 w, cuando el ensayo se efectúa en las condiciones previstas al efecto.

12.1.3.2. Lámparas de vapor de mercurio a alta presión

La potencia inicial absorbida por la lámpara no podrá variar, respecto del valor nominal marcado, en más del 5%, cuando el ensayo se realice en las condiciones previstas al efecto. La lámpara no se apagará cuando la tensión caiga del 100% al 90% en 0,5 segundos y se mantenga en este valor durante 5 segundos.

12.1.3.3. Presio baxuko sodio-lurrineko lanparak

Lanparak xurgaturiko hasierako potentzia ez da %11 baino gehiago aldatuko finkaturiko balio nominalarekiko.

12.1.3.4. Presio altuko sodio-lurrineko lanparak

Fabrikatzaileak esleituko du lanpararen potentzia; potentzia nominala izan daiteke edo ez. Lanpararen tentsioa ez da finkaturiko balioaren \pm %15 baino gehiago aldatuko.

12.1.3.5. Merkurio-lanparak, metalezko halogenuroekin

Fabrikatzaileak esleituko du lanpararen potentzia; potentzia nominala izan daiteke edo ez. Lanpararen tentsioa ez da finkaturiko balioaren \pm %10 baino gehiago aldatuko.

12.1.4. Lanparen ezaugarri fotometrikoak

Aplikatu beharreko arauetako koloreen ezaugarriei buruzko preskripzio guzti-guztiak bete beharko dituzte lanpara-mota normalizatuek. Aplikazio-eremuaren barruko lanpara-moteak, oraindik normalizatu gabe daudenek, honako preskripzio hauek bete beharko dituzte gutxienez:

12.1.4.1. Lanpara fluoreszente estandarra

Lanpararen hasierako argi-fluxua ez da balio nominalaren %92koa izango da gutxienez. Argi-fluxuaren balio galera, 2.000 orduko iraupena izan ondoren zahartze-aldia barne, ez da %20tik gorakoa izan behar. Iraupen nominalaren %70ean, ezin izango da %30etik gorakoa izan.

12.1.4.2. Lanpara fluoreszente trinkoak

Lanpararen hasierako argi-fluxua gutxienez balio nominalaren %90ekoa izango da. Argi-fluxuaren balio galera, 2.000 orduko iraupena izan ondoren zahartze-aldia barne, ez da %20tik gorakoa izan behar. Iraupen nominalaren %70ean, ezin izango da %35etik gorakoa izan.

12.1.4.3. Presio altuko merkurio-lurrineko lanparak

Lanpararen hasierako argi-fluxua balio nominalaren %90ekoa izango da gutxienez UNE-EN 20.354 arauaren C eranskinean agertzen diren entseguen baldintzetan betiere. Argi-fluxuaren balio galera, 2.000 orduko iraupena izan ondoren zahartze-aldia barne, ez da %20tik gorakoa izan behar. Iraupen nominalaren %70ean, berriz, ezin izango da %30etik gorakoa izan.

12.1.4.4. Presio baxuko sodio-lurrineko lanparak

Lanpararen hasierako argi-fluxua balio nominalaren %90ekoa izango da gutxienez. Argi-fluxuaren balio galera, 2.000 orduko iraupena izan ondoren zahartze-aldia barne, ez da %20tik gorakoa izan behar. Iraupen nominalaren %80an, berriz, ezin izango da %25etik gorakoa izan.

12.1.4.5. Presio altuko sodio-lurrineko lanparak

Lanpararen hasierako argi-fluxua gutxienez balio nominalaren %90ekoa izango da. Argi-fluxuaren balio galera, 2.000 orduko iraupena izan ondoren zahartze-aldia barne, ez da %20tik gorakoa izan behar. Iraupen nominalaren %70ean, berriz, ezin izango da %25etik gorakoa izan.

12.1.4.6. Merkurio-lanparak, metalezko halogenuroekin

Lanpararen hasierako argi-fluxua balio nominalaren %90ekoa izango da gutxienez. Argi-fluxuaren balio galera, 2.000 orduko iraupena izan ondoren zahartze-aldia barne, ez da %20tik gorakoa izan behar. Iraupen nominalaren %70ean, ezin izango da %35etik gorakoa izan.

12.1.5. Lanparen koloreen ezaugarriak

Aplikatu beharreko arauetako koloreen ezaugarriei buruzko preskripzio guzti-guztiak bete beharko dituzte lanpara-mota normalizatuek. Aplikazio-eremuaren barruko lanpara-motek, oraindik normalizatu gabe daudenek, honako preskripzio hauek bete beharko dituzte gutxienez.

12.1.3.3. Lámparas de vapor de sodio a baja presión

La potencia inicial absorbida por la lámpara no variará, respecto del valor nominal marcado, en más del 11%.

12.1.3.4. Lámparas de vapor de sodio a alta presión

La potencia de la lámpara será la asignada por el fabricante. La tensión en lámpara no deberá variar más de un \pm 15% del valor fijado.

12.1.3.5. Lámparas de mercurio con halogenuros metálicos

La potencia de la lámpara será la asignada por el fabricante, que podrá coincidir o no con la nominal. La tensión de lámpara no variará más del \pm 10% del valor fijado.

12.1.4. Características fotométricas de las lámparas

Los tipos de lámparas normalizadas deberán cumplir todas y cada una de las prescripciones sobre las características fotométricas incluidas en las normas que les sean aplicables. Los tipos de lámparas incluidos en el campo de aplicación y todavía no normalizados cumplirán, como mínimo, las siguientes prescripciones:

12.1.4.1. Lámparas fluorescentes estándar

El valor inicial del flujo luminoso de la lámpara no deberá ser inferior al 92% de su valor nominal. La depreciación del flujo luminoso, después de una duración de 2.000 horas incluido el período de envejecimiento, no podrá ser superior al 20%. Al 70% de la duración nominal no será superior al 30%.

12.1.4.2. Lámparas fluorescentes compactas

El valor inicial del flujo luminoso de la lámpara no será inferior al 90% de su valor nominal. La depreciación del flujo luminoso, después de una duración de 2.000 horas incluido el período de envejecimiento, no deberá ser superior al 20%. Al 70% de la duración nominal no podrá ser superior al 35%.

12.1.4.3. Lámparas de vapor de mercurio a alta presión

El flujo luminoso inicial de la lámpara no será inferior al 90% de su valor nominal en las condiciones de ensayo indicadas en el Anexo C de la norma UNE-EN 20354. La depreciación del flujo luminoso, después de una duración de 2.000 horas incluido el período de envejecimiento, no deberá ser superior al 20%. Al 70% de la duración nominal no podrá ser superior al 30%.

12.1.4.4. Lámparas de vapor de sodio a baja presión

El flujo luminoso inicial de la lámpara no será inferior al 90% de su valor nominal. La depreciación del flujo luminoso, después de una duración de 2.000 horas, no deberá ser superior al 20%. Al 80% de la duración nominal no podrá ser superior al 25%.

12.1.4.5. Lámparas de vapor de sodio a alta presión

El valor inicial del flujo luminoso de la lámpara no será inferior al 90% de su valor nominal. La depreciación del flujo luminoso, después de una duración de 2.000 horas incluido el período de envejecimiento, no deberá ser superior al 20%. Al 70% de la duración nominal no podrá ser superior al 25%.

12.1.4.6. Lámparas de mercurio con halogenuros metálicos

Tuneletik doazen ibilgailuen trafikoaren ondorioz, gasez eta kez beteriko giro kutsatua sortzen da tunelean, gehienbat CO eta nitrogeno oxidoak, eta azpimarratzekoa da arriskutsuak direla gas eta ke horiek pertsonentzat; alde batetik, osasunaren arloari dagokionez, zeren eta zorabioak edo oka egiteko gogoia eragiten baitituzte substantzia horien kontzentrazioaren arabera; eta beste aldetik, trafikoan bertan ere arazoak sortzen direlako, ikuspena murrizten dutelako eta, beraz, istripuak izateko posibilitateak handitzen direlako. Horretaz gain, sua dagoenean, aireztapenak eginkizun garrantzitsua betetzen du.

Abiapuntu hori izanik, atal honetan azaltzen diren puntuen xedea erabili beharreko aireztapen-mota definitzea da. Halaber, aireztapen sistema diseinatzerakoan kontuan hartu beharreko gutxieneko puntuak ere azalduko dira atal honetan, sistema horrek tune-laren ohiko funtzionamenduan dagoen zirkulazioak eragindako CO eta keen maila muga onargarrietaraino murriztu ditzan. Bestalde, larrialdietako aireztapen sistema diseinatzeko oinarritzko irizpideak ere azalduko dira, erabiltzaileek larrialdietan segurtasunez alde egin dezaten tuneletik.

Tunelaren barruko aireztapen sistemak erlazio zuzena duenez tuneletik doan trafikoarekin eta sutea gertatzeko posibilitatearekin, jarraian horren gaineko zenbait kontzeptu garatuko dira, baita dokumentuan zehar aipatuko direnak ere.

4. LA VENTILACIÓN EN TÚNELES

4.1. Introducción

Consecuencia del tráfico de vehículos por el túnel, en su interior se producirá un ambiente polucionado por gases y humos, fundamentalmente CO y óxidos de nitrógeno, los cuales son un riesgo para las personas tanto desde el punto de vista sanitario, puesto que pueden producir mareos o vómitos en función de su concentración, como problemas en el tráfico en sí, puesto que disminuyen la visibilidad y por tanto elevan las posibilidades de accidentes. Además de ello, en caso de incendio, la ventilación tiene un importante papel.

Partiendo de esta base, los puntos que en este apartado se exponen, tienen como misión definir el tipo de ventilación a utilizar. Así mismo, se indican aquellos puntos que se consideran mínimos a tener en cuenta en el diseño del Sistema de Ventilación, a fin de que éste consiga reducir a límites aceptables los valores de CO y humos provenientes de la circulación en el interior del túnel durante el Funcionamiento Normal. Por otra parte, se indican también aquellos criterios básicos para diseñar un Sistema de Ventilación de Emergencia que permita a los usuarios abandonar el túnel en condiciones de seguridad en caso de emergencia.

Puesto que el Sistema de Ventilación dentro de un túnel tiene una relación directa con el tráfico que discurre por él, así como con la posibilidad de un incendio, a continuación se desarrollan algunos conceptos referentes a ello, y a los que a la largo del documento se hará referencia.

4.2. Trafikoaren gaineko azterlana eta ezaugarriak

4.2.1. Ohar orokorrak

Honako atal honetan soilik trafikoarekin zerikusia duten zenbait kontzeptu nabarmendu nahi dira, aireztapen sistemarekin duten erlazioa definitzeko modua emango dutenak.

Hauexek dira erabili ohi diren parametroak: errei edo tunel baten ahalmena, ibilgailuei baimendutako abiadura, zirkulazioaren intentsitatea, ibilgailuen dentsitatea eta gasen igorpena. Jarraian garatuko dira kontzeptu horiek.

4.2.2. Bidearen ahalmena

Errei, tunel-zulo edo tunel osoaren ahalmena agertzen da kalkuluetan.

Bidearen ahalmena orduko ibilgailuen kopuruetan neurtzen da, hots, tuneletik igaro daitekeen gehieneko ibilgailu-kopurua abiadura uniforme bat kontsideratuz. Zirkulazioaren abiaduraren eta zirkulazio horretan doazen ibilgailuen aurreko aldean arteko gutxieneko tartetaren arabera izango da balio hori; izan ere, zirkulazioa gidariaren zein bidearen eta ibilgailuaren arabera izango da.

Hona hemen bidearen ahalmenaren faktoreak: erreien zabalera, bide-bazterren zabalera, alboko oztopoak (zintarria, adibidez), errei osagarriak, maldak dituen trazaketa eta, jakina, zoladura ere bai. Horretaz gain, garrantzitsua da trafiko-mota, bidetik doazen ibilgailu astunen, zirkulatzeko abiaduraren eta abarren ehunekoari dagokionez.

Eginiko azterlanek dakartenez, biderik egokienaren gehieneko ahalmena orduko eta erreiko 2.200 – 2.400 ibilgailukoa da autopistetan eta autobideetan; ahalmen praktikoa, ordea, aipaturiko faktoreak gehituta lortuko da.

4.2.3. Zirkulazioaren intentsitatea

Nahiz eta bideak ahalmen jakin bat izan dezakeen, faktoreek trafikoaren dentsitateak emango dizkigute orduko ibilgailuen kopuruetan, zeren eta bidea norabide bakarreko trafikokoa edo bi norabideko trafikokoa izan baitaiteke, baita baimendutako zirkulazio abiadura eta errei-kopurua ere.


Orduen gehieneko intentsitatea oinarritzat hartuta eta egunean zehar hainbat intentsitate daudela kontuan izanik, beste parametro bat erabiltzen da, erabiliena hain zuzen: eguneko batez besteko intentsitatea. Bidean auto-pilaketak sortuko dira errei bakoitzeko 20.00 ibilgailu orduko daudenean.

4.2.4. Zirkulazioaren dentsitatea

Intentsitatearen eta zirkulazio abiaduraren balioak abiapuntutzat hartuta, zirkulazio dentsitatea lortzen da, hots, errei kilometro bakoitzeko dagoen auto-kopurua.

4.2.5. Parametroen arteko erlazioa

Hiru parametrerik garrantzitsuenen arteko erlazioak ezar daitezke: zirkulazio abiadura, orduen intentsitatea eta dentsitatea, ondo grafikoa agertzen den bezala



4.3. Suaren/kearen jokabidearen gaineko azterlana

Bi dira, gehienbat, sua eragiten duten arrazoirik ohikoak: ibilgailuko akatsa edo istripua. Edozelan ere, kalterik handienak gorabeheran ibilgailu astunak direnean gertatzen dira.

4.2. Estudio y características principales del tráfico

4.2.1. Consideraciones generales

En el presente apartado solamente se pretende destacar algunos conceptos relacionados con el tráfico que permitan definir su relación con el Sistema de Ventilación.

Los parámetros que normalmente se manejan son, la capacidad de un carril o túnel, velocidad permitida de vehículos, intensidad de circulación, densidad de vehículos y emisión de gases. A continuación se desarrollan estos conceptos.

4.2.2. Capacidad de la vía

En los cálculos aparece la capacidad tanto de un carril, de un tubo, o del conjunto del túnel.

La capacidad se mide en vehículos/hora, es decir, el máximo número de vehículos que puede pasar por él suponiendo una velocidad uniforme. Este valor viene dado en función de la velocidad de circulación y la separación media mínima entre los frontales de los vehículos a esa velocidad de circulación, la cual depende tanto del conductor como de la propia vía y vehículo.

Los factores que intervienen en la capacidad de una vía son, la anchura de carriles, anchura de arcones, obstáculos laterales como bordillo por ejemplo, carriles auxiliares, trazado con pendientes, y lógicamente el pavimento. Además de ello, es importante el tipo de tráfico en cuanto al porcentaje de vehículos pesados en la vía, velocidad de circulación, etc.

Estudios realizados indican que la capacidad máxima de una vía ideal es del orden de 2.200 – 2.400 vehículos/hora por carril en el caso de Autopista y Autovía, no obstante, la capacidad práctica se obtendrá incorporando los factores señalados.

4.2.3. Intensidad de circulación

Aunque la capacidad de la vía pueda ser una determinada, los distintos factores nos darán las intensidades del tráfico en vehículos/hora, ya que la vía puede ser en tráfico unidireccional o bidireccional, velocidad de circulación permitida y número de carriles.


Basado en la intensidad máxima horaria, IMH, y teniendo en cuenta que existen distintas intensidades a lo largo del día, se maneja otro parámetro que es el más utilizado, la Intensidad Media Diaria, IMD. Se considera que la vía alcanza la situación de congestión cuando la intensidad es del orden de 2000 veh./hora carril.

4.2.4. Densidad de circulación

A partir de los valores de intensidad y de la velocidad de circulación, se obtiene la densidad de circulación, entendiéndola como el número de vehículos por km de carril.

4.2.5. Relación entre parámetros

Se pueden correlacionar los tres parámetros más importantes, velocidad de circulación, intensidad horaria, y la densidad, tal como se indica en la siguiente gráfica.



4.3. Estudio del comportamiento de fuego/humo

Las causas posibles y más frecuentes de un incendio son, o bien por fallo del propio vehículo, o por accidente. En cualquier caso, los daños más significativos se producen cuando en el incidente se ven involucrados los vehículos pesados.

Suak aireztapen sisteman izan ditzakeen ondorioei dagokienez, azpimarragarrienak sortzen diren gasak eta keak dira, zeren eta gorabeherak izan bitartean tuneleko ikuspena murrizten baituzte eta arnasa hartzea zailtzen baitute; gainera, suaren sorlekuan temperatura handia izaten denez, irradiazio arazoak izaten dira, giroko tenperatura handia, etab.

Beste faktore garrantzitsu bat suaren bilakaera da, betiere denborari dagokionez; izan ere, suaren gehieneko eboluziora arteko denbora zenbat eta handiagoa izan, orduan eta jarduteko denbora marjina handiagoa izango da pertsonak ebakutzeko eta laguntzako ekipoa tunelean sartu ahal izateko.

Jarraian, kontzeptu horiek landuko dira.

4.3.1. Sute baten su-karga, definizioa eta aplikazioak

Sua eragin duen sorburuak giroko airean askaturiko kaloria energiari deritzogu suak duen potentzia.

Jarraian, tunelaren aireztapenaren proiekturako oinarritzat hartu beharreko balio nagusiak agertuko dira, PIARCeke batzordeak lortuak.

Ibilgailu-mota	Gehieneko potentzia (MW)
Autoa	2,5 - 5
2-3 auto	8
Furgoneta	15
Autobusa / Merkantzien kamioia	20 - 30
Zisterna	>100


Geroago ikusiko dugunez, larrialdietako aireztapenean kontsideratu beharreko emaria kalkulatzeko beharrezko abiadura kritikoari buruzko azterlanean egingo da parametro honen aplikazio praktikoa, tunelaren diseinuak barne hartu behar duen suaren gehieneko potentzia horren ezaugarri espezifikoaren arabera izango da.

4.3.2. Kearen jokabidea tuneletan

Lehenik eta behin, ibilgailu-mota ezberdinek eragindako emaria emango dugu PIARC batzordearen datuak oinarritzat hartuz.

Ibilgailu-mota	Kearen produkzioa (m ³ /s)
Autoa	20
2-3 auto	30
Furgoneta	50
Autobusa / Merkantzien kamioia	60 - 90
Zisterna	100 - 200

Oro har, keak sute batean duen jokabidea ondoren ikus daitekeena da.



Desde el punto de vista de las consecuencias de un incendio sobre el Sistema de Ventilación, lo destacable son los gases y humos que se producen, puesto que reducen la visibilidad en el túnel durante el incidente y dificultan la respiración, y la temperatura alcanzada en el foco del incendio, con los correspondientes problemas de radiación, temperatura ambiente, etc.

Otro factor importante, es la evolución del incendio en cuanto al tiempo, ya que a un mayor tiempo de evolución hasta el desarrollo máximo, la evacuación de las personas y la entrada al túnel de los equipos de apoyo y extinción dispondrán de un mayor margen de maniobra.

A continuación se desarrollan los conceptos mencionados.

4.3.1. Carga de fuego de un incendio, definición y aplicaciones

Denominamos potencia de fuego a la energía calorífica liberada al ambiente por el foco productor.

A continuación se indican los valores más representativos a tomar como base para el proyecto de la ventilación de un túnel, obtenidos del comité de PIARC.

Tipo de vehículo	Potencia Máxima (MW)
Turismo	2,5 - 5
2-3 turismos.....	8
Furgoneta	15
Autobús / Camión de mercancías	20 - 30
Cisterna	>100


La aplicación práctica de este parámetro, como se verá posteriormente, será en el estudio de la velocidad crítica necesaria para el cálculo del caudal a considerar en la ventilación de emergencia, ya que la potencia máxima de fuego para la que se debe diseñar el túnel, será en función de las características específicas del mismo.

4.3.2. Comportamiento del humo en los túneles

En primer lugar indicaremos el caudal producido por distintos tipos de vehículos en base a los datos del comité de PIARC

Tipo de vehículo	Producción de humo (m ³ /s)
Turismo	20
2-3 turismos.....	30
Furgoneta	50
Autobús / Camión de mercancías	60 - 90
Cisterna	100 - 200

De forma genérica se considera que el comportamiento del humo en un incendio, es el que puede verse a continuación.



Horrek esan nahi du tunelean aire-korronterik ez badago eta tunelak maldarik ez badu, kea berdintsu hedatzen dela bi norabideetan. Hasierako uneetan sabaian egongo da kea eta bertan mugituko da, eta denbora jakin bat igarota eta sabaia ukitzean sortzen den hozte-efektuaren ondorioz, sekzio-multzoan hasten da erortzen eta gune osoa hartuko du.

Aireztapen nagusia egonez gero, edo aire baxuko abiadura eragiten duen txorrotako haizagailuekin jarduten bada, kea norabide horretan zabalduko da, baina horren flotagarritasuna dela medio, zati bat sutearen ibaian gora itzuliko litzateke, backlayering bezala ezagututakoa.

Kutsagarrien hodeia itzultzea saihesten duen airearen abiadura «abiadura kritiko» bezala definitzen da, eta hori tunelaren maldaren, sutearen potentziaren eta zeharkako sekzioaren geometriaren arabera izango da.

Suaren potentziaren arabera izango da sekzio osoa hartu baino lehen eginiko bidea.

Honako hauek hartzen dira abiapuntuko datutzat, PIARC batzordearekin bat etorritz:

Suaren potentzia	Kea mugitzeko abiadura	Desestratifikazio aurreko denbora
20 MW	2,2 m/s	5 min.
50 MW	3,4 m/s	3 min.

Suaren potentziaren balioa eta abiadura kritikoa erlazionatuta daude, eta aireztapen sistema kalkulatzeko balioak daude sute-potentziaren balioa nahiz abiaduraren kritikotasun-balioa kontuan hartzea, aztertutako tunelerako.

4.3.3. Temperatura/denboraren gaineko azterlana suaren garapenean

Esan bezala, hasierako uneetan ke-geruza sabaitik mugitzen da, eta orduantxe izango da ebakuaziorako denbora. Arazo nagusia, funtsean, penatxoak eragindako bero-irradiazioa izango dugu.

Erabilitako babes-jantzien arabera izango da gizakiak irradiazioa jasateko duen gaitasuna. Pertsona bat ebakutzeko atalaseko balioa 2 kW/m²-koa dela uste da; erreskate taldeek, ordea, jantzi egokiak dituztenez gero, gehienez 30 minutuan 5 kW/m²-ko mailak jasan ahal izango dituzte.

Pertsona bat aire beroaren korrantean badago, tenperaturaren arabera izango da jasan dezakeen beroa. Ebakuazioa egin ahal izateko, tenperatura gehienez 80°C-koa izan beharko litzateke, eta 15 minutuz jasan daiteke tenperatura hori.

Honako hauek hartzen dira abiapuntuko datutzat, PIARC batzordearekin bat etorritz:

Ibilgailu-mota	Gehieneko tenperaturak (°C)
Autoa	400
Autobusa	700
Merkantzien kamioiak.....	1000
Zisterna	1200 - 1400

Suaren sorburuaren eta keen tenperatura oso garrantzitsua bada ere, are garrantzitsuagoa da suak denboran izandako bilakaera, zeren eta denbora horiek ematen baitute gorabehera inplikaturak dauden erabiltzaileak salbatzeko posibilitatea. Eginiko entseguak eta gomendio nazionalen emandako kurbak abiapuntutzat hartuta, hasierako 10 minutuan (potentzia txikiena duten suteetarako ere bai) gehieneko balioa lortzen da eta nolabaiteko jaitsiera azkarra ikusten da, betiere su-motaren arabera. Hala eta guztiz ere, desadostasunak daude gehieneko balioan eta jaitsiera etapan egondako denbora finkatzerakoan.

Denboraren eboluzioa errazteko, gehieneko potentziaren arabera grafiko normalizatua egin ohi da.

Lo que ello significa es que en condiciones de no existencia de corriente de aire en el túnel, y si este no tiene pendiente, el humo se distribuye por igual en ambas direcciones. En los primeros momentos permanece y se desplaza a lo largo del techo y al cabo de un cierto tiempo y por efecto del enfriamiento por el contacto con él, acaba empezando a caer sobre el conjunto de la sección ocupando todo el espacio.

Si existiese una dirección de ventilación predominante o se operase con los ventiladores de chorro induciendo una velocidad del aire baja, el humo tenderá a propagarse en dicha dirección, aunque debido a la flotabilidad una parte del mismo tenderá a producir un retorno aguas arriba del incendio también conocido como backlayering.

La velocidad del aire que evita el retorno de la nube de contaminantes se denomina velocidad crítica, la cual depende de la pendiente del túnel, la potencia del incendio y la geometría de la sección transversal.

La longitud recorrida antes de ocupar toda la sección dependerá de la potencia de fuego.

Como datos de partida se consideran los siguientes, de acuerdo al comité de PIARC:

Potencia de fuego	Velocidad de desplazamiento del humo	Tiempo previo a la desestratificación
20 MW	2,2 m/s	5 min.
50 MW	3,4 m/s	3 min.

El valor de la potencia del fuego y el de la velocidad crítica del túnel están relacionados, de tal forma que en el momento de calcular el sistema de ventilación es equivalente tener en cuenta el valor de la potencia del incendio que el valor de criticidad de la velocidad, para el túnel estudiado.

4.3.3. Estudio de temperatura/tiempo en el desarrollo del incendio

Como se ha comentado, durante los primeros momentos, la capa de humo se desplaza por el techo, y es entonces el momento en el que se dispone del tiempo para la evacuación. El problema por tanto es fundamentalmente la radiación de calor producida por el penacho.

La capacidad del ser humano de soportar la radiación depende de las prendas de protección empleadas. Se considera que el valor umbral para la evacuación de una persona están en los 2 kW/m², mientras que los equipos de rescate al disponer de prendas adecuadas, pueden soportar niveles de 5 kW/m² hasta un máximo de 30 minutos.

Si una persona se ve expuesta a una corriente de aire caliente, el tiempo que puede aguantar depende de la temperatura. Se estima que para permitir la evacuación la temperatura no debería pasar los 80°C, siendo soportable hasta 15 minutos.


Como datos de partida se consideran los siguientes, de acuerdo al comité de PIARC:

Tipo de vehículo	Temperatura máximas (°C)
Turismo.....	400
Autobús.....	700
Camión de mercancías.....	1000
Cisterna.....	1200 - 1400


Si bien la temperatura alcanzada en el foco y los humos es muy importante, todavía lo es más la evolución del incendio a lo largo del tiempo ya que estos tiempos son los que determinan la posibilidad de salvamento de los usuarios involucrados en el incidente. A partir de los ensayos realizados y las curvas dadas en las recomendaciones nacionales muestra que en los primeros 10 minutos, incluso para los incendios de menor potencia, se alcanza el máximo y se observa una bajada más o menos rápida dependiendo del tipo de incendio. Existen no obstante, discrepancias a la hora de fijar el tiempo de permanencia en el máximo y la etapa de descenso.

Para simplificar la evolución temporal se realiza una gráfica normalizada por la potencia máxima.

Gaur egun, honelako grafikoa proposatzen da:



Actualmente se propone una gráfica del estilo:



Bertan zehazten da gehieneko balioan eta jaitsieran emandako denbora, su-motaren arabera:



Suaren potentzia (MW)	Berezko denborak (minutuak)		
	t ₁	t ₂	t ₃
15	18	30	60
30	30	60	120
100	60	120	240
300	60	—	—

Donde se definen el tiempo de permanencia en el máximo y de bajada según el tipo de incendio:

Potencia del Incendio (MW)	Tiempos Característicos (minutos)		
	t ₁	t ₂	t ₃
15	18	30	60
30	30	60	120
100	60	120	240
300	60	—	—

Temperaturaren eboluzioa moldatzeko, irizpide berak jarraitzen dira, zeren eta lehenengo 5 – 15 minutuetan eboluzio azkarra ikusten baita. Jarraian, RWS kurbak agertuko dira (Holanda, Rikswaterstaat-en erregelen arabera), ZTV (Alemania), ISO (Espainia), HC handituta. Horiek guztiak 1.300°C-ko gehieneko tenperaturarako dira:

Para modelar la evolución de la temperatura se siguen los mismos criterios, ya que se observa una rápida evolución en los primeros 5 - 15 minutos. A continuación se muestran las curvas RWS (Holanda según las reglas del Rikswaterstaat), ZTV (Alemania), ISO (España), HC incrementada. Todas para una temperatura máxima de 1300°C:



4.3.4. Flashover

Sutea abian jartzen denean, temperatura pixkanaka areagotu egingo da, eta gasen kopurua ere gehitu egingo da. Izan ere, flotagarritasuna dela eta, tunelaren sekzioko goiko aldera igotzen dira. Sutea aire zabalean sortuz gero, sutearen ondorioz sortutako beroa areagotu egingo litzateke. Hala ere, sutea esparru itxietan sortzen bada (adibidez, tunel batean), erregaiaren inguruan pilotutako gasek, tenperatua altuarekin, erradiazioaren bidezko energia igortzen dute, eta hori erregai gasifikatzeko lagungarria izango da, gunearen tenperatura gehituta. Sutea erradiazioaren bidez berriro elikatzekeko prozesu horrekin batera tenperatua asko gehituko da flas-over izeneko ingurunean.

4.3.4. El flashover

Cuando se inicia un incendio, la temperatura se va incrementando paulatinamente, aumentando la cantidad de gases generados los cuales por efecto de la flotabilidad se elevan a la parte superior de la sección del túnel. Si el incendio se produjese al aire libre, el calor generado por el incendio se disiparía. Sin embargo, cuando el incendio se produce en recintos cerrados (como es el caso de un túnel), los gases acumulados en las proximidades del combustible, con una temperatura elevada, emiten energía por radiación la cual contribuye a gasificar el combustible existente incrementando la temperatura del foco. Este proceso de re-alimentación del incendio por radiación lleva a un incremento muy importante de la temperatura en las proximidades del foco denominado flash-over.

4.4. Ebakuazio-bideen gaineko azterlana eta definizioa Denborak eta abiadura

Ustiapen JTan agertzen diren denborak kalkulatzeko kontuan hartuko dira.

4.5. Aireztapen sistemaren helburuak

Tunelaren aireztapen sistemak, oro har, helburu bat du: airearen kalitateari eutsita tunelaren ohiko funtzionamenduan eta sorospen ekipoak sartzeko sarreretan tunelaren segurtasuna bermatzeko sistemetako bat izatea, eta gauza bera larrialdietako ebakuazioan dagoen suaren kea kontrolatuz.

4.6. Ezarri beharreko aireztapen-motak

Tunel guztietan nahitaezko aireztapen-sistemak egon behar dira, automatismo-sistema egokiarekin batera.

Arau hau aplikatzeko eremuan, eta bestelako aireztapen-motek dakartzaten abantailak eta eragozpenak alde batera utzita, aireztapen longitudinala erabiliko da, salbu eta aztertu beharreko tunelaren berezitasunak direla-eta diseinatzaileak beste edozein aireztapen-mota erabiltzea beharrezkoa dela frogatzen badu, hala nola, aireztapena erdi mailako erauzketarekin, zeharkakoa, erdi-zeharkakoa...

Erdi mailako erauzketa duen aireztapenaren kasuan, keak kanpoarekin bat egiten duen putzu zentraletik erauzten dira (haizagailu axialarekin edo halakorik gabe), tximinia bezalako funtzionamenduarekin. Aire garbia tunelaren ahoetatik sartzen da kontrako norabidean, putzuaren sekzioan bilduta.

Erdi-zeharkako aireztapen-sisteman, aire garbia galtzadaren edo sabai faltsuaren maila berean kokatutako kolektorearen bidez (aire-irteerekin) sartzen da. Keak, gainpresioaren ondorioz, tunelaren ahoetatik irteten dira. Beraz, beharrezkoa den aire garbia hornitzeko gai den aireztapen sendoa behar da. Sistema horrekin, keak tunel osoan zehar zirkulatuko du, aireztapen longitudinalean gertatzen den bezala, baina toxikoen pilaketa baxuagoa izango da. Izan ere, kea injekzio-puntuek hornitutako aire garbiaren bidez diluitzen da.

Zeharkako aireztapenari dagokionez, aurrekoan aipatu dugun bezala, aire garbia galtzadaren edo sabai faltsuaren maila berean kokatutako kolektorearen bidez (aire-irteerekin) sartzen da. Hala ere, erdi-zeharkako aireztapen sistemarekin ezberdintasunak daude. Hain zuzen ere, kea irekiera batzuen bidez xurgatzen da eta horiek kea biltzeko kolektoreekin komunikatuta daude, horiek ere sabai faltsuan kokatuta. Bada, bai aire-irteeretan bai gasak erauzteko irekieretan Kontrol Zentroak agindutako tranpa txikiak ezarri dira, tunela sektorizatu eta tunelean toxikoen pilaketa mailari eusteko helburuarekin.

4.7. Aireztapen sanitarioa

Aireztapen honen bidez lortu nahi den xedea tuneleko giroari eustea da, arnasa hartzeko moduko egokia eta ikuspen egokia izanik betiere. Horretarako, ibilgailuetako ihes-gasak diluitu ahal izateko beharrezko aire-emaria eman behar du sistemak, arnasa hartzeko maila egokirainoko gasen toxikotasunari dagokionez, baita balaztatzeko distantzia baino distantzia handiagoan ikuspena ahalbidetzen duen opakotasunari dagokionez ere; balaztatzeko distantzia hori tunelean baimendutako zirkulazio abiaduraren araberrakoa izango da.

Aireztapen-mota honen (aireztapen naturalean zein sanitario behartuan) azterketan kontuan hartu beharreko parametroak honako hauek dira: trafikoaren norabidea eta intentsitatea, tunelean onartutako gehieneko abiadura, tunelaren luzera eta malda, tunelaren batez besteko altitudea, ibilgailu astunen % eta inguruan nagusi den haizea.

Parametro horiek behar bezala aztertuta, hauxe ondoriozta daiteke:

4.4. Estudio y definición de las vías de evacuación. Tiempos y velocidades

Se tendrán en cuenta para los cálculos de los tiempos que aparecen en la IT de explotación.

4.5. Objetivos del sistema de ventilación

El Sistema de Ventilación en el túnel tiene de forma genérica, un objetivo, ser uno de los sistemas que contribuyan a la seguridad del túnel tanto durante el Funcionamiento Normal del túnel mediante el mantenimiento de la calidad del aire, así como en una situación de Emergencia, mediante el control del humo del incendio tanto durante la evacuación, como para la entrada de las ayudas de socorro.

4.6. Tipos de ventilación a implementar

Todos los túneles que requieran sistemas de ventilación forzada, deberán contar con su correspondiente sistema de automatismo.

En el ámbito de aplicación de la presente norma, y prescindiendo de las ventajas y desventajas de otros tipos de ventilación, se utilizará Ventilación de Tipo Longitudinal, salvo que por las especiales características del túnel a estudio, el diseñador demuestre la necesidad de ser utilizado cualquier otro tipo, pudiéndose utilizar otros sistemas de ventilación como longitudinal con extracción intermedia, transversal, semitransversal...

En el sistema de ventilación longitudinal con extracción intermedia, los humos se extraen a través de un pozo central (con o sin ventilador axial) que comunica con el exterior funcionando como si fuera una chimenea. El aire limpio entra por las dos bocas del túnel en sentido opuesto, convergiendo en la sección del pozo.

El sistema de ventilación semitransversal se basa en la introducción de aire limpio mediante un colector con salidas del aire a nivel de calzada o en falso techo. Los humos, por efecto de la sobrepresión, salen por las bocas del túnel, por lo que se precisa un potente ventilador que sea capaz de suministrar el caudal de aire limpio necesario. Con este sistema, el humo circula a lo largo de todo el túnel como en la ventilación longitudinal, pero la concentración de tóxicos será inferior ya que el humo es diluido por el aire limpio que suministran los puntos de inyección.

El sistema de ventilación transversal, al igual que el anterior, introduce aire limpio en el túnel mediante un colector que abastece a las salidas de aire situadas tanto a nivel de calzada como en falso techo. La diferencia con la ventilación semitransversal está, en que el humo, es aspirado a través de unas aberturas, que comunican con un colector de recogida de humos, situados igualmente en el falso techo. Tanto las salidas de aire como las aberturas de extracción de gases disponen de trampillas telecomandadas desde el Centro de Control, con el fin de sectorizar el túnel y mantener constante el nivel de concentración de tóxicos a lo largo del túnel.

4.7. Ventilación sanitaria

El objetivo que debe ser alcanzado con esta ventilación, es mantener el ambiente del túnel con una atmósfera perfectamente respirable y con visibilidad adecuada. Para ello, el Sistema deberá proporcionar el caudal de aire suficiente para que puedan ser diluidos los gases de escape de los vehículos hasta un nivel adecuado en cuanto a la toxicidad de los gases para la respiración, así como que la opacidad permita la visibilidad a una distancia superior a la de frenado, la cual estará en función de la velocidad de circulación permitida en el túnel.

Los parámetros a tener en cuenta en el estudio de este tipo de ventilación tanto natural como sanitaria forzada son, dirección e intensidad del tráfico, velocidad máxima admitida en el túnel, longitud y pendiente del túnel, altitud media del túnel, % de vehículos pesados, y el viento dominante en la zona.

Estudiados debidamente estos parámetros se llega a la conclusión que:

NORABIDE BAKARREKO TUNELAK

- Beharrezkoa da aireztapen sanitarioa I. klaseko tuneletan (500 m-tik gorako tunelak edo trafikoa pilatu daitekeen 350 m-tik gorako tunelak).
- Aztertu egin behar da II. klaseko tuneletan beharrezkoa den.
- Ez da beharrezkoa aireztapena III. klaseko tuneletan

BI NORABIDEKO TUNELAK

- Beharrezkoa da aireztapen sanitarioa I. klaseko tuneletan (500 m-tik gorako tunelak edo trafikoa pilatu daitekeen 350 m-tik gorako tunelak).
- II. motako tunelaren kasuan, aireztapen sistema bat ezartzea beharrezkoa den ebaluatzen duen aireztapenaren analisi bat eskatuko da.
- Ez da beharrezkoa aireztapena III. klaseko tuneletan.

Oro har, pilaketak izateko aukerak dituzten tunel guztien inguruan egingo da esparru honen egoeraren gaineko analisisia.

4.8. Larrialdietako aireztapena

Aireztapen honen xedea sua dagoenean kea kontrolatzea da, pertsonak giro garbia duen eta ihes egitekoa den bide batetik ebakuatzea ahalbidetzeko, baita larrialdi-zerbitzuak sartzea eta jardutea ahalbidetzea ere.

Hartara, tunel-zuloetan jarritako haizagailuez gain, aireztapen sistema kokatu beharko da ebakuazio-galerietan bertan, aire garbia izateko eta gainpresioan dagoen airea emateko sua dagoen tunel-zuloari dagokionez.

Beraz, kasu honetako diseinuan kontuan hartu beharreko filosofia kearen jokabidea baldintzatzen duten parametroak ezagutzea da, baita gizakiak era honetako gorabeheretan izan dezakeen jokabidea ere, eta, beraz, faktore negatibo horiei zentzuz jokotuta aurre egiteko modua aztertu behar da pertsonen zein instalazioen segurtasunari dagokionez.

Horrenbestez, aireztapen-mota honetan, aireztapen sanitarioarako aipaturiko parametroez gain, «aireztapen-sistemaren beharrezko ahalmena» kontzeptua osatzen dutenak eta keari eta pertsonen buruz azaldu diren bi faktoreekin lotuta daudenak ere kontuan hartu behar dira, hala nola:

- Suaren potentzia edo beharrezko abiadura kritikoa.
- Tunelaren barruko suaren egoera.

Ulergarritasuna sinplifikatzeko, eta parametro horien arteko korrespondentzia oso konplexua denez gero, honako hauek hartuko dira kontuan:

NORABIDE BAKARREKO TUNELAK

- Beharrezkoa da larrialdietako aireztapena I. motako tuneletan (500 metrotik gorako tunelak edo auto-pilaketak gerta daitezkeen 350 metrotik gorako tunelak).
- II. klaseko tuneletan aztertu beharko da, aurreikus daitezkeen arrisku egoeren eta aireztapen sanitarioaren eta larrialdietako aireztapenaren balizko bateragarritasunaren arabera.
- Ez da beharrezkoa larrialdietako aireztapena III. mota konplexuko tuneletan

BI NORABIDEKO TUNELAK

- Beharrezkoa da aireztapena I. motako tuneletan (500 m-tik gorako tunelak).
- II. klaseko tuneletan ezartzea aztertu beharko da, aurreikus daitezkeen arrisku egoeren eta aireztapen sanitarioaren eta larrialdietako aireztapenaren balizko bateragarritasunaren arabera, baita trafikoa pilatu daitekeen 350 m-tik gorako tuneletan ere.
- Ez da beharrezkoa larrialdietako aireztapena III. mota konplexuko tuneletan.

TÚNELES UNIDIRECCIONALES

- Es necesaria la ventilación sanitaria para túneles de Tipo I (túneles de más 500 metros o congestionables de más de 350 metros).
- Se deberá estudiar su necesidad en túneles de Tipo II.
- No es necesaria ventilación en túneles de Tipo III

TÚNELES BIDIRECCIONALES

- Es necesaria la ventilación sanitaria para túneles de Tipo I (túneles de más 500 metros o congestionables de más de 350 metros).
- Para túneles de tipo II, se solicitará un análisis de ventilación que evalúe la necesidad de implantación de un sistema de ventilación.
- No es necesaria ventilación en túneles de Tipo III.

De manera general; todos los túneles que tengan posibilidad de congestión serán objeto de un análisis de situación de este escenario.

4.8. Ventilación de emergencia

El objetivo de esta ventilación consiste en el control del humo en caso de incendio a fin de permitir la evacuación de las personas, a través de una vía de escape con ambiente limpio, así como posibilitar la actuación y acceso de los servicios de emergencia.

Para ello, además de los ventiladores implantados en los tubos, deberá situarse un sistema de ventilación, independiente, en las propias galerías de evacuación que permitan que estas dispongan de aire limpio y a sobrepresión respecto al tubo en el que se encuentre el incendio.

Por tanto, la filosofía de diseño a tener en cuenta en este caso es conocer los parámetros que condicionan el comportamiento del humo, el posible comportamiento humano en este tipo de incidentes y, por tanto estudiar la forma en que esos factores negativos pueden ser contrarrestados de forma razonable en relación a la seguridad, tanto de las personas como de las instalaciones.

Por tanto, en este tipo de ventilación, además de los parámetros ya indicados para la ventilación sanitaria, deberán tenerse en cuenta aquellos otros, que componen el concepto de «capacidad necesaria del sistema de ventilación» que están relacionados con los dos factores antes mencionados del humo y las personas, cómo son:

- La potencia de fuego o la velocidad crítica necesaria.
- La situación del incendio dentro del túnel.

Con el fin de simplificar la comprensión y ya que la correspondencia entre estos parámetros es muy compleja, se tendrá en cuenta lo siguiente:

TÚNELES UNIDIRECCIONALES

- Es necesaria la ventilación de emergencia para túneles de Tipo I (túneles de más 500 metros o congestionables de más de 350 metros).
- Se deberá analizar para túneles de Tipo II en función de las situaciones de riesgo previsible y de la posible compatibilidad de la ventilación sanitaria y la de emergencia.
- No es necesaria ventilación de emergencia en túneles de Tipo III.

TÚNELES BIDIRECCIONALES

- Es necesaria la ventilación de emergencia para túneles de Tipo I (túneles de más 500 metros).
- Se deberá analizar su implantación en túneles de Tipo II en función de las situaciones de riesgo previsible y de la posible compatibilidad de la ventilación sanitaria y la de emergencia y en túneles congestionables de más de 350 m.
- No es necesaria ventilación de emergencia en túneles de Tipo III.

Laburpen gisa, honela adieraz daiteke taula gisa:

Mota	Aireztapen sanitario derrigortua/Larrialdietako aireztapena			
	Norabide bakar.	Bi norabidekoa	Norabide bakar.	Bi norabidekoa
I. mota (L>500 m eta pilaketak izan ditzaketena L>350 m)	BAI	BAI	BAI	BAI*
II. mota	Horren beharra kalkuluaren bidez justifikatu da			
III. mota	EZ	EZ	EZ	EZ

* L> 350 m-ko pilaketak izan ditzaketen tuneletan beren ezarpena analizatu da.

Abiapuntu gisa, ondoren agertzen diren tauletako datuak izango dira kontuan suari eta keari dagokienez.

Lehenbiziko taulan abiadura kritikoaren kalkuluetan aplikatu beharreko balioak ematen dira, baita emariaren kalkuluan ere.

Bigarrenean, ebakuazio-galerien egoera oro har ondorioztatzeko modua ematen duten balioak azaltzen dira; horrek lotura zuzena du larrialdietako aireztapenarekin.

Bertan ikus daiteke pertsonak mugitzeko balizko abiaduraren, ebaluazio-denboraren, suaren potentziaren eta desestratifikazioaren arteko erlazioaren eta abarren arteko erlazioa.

Ibilgailua	Suaren potentzia (mW)	Keen igorpena (m ³ /s)	Temperatura (°C)
Autoa	5	20	400
Kamioia / Autobusa	20 -30	60 – 90	700 – 100
Zisterna	> 100	> 100	1.200 – 1.400

Aireztapen-sistemek gutxienez 30 MW-eko potentziako sute batean sortutako kea kontrolatzeko gai izan behar dute. Sistema erdi-zeharkakoen edo zeharkakoen kasuan, airearen erauzketa-emaria 120 m³/s-koa izango da gutxienez giroko temperatura, eta sistema longitudinalaren kasuan, gutxienez aire-fluxuaren 3 m/s-ko abiadura longitudinala sortu ahalko da, egoerarik txarrenean ere.

4.9. Airearen kalitatea

Tuneleko airearen kalitatea, ohiko funtzionamenduan, aireztapen sanitarioak lortutako diluzioak irizpideei buruzko atal egokietan azalduko poluzio balioak ez gainditzeko modua eman behar du, bai aireztapen naturalaren bidez, bai aireztapen behartuaren bidez.

Noranzko bakarrek tuneletan, eta sua dagoenean, haizagailuen bidez lortuko da airearen kalitatea, eta, horretarako, suak eragindako kea norabide egokian bultzatuko da, betiere ustiapen-eskubiruan zehaztutako jardura-protokoloekin bat etorritik. Printzipioz, trafikoaren noranzkoan izango da.

Bi noranzkoko tuneletan, eta sute kasuetan, airearen kalitatea haizagailuak Ustiapen Eskubiruko protokoloan adierazitakoaren arabera erabiliz lortuko da, eta kerik gabeko ebakuazio-bide bat lortzea ahalbidetuko da.

Horretarako, eta bi kasuetan, alderantzgarriak izango dira haizagailuak.

5. AIREZTAPEN SISTEMAREN DESKRIBAPENA

5.1. Tuneleko aireztapen sistema

Aireztapen sistema, esan bezala, longitudinala da, salbu eta aztertu beharreko tunelaren ezaugarri bereziak direla-eta diseinatzaileak bestelako mota bat erabiltzeko beharrezana egiaztatzen duenean. Zorrotada-haizagailu azelaratzailuek horiei dagokien sistema elektrikoak eta kontrolak osatuko dute aipaturiko sistema tunel osoan zehar.

A modo de resumen se puede expresar de la siguiente forma y según la tabla:

Tipo	Ventilación Sanitaria Forzada		Ventilación de Emergencia	
	Unidireccional	Bidireccional	Unidireccional	Bidireccional
Tipo I (L>500 m y congestionable de L>350 m)	SI	SI	SI	SI*
Tipo II	Se justificará su necesidad mediante cálculos			
Tipo III	NO	NO	NO	NO

* Se analizará su implantación en túneles congestionables de L> 350 m.

Como base de partida se tendrán en cuenta los datos que se indican en las tablas que se presentan a continuación en relación al fuego y humo.

En la primera de ellas se aportan valores a aplicar en los cálculos de la velocidad crítica, así como en el cálculo de los caudales.

En la segunda, se indican valores que de forma general permitirá deducir la situación de las galerías de evacuación, lo cual está directamente relacionado con la ventilación de emergencia.

En ella puede verse la relación entre la posible velocidad de desplazamiento de las personas, el tiempo de evacuación, la relación entre la potencia de fuego y la desestratificación, etc.

Vehículo	Potencia de Fuego (mW)	Emisión de Humos (m ³ /s)	Temperatura (°C)
Turismo	5	20	400
Camión / Autobús	20 -30	60 – 90	700 – 100
Cisterna	> 100	> 100	1.200 – 1.400

Los sistemas de ventilación deberán ser capaces de controlar el humo generado por un incendio de potencia mínima 30 MW. En el caso de sistemas semitransversal o transversal el caudal de extracción de aire no será inferior de 120 m³/s a temperatura ambiente y en el caso de sistema longitudinal se deberá poder generar una velocidad longitudinal del flujo de aire de al menos 3 m/s en la posición del foco, para el escenario más desfavorable.

4.9. Calidad del aire

La calidad del aire en el túnel deberá ser tal que durante el Funcionamiento Normal la dilución conseguida por la ventilación sanitaria permita no sobrepasar los valores de polución indicados en el apartado correspondiente a los criterios, bien sea mediante ventilación natural o forzada.

En túneles unidireccionales, y en situación de incendio, la calidad del aire se conseguirá mediante la actuación de los ventiladores, de forma que el humo producido en el incendio sea impulsado en la dirección apropiada, de acuerdo a los protocolos de actuación definidos en el manual de explotación. En principio la dirección será en el sentido del tráfico.

En túneles bidireccionales, y en situación de incendio, la calidad del aire se conseguirá mediante la actuación de los ventiladores de acuerdo al protocolo del Manual de Explotación, haciendo posible lograr un camino de evacuación libre de humos.

Para ello, y en ambos casos, los ventiladores serán reversibles.

5. DESCRIPCIÓN DEL SISTEMA DE VENTILACIÓN

5.1. Sistema de ventilación del túnel

El Sistema de Ventilación como ya se dicho, será de tipo longitudinal salvo que por las especiales características del túnel a estudio, el diseñador demuestre la necesidad de ser utilizado cualquier otro tipo. Estará formado por los ventiladores aceleradores de chorro situados a lo largo del túnel, el sistema eléctrico correspondiente a ellos, y el sistema de control.

Tunelaren gakoetan kokatuko dira haizagailuak, haizagailu horien pisurako eta baldintza dinamikoetarako egokia den euste-sistema baten bidez. Dardaren kontrako elementuak izango dituzte haizagailuek, behar bezala azterturikoak, halako moldez non dardarak ez baitira pasako tunelaren egituretara.

Proiektuaren eta kalkuluen arabera izango da haizagailu-kopurua. Tunelaren ezaugarriekin eta arau honekin bat etorritz, aireztapen sanitarioarako edo larrialdietako aireztapenerako beharrezkoak diren haizagailuak jarriko dira, hots, tunelean bideraturiko emaria gasak eta keak diluitzeko egokia izango da lehenbiziko kasuan, edo abiadura kritikoa lortzeko nahikoa sua dagoenean.

Haizagailuak tunel osoan lortu beharreko bultzadari dagokionez, bultzada hori prozesu horretan parte hartzen duten faktoreen arabera kalkulatu da; eta faktoreok dokumentu honetan aipatzen dira.

Errendimendu egokia izateko moduan jarriko dira haizagailuak. Horretarako, haizagailuen artean distantzia egokia egongo da, tune-laren longitudinalean zein zeharkakoan, baita sabaiarekiko distantzia egokia ere. Halaber, fluxuaren mugimendua nahasten duten elementuetatik distantzia egokietan jarriko dira, hala nola seinaleetatik, etab. Dokumentu honetan emandako jarraibideak beteko dira.

Tunel osoan zarata gehiago egon ez dadin, isilgailuak jarriko dira.

Larrialdietako aireztapena badago, alderantzgarriak izango dira haizagailuak, eta halako moldez eraikiko dira non haizagailuek 400°C-ko tenperaturan funtzionatu ahal izango baitute 2 orduko tartean.

Indarreko sistema elektriko bat eta kontroleko sistema bat izango dira elementu mekanikoen osagarriak; izan ere, kontroleko sistema horrek, kudeaketa eta komunikazioen sistemaren bitartez, alde batetik giroaren egoera ezagutzeko modua emango du gehienbat poluzioaren aldetik, eta bestetik haizagailuek elkarri eragiteko modua kontroleko zentrotik. Hala eta guztiz ere, tokian bertan abiaraz daitezke haizagailuak.

5.2. Ebakuazio-galerietako aireztapen-sistema

Galerietako aireztapen-sistemaren xede nagusia giroa egoera onargarrietan mantentzea izango da; hartara, funtzionatzeko ohiko egoeran dagoen tuneleko airea xurgatu eta galeria inpultsatuko da halako moldez non gainpresioan mantenduko baita galeria, sua dagoen tunelean kerik sar ez dadin.

Haizagailuak, xurgatze, inpultso, itzulketa eta erauzketa kanalak, saretoak dituzten zuloekin batera, eta bi tunelekiko sektorizazioa ahalbidetzen duten gainpresioko konportak eta suebakiak (ateak zeharkatzean).

Galerien tamainaren arabera izango dira sistemako osagaiak. Handia bada, ($L > 25$ m), honako hauek izan ditzake instalazioak: galerian airea sartuko duen haizagailua (axiala edo zentrifugoa), zuloak eta inpultsorako barruko sareto egokiak eta saretoak hormetan, galeriako airea (itzulketa) zuzenean gainpresioko konportaren hodira igortzeko. Hormen azalera guztian suebakiak egongo dira. Baldin eta galeria txikia bada, ez dira beharrezkoak izango inpultso-hodiak eta saretoak.

Hori guztia tunel-zulo bakoitzari dagokio, eta sua duen tunel-zulotik aire garbia hartzen duen instalazioa sektoretan banatuta egongo da suari dagokionez aipaturiko konporta-suebakiaren bidez, eta galeriara inpultsaturiko airea, esan denez, ohiko egoeran dagoen tuneletik dator eta bertatik egin behar da ebakuazioa.

5.3. Aireztapen sistemaren sistema elektriko

Horren deskribapenaren berri izateko sistema horren atala ikusi behar da.

Los ventiladores estarán situados en la clave del túnel mediante un sistema de soportado adecuado a su peso y condiciones dinámicas. Dispondrán de elementos antivibradores debidamente estudiados de forma que no permitan el paso de vibraciones hacia la estructura del túnel.

El número de ventiladores estará de acuerdo al proyecto y en función de los cálculos. De acuerdo a las características del túnel, y de acuerdo a la presente norma, el número de ellos se corresponderán con los necesarios para un ventilación sanitaria o de emergencia, es decir, el caudal vehiculado en el túnel será el adecuado para la dilución de los gases y humos en el primer caso o el suficiente para conseguir la velocidad crítica en caso de incendio.

En cuanto al empuje a conseguir por ellos para el conjunto del túnel, estará calculado en función de los distintos factores que intervienen, y que se citan en el presente documento.

La implantación de los ventiladores será tal que el rendimiento de cada uno de ellos sea óptimo. Para ello, se situarán a la debida separación entre ellos tanto en sentido longitudinal como transversal al túnel, así como su separación del techo. Se situarán así mismo a las debidas distancias de elementos perturbadores del movimiento del flujo, como señales, etc. Se seguirán las instrucciones dadas en el presente documento.

Con el fin de no contribuir en el ruido de conjunto del túnel, dispondrán de silenciadores.

Si se dispone una ventilación emergencia, los ventiladores serán reversibles y su construcción permitirá un funcionamiento de estos en un ambiente de 400°C durante 2 horas.

El complemento a los elementos mecánicos será un sistema eléctrico de fuerza y un sistema de control, el cual, a través del Sistema de Gestión y Comunicaciones permitirá por una parte, conocer la situación ambiental fundamentalmente desde el punto de vista de la polución, y por otra, la interacción sobre los ventiladores desde el Centro de Control. No obstante mediante el sistema de control, los ventiladores podrán ser actuados también de forma local.

5.2. Sistema de ventilación de las galerías de evacuación

El sistema de ventilación de las galerías tiene como principal objetivo el mantenimiento de su ambiente en condiciones aceptables, mediante la aspiración de aire del túnel que se encuentra en condiciones de funcionamiento normal e impulsarlo en la galería de forma que ésta se mantenga en sobrepresión a fin de evitar la entrada de humo del túnel en el que se encuentre el incendio.

Los componentes de este sistema son fundamentalmente los ventiladores, conductos de aspiración, de impulsión, retorno y extracción con sus rejillas y las compuertas de sobrepresión y cortafuegos, al atravesar paredes, que permitan la sectorización con ambos túneles.

Los componentes del Sistema dependerán del tamaño de las galerías. Si es grande (superior a 25 m), la instalación podrá ser a base de un ventilador (axial o centrífugo), que introduzca el aire en la galería y conductos con sus correspondientes rejillas para la impulsión y rejillas interiores en la pared para la descarga directa del aire de la galería (retorno) al tubo con compuerta de sobrepresión. Todos los pasos de paredes llevarán compuertas cortafuegos. En el caso de que la galería sea de pequeño tamaño, no será necesario el conducto de impulsión y sus rejillas.

Lo anteriormente expuesto, corresponde para cada uno de los tubos, de tal forma que la instalación que toma el aire limpio del tubo en el que se encuentra el incendio, permanecerá sectorizado respecto a éste mediante las compuertas cortafuego mencionadas, y el aire impulsado a la galería procederá como se ha dicho, del túnel en condiciones normales y evacuándose al mismo.

5.3. Sistema eléctrico del sistema de ventilación

Para su descripción, ver el apartado correspondiente a este Sistema.

5.4. Aireztapen sistemarekin lotutako tresnak

5.4.1. Deskribapena eta aplikazioa

Tunelak aireztapen sanitarioa badu, eta horrekin lotuta bada, gutxienez honako tresna hauek izango dituzte:

- Opazimetroak.
- CO neurgailuak.
- NO₂ neurgailuak.
- Barneko anemometroak.

Gainera, larrialdietako aireztapena badago, hauxe gehitu beharko da:

- Esku-babesa duen anemometroa eta haize-hargailua.

Tunelaren luzeraren arabera izango da, funtsean, horien kantitatea. Puntu nagusiak kontuan hartuz definitu beharko da kokapena proiektuan, hala nola puntu altuak edo geometriaren ezaugarriak, etab. non gasen, keen eta aireko partikularren kontzentrazioa agertzea aurreikus daitekeen, betiere neurri handiagotan. Aitzitik, puntu horiek nagusiak direla egiaztatu beharko da probetan.

Aireztapen sistemarekin lotuta egongo dira tresna horiek guztiak; hala, etengabe neurtzen diren balioen arabera, sisteman jar-dungo dute, erreferentziako atalaseko balioekin bat etorritz.

5.4.1.1. CO sentsoreak

Gas kutsagarriak handiena CO da, gasolinaren bete gabeko errekontza-prozesuaren emaitza. Kokapena hobeto zehaztu ahal izateko, hauxe izango da kontuan: gas kontzentrazioak handiena duten tokiak maldaren aldaketa gertatzen diren guneak dira, toki altuak edo baxuak, eta gertuen dagoen ahotik zenbat eta urrutia-ego, orduan eta arazo gehiago sortuko dituzte.

Aireztapen longitudinala duten norabide bakarreko tuneletan, irteerako ahotik gertu dagoen tokia izaten da kokapenik txarrena, baina bereziki gas kaltegarria denez, sentsorea 200 metroko distantzian jartzea gomendatzen da COren kontzentrazio-poltsak antzemateko. Sentsoreak, nolahi ere, ahotik 50 metrotik gorako distantzian kokatu behar dira, ahoetako aireen zirkulazio zurrunbilsuen eragina jasan ez dezaten, eta galtzadatik 1,5 m inguruko altueran.

